Goienkaria

2007ko apirilaren 20a > Egubakoitza > VII. urtea > 284. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Egun garantia handiagoz aurre egin diezaiokegu bularreko minbiziari"

Maria Jesus Mitxelena
Medikua > 09

G2a Nagore Igarzaren 'Gelak' erakusketa Antzuolan > 43

ARAMAIO Hamabost umek dihardu Waldorf pedagogian oinarrituta hezten > 02-03

ARRASATE Saiolan eraikina egokitu eta erabilera berria emango diote > 18

OÑATI Oñatiko Udalak hitzarmena sinatu du Baketik zentroarekin > 33

BERTSOLARITZA > FINALA

Manex Agirre, finalean

Aramaioko bertsolariak Arabako finala jokatuko du bihar, Gasteizen > 38

LANA > ISTRIPUAK

LABek lan istripuak salatu ditu

Besteak beste, Oñatiko heriotza salatzeko agerraldia egin zuten > 06

LEINTZ IBARRA > EUSKARA

Euskalkia batu eta argitara eman dute

Berbetan egitasmoa aurkeztu dute asteon Eskoriatzan. Horren baitan, Leintz ibarreko ahozko ondarea jaso eta Interneten jarri dute eskuragarri, besteak beste, honako helbidean: *eskoriatza.badihardugu.com*. > 15

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

ESKUALDE OSPITALEA > EAE-N SISTEMA HORI EZARRI DUEN BIGARREN OSPITALEA DA, GASTEIZKO SANTIAGOKOAREN ONDOREN

Eskualde ospitaleak SMS bidez gogoraraziko ditu hitzorduak

HITZORDUAK EZ AHAZTEKO Espezialisten eta frogen hitzorduak jasoko ditugu SMS bidez, astebete lehenago

JARRERA ARDURATSUA Hitzordura ez joatekotan, erabiltzaileek hori jakinaraztea nahi dute, beste bati lekua egiteko

HUTS UGARI Iaz, hitzartutako 81.000 kontsultetatik 8.100 bat bertan behera geratu ziren, erabiltzailea ez zelako azaldu > 7

ORDEZKARITZA ZABALA Agintari politiko asko hurbildu zen ekitaldira. Irudian *Intxortako Atea* eskulturari aurreskua egiten. JOSETXO ARANTZABAL

Intxortan batailatutako gudariek omenaldi beroa jaso zuten Elgetan

Espainiako Gerra Zibileko gudariak omendu zituzten atzo Elgetan. Ekitaldia bi zatitan egon zen banatuta. Espaloian Intxortako fronteari buruzko bideo emanaldia ikusi eta agintari politikoen hitzak entzun zituzten herritar eta omenduek. Ondoren, Juan Jose Arangurenen *Intxortako Atea* dagoen tokiraino hurbildu ziren guztiak, eskultura inauguratzeko. Goi mailako nahiz eskualdeko agintari politiko eta gudarien ordezkaritza zabala bildu zen ekimenean. > 05

HEZKUNTZA > ARAMAIOKO ESPERIENTZIA

Hamabost ume dabiltza Aramaion, Waldorf pedagogian oinarrituta hezten

HAUR HEZKUNTZA Hiru eta sei urte bitarteko 15 neska-mutiko dabiltza Azkoagan duten eskolan ikasten; dagoeneko bigarren ikasturtea dute

GURASOEN INPLIKAZIOA Pedagogia eredu horrekin konbentzituta, guraso talde baten ekimenez sortu zuten eskola hori, iaz

ATEAK ZABALIK Aramaioko eskolak irekita ditu ateak; orain arteko esperientzia azaltzeko berbaldia egingo dute datorren eguenean, hilak 26, Kulturaten

JOLAS EGITEN Aramaioko eskolako neska-mutikoek

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

Aramaioko Azkoaga auzoko lasaitasunean dabiltza 15 neska-mutiko Waldorf pedagogian oinarritutako heziketan murgilduta. Hiru eta sei urte bitarteko haurrak dira, eta batera egiten dituzte eskolak, "Oso garrantzitsua eta aberasgarria da hori, gaztetxoek nagusiak eredu moduan hartzen dituztelako, eta ikusi egiten dutelako datozen ikasturtean zer egingo duten; eta, nagusiek gaztetxoei lagundu egiten dietelako", esan digu irakasle lanetan dabilen Miriam Txintxurretak. Waldorf pedagogia ereduak haurraren garapen naturala du oinarri, eta Aramaiokoa da ibarrean egin den lehenengo esperientzia. Gasteiztik gertu, Trokonizen, dagoeneko Lehen Hezkuntzan ere abian dago.

ZER DA WALDORF EREDUA?

Rudolf Steiner filosofo eta letretan doktorea izan zen Waldorf eskola sortu zuena. Lehen Mundu gerra amaitu berri, Steinerrek Emil Molt enpresariaren enkargu bat jaso zuen: Stuttgarren zegoen Waldorf zigarro fabrikako langileen seme-alabendako eskola libre bat sortzea. Enkargua onartu eta pedagogia berri baten oinarri metodologikoak eta didaktikoak ezarri zituen; hala, giza naturaren ezagutza sakonetik abiatzen da pedagogia hori: "Hori da oinarria, pedagogia horrek gizakiarengan eta naturaren gainean duen ezagutza zehatza", esan digu alaba eskola horretan duen Endika Fernandezek.

Steinerrek hezkuntza eredu bizia eta soziala izateko asmoz sortu zuen, baina ez haurrendako bakarrik. Guraso ziren langileei ere ematen zizkieten eskolak; hala, Aramaioko eskolan ere gurasoek inplikazio handia daukate: "Umearendako onuragarria da eskolan egiten dugunak etxean ere nolabaiteko jarraipena izatea", esan digu Txintxurretak. Waldorf pedagogia mundu osora hedatu zen, eta gaur egun munduan dagoen mugimendu pedagogiko libre garrantzitsuena da.

WALDORF-EN EZAUGARRIAK

Esan moduan, gizakiaren eta kasu horretan haurraren ezagutzan oinarritzen da Waldorf pedagogia. Askatasuna oinarrizko baldintza da bizitza kultural sortzailea izan gura bada. Eskola horiek "eskola libreak" dira; hezkuntza horretan

Waldorf pedagogia giza naturaren ezagutza sakonetik abiatzen da; garapen osasuntsurako, haurraren beharrak errespetatuz egiten da curriculuma

umea ardatza izanda, umea errespetatuz, eratzen da curriculuma.

Horrekin batera, berebiziko garrantzia du naturarekiko harremanak; hori horrela, urtaroaren erritmoa eta ezaugarriak gertutik bizitzen dituzte. Beste ezaugarrietako bat da haurraren indibidualtasuna eta erritmoa errespetatzen dutela, neska-mutiko guztiak ez direlako martxa berean garatzen.

KONTUAN HARTZEN DUTENA

Eskolako giroa beroa eta goxoa da, horretan ahalegintzen da Txintxurreta, orduan egongo dira-eta haurrak gustura. Mahaia, aulkiak, jostailuak... material naturalekin egindakoak dira denak.

Goizean 09:00etan hasten da eskola, eta umeak datozen bitartean, Txintxurreta ekintza bat egiten ibiltzen da; artoa zuritzen, sua pizten, josten, gaztainak zuritzen... Hala, Txintxurretaren esanetan, neska-mutikoek berehala heltzen diote zeregin horri eta jolas librean jarduten dute.

Aipatu, egiten dituzten ekintza horiek zentzua izan behar dutela, hau da, egiten dabiltzan horrek zerbaitetarako balio behar duela. Adibidez, sua egiten dute etxea berotzeko, edo jostailuak egiten dituzte gero jolas egiteko.

Lehenago aurreratu moduan, errutinak segurtasuna ematen diete haurrei, badakitelako ondoren zer egingo duten: "Umeak errepikapena behar du bere ziurtasunerako eta ziurtasun hori bere bizitzarako lagungarri izango da", esan digu Txintxurretak. Horrekin batera, ekintza guztiak erritmoa kontuan hartuta egiten dituzte, erritmo handiko ekintzak lasaitasunarekin tartekatuz: "erritmoak oreka eta bizi indarra ematen duelako". Eta, ezin jolasak ahaztu: "Jolas egitea da adin horretan egin behar dutena, hori da euren eginbehar nagusia". Jostailu sinpleekin jolas egiten dute, bukatu gabe dauden egur zatiekin, adibidez, irudimena landu dezaten. "Irudimena erabilita, landu gabe dagoen egur zati bat gauza asko izan daitezke: panpina, trena...".

Hau aurrerapen txiki bat baino ez da. Waldorf eskolaren eta Aramaioko esperientziaren berri jakin gura duenak, apirilaren 26an Kulturaten (19:00) bebaldira joan besterik ez du.

Servimasa

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

naturako elemantuak izaten dituzte jostailu; irudian, gaztetxoak lurrarekin jolas egiten. MIRIAM TXINTXURRETA

Miriam Txintxurreta > Irakaslea

"Hazia ereiten ari gara, lehenengo pausoak emanez bidea egiten"

X.U. > ARAMAIO

Dagoeneko bigarren ikasturtea du Miriam Txintxurretak Aramaioko eskolan. Bistan da esperientzia horrek aurrera egin dezan ahalegin handia egin dutela, baina pozik dira orain arteko egindako bidearekin; euren esperientzia gizarteratzeko asmoa daukatela kontatu digu.

X.U.

Zein helbururekin sortu duzue Waldorf heziketa ereduan oinarrituta dagoen eskola?

Uste dugu umeendako pedagogia egokia dela, eta umeei pedagogia hori eskaintzea izan da gure helburua. Hazia ereiten ari gara, lehenengo pausoak emanez bidea egiten. Esperientzia oso ona izan da orain arte, umeek erakusten digute-eta zerbait ona egiten gabiltzala.

Zein egoeratan zaudete?

Egitasmo hori hainbat guraso elkartu eta euren ekimenez sortu da, eta laguntza gutxirekin egin dugu aurrera. Azkoagako baserri batean ematen ditugu eskolak, eta paraje ederrean bagaude ere, beste kokaleku baten bila gabiltza. Hala ere, daukagun ikasgela leku goxo eta beroa da.

Lehen aurreratu dugu gurasoek parte-hartze zuzena daukatela.

Bai, hala da. Hilean behin elkartzen gara guztiak, eta arduratzen gaituzten kontuen gainean egiten dugu berba. Horrekin batera, gurasoek ere ezagutzen dute Waldorf pedagogia, eta etxeko egunerokoan ere eredu hori kontutan hartzen dute. Bestalde, umeekin bakarrik ez, gurasoekin ere harreman estua daukat nik, eta haurrak izugarri eskertzen du hori.

Lehen aipatu dugu adin horretan jolasteak ze garrantzia duen. Baina, ez dugu aipatu ipuinek eta eskulanek zelako garrantzia duten.

Oinarrizko ekintzak dira. Ipuinen bitartez bizitzako hainbat pasartetan identifikatuta sentitzen dira, eta izan ditzaketen arazoei zelan aurre egin ikasten dute. Eskulanekin eskuak erabiltzen dituzte eta burmuinaren garapenean laguntzen du horrek. Hala, bai ipuinekin eta baita eskulanekin ere irudimena lantzen dute. Irudimena landuta, haurrak gerora pentsamendu bizia eta sortzailea garatu ahal izango du.

Oker ez banabil, Waldorf ereduaren barruan, haurrak sei-zazpi urte izan arte ez ditu idazketa eta irakurketa lantzen.

Hori da. Adin horretara arte, gutxi gorabehera, haurraren gorputza fisikoki eratzen dabil, eta indar handia erabiltzen du horretan. Horregatik uste da esfortzu intelektuala neurtuta egon behar dela. Adin horretara iritsita, haurrak erakutsiko du ikasteko gertu eta irrikan dagoela.

EGUNEROKO JARDUNA ARAMAIOKO ESKOLAN

> JOLAS LIBREA
Goizean ekintza bat egiten dabilela hartzen ditu irakasleak haurrak. Gaztetxoek berehala ekiten diote ekintza horri, edo jolas librean hasten dira bestela.

> GELA JASOTZEA
Ekimen hori ere jolas moduan egiten dute. Gainera, eskolan dituzten gauzak zaintzen ikasten dute: mahaiak, aulkiak, jostailuak...

> KORROAK
Korroetan urtaroari lotutako abestiak eta poesiak lantzen dituzte mugimenduekin batera. Horri esker euren hizkuntza eta entzuteko gaitasuna garatzen dute.

> HAMARRETAKOA
Hamarretakoa ekintza soziala da: "sekulako berriketak egiten dituzte mahaiaren bueltan, ikusi egin behar zaie". Haurrek jartzen dute mahaia, janaria banatu, eguzkiari eta lurrari jana eskertu... Batera jaten dute guztiek, famili giroan. Astean birritan ogia egiten dute, hurrengo eguneko hamarretakoan jango dutena.

> TXIZA EGIN, ESKUAK GARBITU
Egiteko bakoitzak garrantzia handi du Aramaioko eskolan. Komun bakarra dagoenez, haurrek txandak errespetatzen dituzte.

Horrekin batera, eskuak garbitzeko ondoko lagunak palankari eragin behar dio; elkarlana lantzen dute horrela.

> PASEATZERA
Etxeko zapatilak erantzi, berokiak jantzi eta kanpora joaten dira egunero. Nagusiek txikienei lan horiek egiten zelan lagundu ikasten dute. Egunero egiten dute itzuli berbera, urtaroaren arabera paisaia zelan aldatzen den ikus dezaten. Eta kanpoan, naturako elementuak izaten dituzte jostailu, "lurra, ura, arbolak...".

> IPUINA
Eskolara sartuta, ipuinaren ordua da. Mahai bat dute urtaroaren arabera atontzen dutena, eta mahai horren bueltan kontatzen die Miriam Txintxurretak ipuina.

> AGURRA
Joateko ordua iritsitakoan, irakasleak haurrak banan-banan agurtzen ditu.

BIRZIKLAPENA > EGUAZTENEAN EGIN ZUTEN INAUGURAZIO EKITALDIA

Olioa jasotzeko poteak banatu eta hiru edukiontzi jarri ditu Arrasateko Udalak

Etxez etxe banatu ditu Arrasateko Udalak erabilitako olioa jasotzeko poteak

MU eta Arrasateko Udala izan dira proiektuaren bultzatzaileak

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Eguaztenean inauguratu zituzten erabilitako olioa jasotzeko lehendabiziko edukiontziak Arrasaten. Maiatzaren Lehena plazan, Ignazio Zuloaga kalean eta Hiper Eroskin jarri dituzte edukiontziok oraingoz. Datozen bi hilabeteotan, baina, beste lau edukiontzi jarriko dituzte, Laubide plazan, Udala plazan, San Antolinen eta Zaldibar frontoiaren ondoan.

Arrasateko Udalak 9.000 pote banatu ditu etxez etxe, olioa jasotzeko. Pote horiek edukiontzian sartu eta pote garbi bat jasoko du erabiltzaileak.

INAUGURAZIOA Proiektuaren arduradunak eta Udaleko arduradunak eguazteneko inaugurazio ekitaldian. TXOMIN MADINA

ELKARLANAREN EMAITZA

Arrasateko Udalaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko elkarlanaren emaitza da proiektua. Eskola Politeknikoko ingeniaritzako sei ikaslek garatu dute proiektua. Honakoak dira ikasleak: Jon Alvarez, Iker Jauregi, Josu Perez, Sara Aldai, Amaia Duque eta Eñaut Ruiz de Egino. Udaleko arduradunek ikasleok zoriondu eta egindako lanagatik eskerrak eman nahi izan dizkiete.

Inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten Udaleko arduradunek, MUko proiektuaren arduradunek, Jaurlaritzako Ingurumen sailburuorde Ibon Galarragak eta Diputazioko Garapen Iraunkorreko diputatu Luis Mari Oiarbidek.

HAUTESKUNDEAK

Ezker Abertzalea pozik sinadurekin

Herritarren erantzun ona azpimarratu dute bultzatzaileek

AMAIA ZALDUA > DEBAGOIENA

Apirilaren 4an hasi eta 22ra bitarte ari da Ezker Abertzalea udaletako zein Batzar Orokorretako hauteskundeetarako sinadura-bilketa egiten.

Orokorrean eta orain arte herritarren erantzuna ona izan dela baieztatzen du Ezker Abertzaleak, nahiz eta kopuru zehatzik ez eduki oraindik.

DEBAGOIENAKO ERANTZUNA

Ezker Abertzalekoek jakinarazi dutenez, sinadura bilketa emaitza onak izaten ari da.

Bergaran, Arrasaten, Elgetan eta Antzuolan sinadura kopurua handia izan da. Arrasaten, adibidez, lehenengo astean 300 bat sinadura bildu zituzten.

Gaurtik domekara bitarte, sinatzeko aukera izango da oraindik herri guztietan.

hamaika esperientzia, proiektu bat

• elkarlana
• lankidetza
• herrikoia
• aktiboa
• prestatua
• kalitatezkoa
• integratzailea
• berritzailea
• konpromisoduna
• sustatzailea
• euskalduna

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

Batxillergorako matrikulazio epea: Apirilaren 23tik maiatzaren 4ra.

ARRASATE INSTITUTUA
Sta Teresa 25
Tel.: 943794447
943798300
• Natur eta Osasun Zientziak.
• Giza eta Gizarte Zientziak.
• Teknologikoa.
• Arte batxilergoa.
• Heziketa Zikloetarako Batxilergoa.
Batzar informatiboa:
Apirilaren 26an, 18:00etan institutuko goiko eraikuntzan.

IPINTZA INSTITUTUA (BERGARA)
Boni Laskurain 19
Tel.: 943763142
• Natur eta Osasun Zientziak.
• Giza eta Gizarte Zientziak.
• Teknologikoa.
Batzar informatiboa:
Apirilaren 25ean, 18:00etan Ipintza institutuan.

OÑATIKO BH INSTITUTUA
Larraña auzoa z/g
Tel.: 943782150
Batxillergoa
• Zientzia- teknologia Batxikergoa
Batzar informatiboa:
Apirilaren 25ean, 18:00etan Larraña institutuan
Heziketa zikloak
• Mekanizazioa
• Makina eta lineen mantenu elektromekanikoa
• Kirol ekintzen gidaritza
Langileentzako ikastaroak
• Segurtasuna industrian 40 ordu
• Segurtasuna mendian 40 ordu
• Automatismo pneumatikoa eta elektropneumatikoa 40 ordu
Maiatzak 16tik aurrera

goieskola@euskalnet.net
605 773992
www.goieskola.net

GUDARIEI OMENALDIA Intxortako batailen 70. urteurrena dela-eta, gudariak omendu zituzten *Intxortako Atea* eskulturaren ondoan. JOSETXO ARANTZABAL

ESPAINIAKO GERRA ZIBILA > INTXORTAKO BATAILETAKO GUDARIAK OMENDU ZITUZTEN

Arangurenen 'Intxortako Atea' eskultura inauguratu zuten atzo

Agintari politiko eta gudarien ordezkaritza zabala bildu zen eguerdi partean Elgetan

EAE-ANV alderdiak elkarretaratzea egin zuen Espaloia Kafe Antzokiaren kanpoko aldean

MIRIAN BITERI > ELGETA

Hamarrak eta erdiak zirela iritsi ziren agintari politikoak Elgetako udaletxera Intxortako batailetako gudariak omentzeko asmoz.

Han izan ziren, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria; Eusko Jaurlaritzako sailburu Miren Azkarate, Joseba Azkarraga eta Javier Madrazo; Eusko Legebiltzarreko presidente Izaskun Bilbao; Gipuzkoako diputatu nagusi Juan Joxe Gonzalez de Txabarri eta Batzar Nagusietako presidente Leire Ereño; inguruko alkate eta gudarien ordezkaritza.

Harrera horren ostean, herriko Espaloia Kafe Antzokira joan ziren guztiak. Alegia, Intxortako fronteko gertakariei buruzko erakusketa dagoen tokira. Espaloia beteta zegoen ordurako. Agintarien hitzaldien aurretik, bideo hunkigarria proiektatu zen, non sei minutuan 1937an Intxortan gertatutakoa laburtzen den.

Ondoren, Elgetako alkate Patxi Basaurik hartu zuen hitza. Intxorta 1937 Kultur Elkartearen bideo emanaldi hunkigarria ikusi ostean, "oso zaila da hobeto laburtzea zer suposatzen duen elgetarrentzat gaurko egunak", esan zuen. Eskerrak eman zizkien bereziki Espaloira joan ziren herritarrei; baita Intxortan izandako ideologi ezberdineko gudariei ere, "guretako eredua zaretelako".

"DEFENTSAREN IKURRA"

Gerra garaian Elgeta "Euskadiko defentsaren ikurra bihurtu zela" azpimarratu zuen Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak. Basaurik aurretik egin bezala, "Euskadiren alde bizia eman zuten" gudariak goraipatu zituen. Era berean, "biolentzia eta totalitarismori atea itxita" eta "euskal nortasunaren identitatearen defentsari atea zabalik" dagoela gaineratu zuen Ibarretxek.

Beldarrain komandantearen alaba Maialenek Intxortak "bizipen asko" ekartzen dizkiola ekarri zuen gogora. Horretaz gain, ekitaldia apirilaren 19an egin izana "opari bat" dela jakinarazi zuen, bere aitak urteak betetzen zituen eguna delako. Espaloitik irtetean, EAE-ANV alderdiaren elkarretaratzearekin egin zuten topo parte hartzaileek.

Gero, Juan Jose Arangurenen *Intxortako Atea* eskultura dagoen tokira joan ziren guztiak, Asentzioko bidegurutzera. Ohiko aurresku eta lore-eskaintzaren ostean, Pablo Beldarrainen alargunak,1980an senarrak inauguratutako oroigarria bisitatu zuen.

IBARRETXE Espaloiko ekitaldian gudariei ohore egin zien Lehendakariak. J.A.

ESANAK

"Biolentzia eta totalitarismoari atea itxita daukagun bitartean, euskal nortasunaren identitatearen defentsarentzat, berriz, atea zabalik daukagu"

Juan Jose Ibarretxe > Lehendakaria

"Intxortak bizipen asko ekartzen dizkigu gogora. Hor egon ginen gurasoekin bisitan eta gertatutakoa kontatzen ziguten eta aitaren errautsak ere han bota genituen"

Maialen Beldarrain > Beldarrain komandantea zenaren alaba

"Intxorta 1937 Kultur Elkartearen bideo emanaldi hunkigarria ikusi ostean, oso zaila da hobeto laburtzea zer suposatzen duen elgetarrentzat gaurko egunak"

Patxi Basauri > Elgetako alkatea

FAGOR ARRASATE KOOP. E.

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

DATA: 2007ko apirilaren 27an, ostiralean.
ORDUA: 15:00etan lehenengo deialdia eta 15:30ean bigarrena.
TOKIA: Gesalibarko Aita Menni gaixotegiaren batzar aretoan, Arrasaten.

EGUNEKO AZTERGAIAK

1- Aktak onartzeari buruzko informe eta erabakia.
2- Memoria irakurtzea eta onartzea.
2.1.- 2006ko gestioari buruzko akordioa.
2.2.- 2007ko Gestio Plana onartzea
3- "Mondragon Industriako Automatizazioa" dibisioari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4- 2006ko kontu eta balantzeak aztertzea.
5- 2006ko emaitzen banaketa.
6- Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7- Kooperatibaren Estatutu Sozialen 24. artikulua aldatzea.
8- Kooperatibaren Barne Erregelamenduaren 26.1, 45.4, 50.4, 55.3 eta 89.2 artikuluak aldatzea.
9- Errektore Kontseiluaren komunikazioak. Fagor Taldea berregokitu eta indartzeko proiektua.
10- Fagor Arrasateren txosten soziala.
11- Kooperatibako kontu aztertzaileen izendapena.
12- Zaintza batzordea berritzea.
13- Errektore Kontseilua berritzea.
14- Eskariak eta itaunak.

Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek berei dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

Arrasate, 2007ko apirila
Fagor Arrasateko lehendakaria

kontsumoa

Errenta aitorpena egiteko garaia iritsi da berriro ere. GOIENKARIA

Errenta aitorpena bihartik aurrera egin ahal izango da Debagoienean

M.B. > BERGARA

2006. urteko errenta eta ondarearen aitorpen kanpainak bihar zabaldu eta ekainaren 28ra iraungo du. Aitorpen mekanizatua aurkezteko hitzordua, hala ere, gaurtik aurrera eskatu ahal izango da. Autolikidazio proposamenak astelehenaz geroztik onartu edo arbuia daitezke.

Jakina denez, Internet bidez ere egin ahal izango da errenta eta ondarearen aitorpena. Bihartik aurrera jasoko dira disketez, paperean edo Internet bidez helarazten diren aitorpenak. Hala, informazio gehiago eskuratu nahi duenak 902 10 00 40 telefonora dei dezake.

Gas naturalaren faktura %2,74 merkatu da apirilean

Joan den apirilaren 12a ezkero merkeagoa da gas naturalaren tarifa. Etxeko faktura %2,74 jaitsiko da.

Kontsumitzaile industrialen eta merkatarien kasuan, merkatzea etxekoen bikoitza izango da hilaren amaieran; alegia, %5,41.

Ezkontza batek 10.000 eta 43.000 euro artean balio du

Consumer aldizkariak jakinarazi berri duenez, ezkontza baten gastuak 10.000 eta 43.000 euro artean dabiltza.

Diru gehiena eztei bazkari edo afaria ordaintzeko bideratzen da. Otordu bakoitzak 60 eta 125 euro bitartean balio du.

ROYDE
FITTINGS & BEARINGS

ROYDE KOOP. ELK.

Bihar, hilak 21,
Ohiko Batzar Nagusia
egingo dugu, eta bazkide guztiok
bertan egotea gura genuke.
11:00etan lehenengo deialdian
eta 11:30ean bigarrenean,
Arantzazuko Gandiaga
esparruan (Laorga gelan).

MANIFESTAZIOA Hainbat pertsona bildu ziren Bergaran lan-istripuak salatzeko. AMAIA ZALDUA

LANA > LAB-EK EGINDAKO BILKURA

LABek Bergaran egindako bilkuran lan istripuak salatu zituen

LAB sindikatuak lan osasunaren inguruko asanblada egin zuen herenegun Bergaran. Gero, manifestazioa egin zuen lan istripuak salatzeko

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Apirilaren 28an lan osasunaren nazioarteko eguna dela eta, LAB sindikatuak asanblada egin zuen eguaztenean Bergaran.

Asanbladaren ostean, lan istripuen kontrako manifestazioa egin zen eta Oñatin izan zen lan istripua ere aintzat hartu zuten. Hain justu, basoan lanean ari zela hilakdo 35 urteko langilearen heriotza salatu duen sindikatu bakarra izan da.

ASANBLADAKO ERABAKIAK

Alde batetik, sindikatuak argi utzi zuen aldarrikapen eta borroka eguna izango dela apirilaren 28a. Beste aldetik, langileen eguna ere, borrokarako eguna izango dela adierazi du LABek. Gure ibarrean Arrasaten ospatuko du LABek maiatzaren 1a. Goizeko 12:30ean manifestazioa egingo dute Portaloitik abiatuta eta gero, ekitaldi politikoa izango da.

LAN ISTRIPUAK

LABek adierazi du enpresetako egoera oso larria dela: "Iaz 129 langile hil ziren lan istripuetan. Aurten, 40 langile hil dira eta horiengatik ez dute inor zigortu".

Bestalde, Oñatin hil zen langilearen egoera prekarioa zela salatu du eta patronala erantzule dela.

Egoera honen kontra borrokatzeko deia egin du LABek.

GOIENKARIA

Mahai jokoetan buru belarri ibili dira erretiratuak Arrasateko Abaroan

Asteon jokatu dituzte finalak, Abaroan. Bergarako San Joxepekoak hirutan nagusitu dira: billarrean, Gabriel Medina; musean, Ramon Agirre eta Antonio Uribe eta xakean, Antolin Marchena. Antzuolakoak ere fin ibili dira: Carmen Egañak eta Sabina Agirrek briskan irabazi dute; Dolores Saizek eta Kontxi Mendizabalek puntuan eta Enrique Losadak eta Tomas Bakaikuak tutean. Dominoan, berriz, Arrasateko Uribarri egoitzako Jose Martin eta Francisco Ropero gailendu dira.

ESKUALDE OSPITALEA > SISTEMA HORI EZARTZEN DUEN BIGARREN OSPITALEA DA DEBAGOIENEKOA

Hitzorduak gogorarazteko SMS bidezko sistema erabiltzen hasi da Ospitalea

Espezialisten eta frogen hitzorduak gogoraraziko dizkigute aurrerantzean Eskualde Ospitaletik

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Aurreko egubakoitzetik martxan dago hitzorduak gogorarazteko sistema berria Debagoieneko Eskualde Ospitalean. Astebete lehenago poltsikoko telefonoan SMS bat jasoko dugu hitzorduaren tokia, eguna eta ordua zehazten diguna. Hitzordura ez joateko asmoa izanez gero, abisua emateko ere eskatuko digute mezu horretan. Espezialistekin ditugun hitzorduen zein mediku frogen hitzorduen berri emango digute sistema honen bitartez.

HELBURU BIKOITZA

Eskualde Ospitaleko arduradunen esanetan, sistema honen helburua bikoitza da: batetik, jendeari gauzak erraztu nahi dizkiote, hitzordua gogorarazita; bestetik, medikuen euren lana efizienteagoa izatea nahi dute eta itxaron zerrendak murriztea. Zenbatuta dute kontsulten %10 bertan behera geratzen dela, jendea ez delako azaltzen. Iaz hitzartutako 81.000 hitzorduetatik 8.100 inguru ez ziren egin. Kontua da jendeak joango ez dela jakinaraziz gero, geratzen diren hutsuneok betetzeko aukera izango luketela, itxaroten dagoen jendea hutsune horietan sartuta. Horrela, itxaroteko denbora murriztu egingo litzateke. Poltsikoko telefonorik ez edukitzekotan, aukera dago senitartekoren batenean jasotzeko mezua. EAEn sistema hori ezartzen duen bigarren ospitalea da gurea, Gasteizko Santiagokoaren ondoren.

AP-1 AUTOBIDEA

Tuneletako instalazioak lehiaketara atera dituzte

Bidegik 33 milioi inbertituko ditu eraikitzen diharduten bost tuneletan

A.I. > BERGARA

AP-1 autobideko Eskoriatza-Isuzkitza eta Arrasate-Eskoriatza zatietan bost tunel egiten dihardute. Orain, Bidegik lehiaketara atera ditu tunel horietako instalazioak eta ekipamendua jartzeko lanak. 33 milioiko inbertsioa egingo dute lan horietarako. Tunelak honakoak dira: Isuzkitza (3.370 metro), Zarimutz (420 m), Gurutzetxiki (710 m), Apotzaga (320) eta Izurieta (280 m).

SEGURTASUNA BERMATZEKO

Hona hemen jarriko dituzten ekipamenduetako batzuk, segurtasuna bermatzeko, batez ere: argiteria, larrialdi irteerak eta seinaleztapenak, semaforoak, megafonia sistemak, aireztapen sistemak, seinaleztapen panelak, espaloiak eta suteak eta ezbeharrak antzemateko sistemak.

gure artekoak

AUDI A3 SPORTBACK > Audi A3 Sportback automobilak jarraipena ematen dio Audi A3 modeloari, baina, zerbait gehiago eskaintzen digu. Modelo berri honen nondik norakoak azaldu dizkigu Inma Gomezek.

Inma Gomez > Aseginolaza kontzesionarioko saltzailea

"Eskuragarria da, erosoa, segurua eta maila altukoa"

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

"Gazte automobila, kirol-automobila, estetikari dagokionez ederra, maila altukoa, segurua, erosoa eta eskuragarria"; horrelaxe deskribatu digu Inma Gomez Bergarako Aseginolaza etxeko arduradunak Audi A3 Sportback automobila.

Kirol-automobilen artean, gutxi dira bost ate dituztenak eta honako hauxe da horietako bat. Hala ere, kirol-automobilen estetikari eusten dio. Era berean, baina, estetika oso dotorea dauka Sportback-ek.

Motorrari dagokionez, teknologia aurreratuenak erabiltzen ditu Audi etxeak, automobilari etekinik handiena ateratzeko, kontsumo baxuenarekin. Hainbat aukera eskaintzen dizkigu, gainera, Audik Sportback automobilean; honakoak, besteak beste: lau zilindro, sei martxa, DSG abiadura-aldagailu automatizatua, trakzio integrala edo aurreko aldeko trakzioa. Zazpi motor ezberdin ditugu aukeran, bost gasolinazkoak eta beste bi dieselak.

Inma Gomez Bergarako Aseginolaza etxean, Audi A3 Sportback autoarekin. A.I.

TRAKZIO INTEGRALA

Esan bezala, aukeran dugu quattro trakzio integrala; sistema horrek automobilaren lau gurpiletara banatzen du motorraren indarra, automatikoki eta etengabe. Horrela, segurtasuna ematen digu, bihurguneetan automobila kontrolatuz, baita, mugimendu bortitzetan eta lurzoru zailen kasuetan ere.

DISEINUA ETA ESPAZIOA ESKUTIK

Automobilaren barruko aldeko diseinuak erosotasun handia ematen die gidariari eta gainerako bidaiariei. Atzeko aldeko eserlekuetan, hankendako toki handia dago, horrek ematen duen erosotasunarekin. Maletategiak ere espazio handia eskaintzen digu, gehienez, 1.100 litrokoa.

Sportback 2.0 Tdi 140 ZP Ambition

Prezioa	29.870 eurotik
Luzera	4,28 metro
Zabalera	1,76 metro
Maletategia	1.100 litro(1)
Kontsumoa	5,5 litro /100 km(2)
Abiadura	207 km/h(3)
Otik 100era	9,7 seg.
CO2 isurketak	148 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

etxeko leihotik

Goiatz Arana > GOITBko erredaktore-burua

Politikoen oporrak, guretzako ere deskantsu

Aurreko asteko martitzenean itzuli ginen jardunera Goienako langile batzuk. Kezka apur batekin bueltatu ginen, horrelako asteetan –batzuk lanean eta beste batzuk oporretan diren ez-ohiko egun horietan– gertatzen den moduan; egunero x albiste atera behar eta nola demontre konponduko ote garen edo: zentro batzuk itxita daudelako, beste batzuetako ordutegiak aldatu dituztelako edota deialdirik apenas dagoelako. Oraingo astea ikusita, baina, nahiko nuke guztiak aurrekoak modukoak balira. Hauteskunde usain nabarmena ekarri du honek, eta ezin esan albiste barietate handirik egon denik: inaugurazioak, hitzarmenak eta bisitak. Asko gehiago ez.

"Eskertu genuen, egun batzuez, bestelako albistegia egitea"

Aurreko asten, ordea, politikariek ez zuten bizi-seinale handirik eman, baina moldatu ginen, bai: Eskoriatzan alokairuan dauden Seg-Way izeneko ibilgailu ekologikoak probatu, Arantzazuko artzainaren arrastoei segika Ordiziako Artzain Egunera joan edo Antzuolako agoazilaren egunerokoak ezagutuz. Eskertu genuen, egun batzuez, bestelako albistegi bat egitea, eta ikusleek ere, batere ez dakit baina, uste dut baietz!

> Debagoienetik pasa dira aste honetan inon diren politiko denak: Lehendakaria, Etxebizitza Sailburua eta Garapen Iraunkorreko diputatua, horien artean. Nabari da hauteskunde usaina.

> Ez da harritzekoa, zerbaiten berri eman gura duenak Pazko Astea pasa arte itxarotea. Ahalik eta jende gehienarengana heldu nahi izaten dugu, eta aurreko astean kanpoan ziren asko.

begi-bistan



Iritsi zaigu udaberria (Antzuola)
2007/04/18

Argazkia: Aitor Atxa.
Testua: Aintzane Irizar.

Antzuolako baserri bateko zuhaitzak, loratan topatu ditugu. Eguzkiak, paisaia ederrek eta loreen usainak udaberrian gaudela eta uda geroago eta gertuago dugula gogorarazten digute.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak

Manex Agirre
BERTSOLARIA

Manex Agirre aramaioarrak Arabako Bertso Txapelketako finalean parte hartuko du bihar, zapatua, Gasteizko Jesus Guridi auditorioan, 17:00etan hasita.

Iñaki Viñaspre, Zigor Enbeita, Asier Otamendi, Oihane Perea eta Juan Mari Juaristi izango ditu lehiakide Agirrek.

Jose Ramon Zubizarreta
ARIZMENDI IKASTOLA

Gipuzkoako Ikastolen Federazioko presidente izan da sei urtez Jose Ramon Zubizarreta. Orain, baina, laga egin du kargua eta Oiartzungo ikastolako presidente Arantxa Manterolak hartu du bere lekua. Arizmendi Ikastolako bazkidea eta langilea da Zubizarreta.

Ibon Garitano
ARITZETA ABESBATZA

Bergarako Aritzeta abesbatzak presidente berria dauka: Ibon Garitano. Umore-Ona elkarteko presidentea ere bada Garitano.

Hamar urte daramatza Aritzetan eta azkeneko bi urteotan zuzendaritzako kidea ere izan da. Orain arte Mariano Agirre izan da presidentea.

Bularreko eta ginekologiako minbizien prebentzioaren aldeko lana egiten dihardu Katxalin elkarteak 1987. urtetik. Egoitza Donostian duten arren, eguaztenero elkarteko kide den Edurne Iruin etortzen da Arrasateko Emakume Txokora. Datorren eguenerako, apirilaren 26rako, Maria Jesus Mitxelena medikuaren hitzaldia iragarri du Katxalinek Bergaran.

Maria Jesus Mitxelena > Sendagilea eta Katxalin elkarteko kidea

"Gaur egun garantia handiagoz aurre egin diezaiokegu bularreko minbiziari"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Donostiako Ospitale Onkologikoan lanean dihardu Maria Jesus Mitxelena mediku donostiarrak. Era berean, urte asko darama Katxalin elkartearekin elkarlanean. Datorren eguenean, hilaren 26an, *Prevención del cáncer de mama* izenburuko hitzaldia egingo du Bergarako kultura etxean, 17:30ean.

Maria Jesus Mitxelena bularrezko minbiziaz mintzatuko da datorren eguenean, Bergarako kultura etxean. GOIENKARIA

Zein da gaur egungo egoera bularreko minbiziari dagokionean?

Tamalez, gero eta kasu gehiago azaltzen dira urtetik urtera. Gaur egun, urtero, 350-360 kasu berri atzematen dira Gipuzkoan. Biztanleriaren bizitza itxaropenak gora egin duen neurrian, minbizi kasuek ere gora egin dute. Zorionez, osasun arloko baliabideak askoz hobeak dira gaur orain dela urte batzuetako egoerarekin konparatuta: mamografiei esker minbizi kasuak garaiz atzemateko aukera dago eta ondorioz garantia handiagoz aurre egin diezaiokegu gaixotasunari. Emakumeen aldetik ere arazo honen gaineko kontzientziazioa handiagoa dela azpimarratu beharra dago.

Beste herrialde batzuekin alderatuz gero, zein egoeratan gaude Euskal Herrian?

Estatu mailan ez dago diferentzia nabarmenik probintzia batetik bestera. Europa osoa kontuan hartuta, Mediterraneo aldeko herrialdeak sailkapeneko erdialdetik behera egongo ginateke. Europa iparraldean bularreko minbiziaren eragina handiagoa da: Suedian, Norvegian, Danimarkan, Holandan edo Britainia Handian kasu gehiago izaten dituzte, baita Amerikako Estatu Batuetan ere.

Zeintzuk dira arrisku faktoreak?

Oraindik ez dakigu zehatzmehatz zergatik azaltzen den bularreko minbizia. Baina badira arrisku faktore batzuk: adina alde batetik (45-50 urtetik gorako emakumeetan arriskua handiagoa da); bestetik, herentziazko gaixotasuna ez bada ere, familia askotan errepikatu dira kasuak; 40 urtetik aurrera haurdun geratu diren emakumeen artean ere kasu gehiago izaten da; menopausia sasoian hartzen diren hormonek ere arriskua handitzen dute... Eta AEBetan egindako neurketetan argi geratu denez, arraza zuriko emakumeek beltzek baino aukera handiagoak dituzte bularreko minbizia garatzeko. Oraingoz behintzat ez dugu beste arrisku faktorerik ezagutzen.

Bularreko minbizia emakumearekin lotu izan da beti.

Hala da, bai. Badira bularreko minbizia jasaten duten gizonak baina proportzioan oso kasu gutxi egoten dira. Urtero hiruzpalau kasu besterik ez da izango Gipuzkoan.

Osakidetzak 50-69 urte bitarteko emakumeei zuzendutako kanpaina jarri du abian.

Orain dela 10 urte hasi zen Osakidetza adin tarte bateko emakumeei mamografiak egiten eta gauza positiboa da adin tarte hori zabaldu izana, lehen 64 urte arteko emakumeak bakarrik hartzen baitzituen. Bost urte zabaltzea lorpen handia da: emakume guztiek jasoko dute Osakidetzaren gutuna eta aukera izango dute Arrasateko Ospitalean mamografia egiteko. Gutuna jasotzen dutenen %80 inguru joaten da mamografia egitera. Azken urteotako datuen arabera, 1.000 azterketa bakoitzeko hiruzpalau minbizi kasu agertzen dira. Eta heriotza tasak ez du gora egin: minbiziaren erruz hildakoen %27-30 bularreko minbizi kasuak dira.

PREBENTZIOA

"Mamografiei esker minbizi kasuak garaiz atzemateko aukera dago"

DATUA

"Minbiziaren erruz hildakoen %27-30 bularreko minbizi kasuak dira"

ETORKIZUNA

"Elkarteko kideek azpimarratzen dutenez, bizimodu normala egiterik badago minbizia pasa eta gero"

Bestalde, emakume gazteen kasuan autoesplorazioa garrantzitsua da, hilerokoa etorri eta gero bular ingurua ukituz.

Zure ibilbidean kasu ugarirekin egingo zenuen topo. Zein da bularreko minbiziaren alderdirik zailena?

Minbizia hitzak beldur handia sortzen du gizartean eta emakume askok kolpe handia jasotzen dute hasieran. Esan beharrik ez dago bularra kendu behar izaten denean egoera traumatikoa dela. Gaur garantia osoz egiten dira inplanteak. Zalantzarik gabe, emakumeon izaera gogorrak laguntzen du halako egoerei aurre egiten.

Tratamenduari dagokionez, badago medikuntza tradizionaletik aparte alternatibarik?

Gaur egun kirurjia, erradioterapia, kimioterapia eta hormonoterapia dira bularreko minbizia tratatzeko. Esan beharrik ez dago minbizi bakoitza ezberdina dela eta zenbait kasutan lau tratamendu horietako bakar bat erabiltzen da, bestetan bi... Minbizi motaren araberakoa da hori.

Katxalin elkarteak 20. urteurrena beteko du aurten.

Bularreko minbizia jasan duten 500 emakume inguru dira elkartean eta haiek behin eta berriz azpimarratzen duten moduan, bizimodu normala egiterik badago minbizia pasa eta gero. Arreta zerbitzua eta laguntza psikologikoa eskaintzen du elkarteak. Interesatuek 943 24 56 08 telefonora dei dezakete eta gogoratu Edurne Iruin eguaztenero egoten dela Arrasateko Emakume Txokoan.

zabalik

Manu Arregi

Energia garbitzaileak

Laurogeita seian etxeko balkoian teleskopioa muntatu eta izarrak ikusten nituen. Halley kometa bertatik ikusi nuen, Oñati erdi erditik. Gaur egun alferrik da teleskopioa balkoian muntatzea. Ez dira gure herrietatik izarrak ikusten. Gogoratzen dudanetik ez da Oñatiko biztanleria hamar mila lagunetik gehiegi mugitu, baina argi eta leku gehiago behar dugu orain.

Ez ditut energia garbiak "garbi" ikusten. Ez datozelako energia "zikinak" ordezkatzera, kontsumo igoera asetzera baizik. Urte batzuk barru, gure mendi guztiak haize errotaz josita izango ditugu, baina orain baino gehiago kutsatuko dugu. Energia "garbitzaileen" alde nago ni. Haize errota ilara bat ipintzea nahi duzula? Ondo. Eta zer ordezkatzera dator hori? Utopikoa? Agian bai, baina ez badugu horrelako zerbait egiten eta energia kontsumoa kontrolatzen, Lurrak esango digu: "eh, txo! Honaino al zan".

"Ez ditut energia garbiak 'garbi' ikusten. Ez datozelako 'zikinak' ordezkatzera"

"Lurra da gizakiaren altxorrik handiena. Zaindu ezean izorratuko egingo da"

Azken aldi honetan, hamabostean behin edo, klima aldaketaren inguruko aurreikuspen katastrofiko bat kaleratzen da. Bale, harrapatu dugu. Ez gara hain motzak. Zergatik ez hasi zerbait egiten? Energia aurrezten hasi behar gara. Erakundeek gure gain jartzen dute errespontsabilitate guztia, ura falta denean bezala. Batek kontsumo baxuko bonbillak banatu ditu, etxeetan erabili ditzagun. Eta zergatik ez ipini kaleetan? Herri gutxi batzuk kaleak arrazionalki argitzen hasi dira eta faktura %45ean jaitsi da, hasierako inbertsioa azkar errekuperatuz. Eta, opari bezala, izartxoak agertu dira berriz zeruan!

Oporretan nire semeak moruek utzitako altxorrak bilatzen ibili dira Zamorako herri txiki bateko tontortxo batean, pala eta guzti. "Ez zulatu gehiago, Hasier! Utzi pala Unax! Eta altxa burua! Begi-bistan duzue altxorra!".

Lurra da gizakiaren altxorrik handiena. Gure etxea da eta zaindu ezean, izorratu egingo da. Zain dezagun guztion artean, bale?

herritarrak galdezka

ZENBAT DENBORA DAGO ALEGAZIOEI ERANTZUNA EMATEKO?

Irakurle batek honako galdera luzatu digu e-postaz: Proiektu bati alegazioak egiten zaizkionean zenbat denborara jasotzen da erantzuna? Erakundeak behartuta daude erantzuna ematera?

Kontuan hartu behar da proiektua nork egin duen. Udalarena baldin bada, hark emango du erantzuna. Beste erakunderen batena izanez gero, Foru Aldundiarena, Eusko Jaurlaritzarena...hara bideratzeko ardura du Udalak eta handik jasoko dute erantzuna.

Ohikoena da proiektuak berak zehaztea zein den alegazioak egiteko epea eta baita alegazioei erantzuna ematekoa ere. Erantzunok emateko epea alda daiteke proiektuaren arabera, baina normalena izaten da hilabetekoa izatea. Dagokion epean erantzunik jaso ezean gomendagarriena da alegazioa aurkeztu deneko erakundera jotzea erantzunik zergatik jaso ez den galdetzeko. Telefonoz zein idatziz egin daiteke eskaera hori. Izan ere, erakundeak behartuta daude alegazioak erantzutera.

'KANTU ETA JOLASAK' IKUS-ENTZUNEZKOAREN HARIRA

Mankomunitateak argitaratutako *Kantu eta Jolasak* ikus-entzunezkoa non eskura daitekeen galdetu digu irakurle batek.

Kantu eta jolasak ikus-entzunezkoa 4 eta 8 urte bitarteko haurrendako prestatuta dago. Euskara hutsean, 21 jolas eta abesti batzen ditu. Hizkuntzaren inguruan gurasoei zuzendutako aholku batzuk ere jasotzen ditu bilduma horrek.

Arduradunek esandakoaren arabera, oraindik ez dago salgai lan hori, Debagoieneko Mankomunitateak hala erabakita. Hala eta guztiz ere, badira adin tarte horretan dauden umeei bilduma banatzen dieten udalak. Bergarakoak, esaterako, 4 urteko umeei banatzen die urtero *Kantu eta jolasak* ikus-entzunezkoa Euskara Batzordeak hala erabaki duelako.

Halako beste lan batzuk ere eman ditu argitara Debagoieneko Mankomunitateak: *Gazteak eta administrazioa* –administrazioa gazteei hurbiltzea eta hurbiltze hori euskaraz egitea da unitate didaktiko horren helburua–; *Idatziak I* eta *Idatziak II* –zorion agurrak, doluminak, eskolako oharrak, erreklamazioak... azken batean idatziak euskaraz egiteko helburua du bi liburuz osatutako bilduma horrek– eta *Zorionak: ama izango zara* liburu eta DVDa, haurdun daudenendako.

Galdera egiteko:
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Alex Ugalde

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

blog

Euskadi sasitropikala

Luis Aranberri 'Amatiño'
www.eibar.org/blogak/amatino

Jaurlaritzak, Gipuzkoako Diputazioak eta Deba arroko hainbat udalek *Euskadi Tropikal?* izeneko programa jarri dute martxan, gazteek industria arloan lan egin dezaten animatzeko.

Behin eta berriro aipatu izaten dugu Euskadi gizarte industriala dela, gure maila teknologiko handiari esker sekulakoak garela eta gure produktuak kristonak nazioarteko merkatuetan. Baina ez dugu aitortu nahi izaten, euskal industria 4.000 teknikoren beharretan dagoela bere premiei erantzuteko. Eta hau gertatzen da, jendea lanposturik ezaz kexatzen den une berean.

Tristea ez balitz barregarri samarra izango litzateke, baina mundu guztiak funtzionario, abogadu, kazetari, diseinugile edo artista izan nahi omen duen gizarte honetan gure ekonomiaren oinarri diren enpresa industrialek ez dute behar besteko teknikorik topatzen.

Beraz, panorama larria da benetan. Batetik, bagenekien gurean gero eta gazte gutxiagok nahi duela enpresari izan. Orain, berriz, jakin ere badakigu gazte jendeak ez duela gure betiko lan-merkatuak eskaintzen dituen lanpostuak gura.

Beste modu batez esanda, gazteek ez dute lanposturik sortu nahi, beste norbaitek eurentzako lanpostuak sortzea baizik. Eta, sortzekotan gainera, ez gero lanpostu industrialak, euren gustukoak baino.

Orain dela berrogeita bost urte inguru, 1960ko hamarkadaren desarrollismoarekin batera, gure aita zenak sarri asko esaten zigun: “Oingo

plazara

Intxortako Atea inauguratu zuten atzo Elgetan. Gerra Zibilean Elgetako frontean izandako gertaerak gogora ekartzeko eta ahanzturan ez geratzeko helburuarekin jarri dute eskultura hori. Beste hainbat ekitaldi izango dira datozen egunotan ideia horren bueltan. Juan Ramon Garaik begi onez hartu ditu "frankismoaren basakeriaren biktimak errekonozitzeko eta justizia egiteko balio badute".

Juan Ramon Garai *

Justizia berreskuratu

Aurreko otsailetik eta datorren maiatzaren 3ra arte hainbat ekitaldi egin dituzte Elgetan eta Eibarren, herri horietako udalek, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak deituta. Hasteko *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta* liburua aurkezpenean egon ziren, gero Elgetako frontean gerrari buruzko erakusketaren aurkezpena, apirilaren 14an hasi eta maiatzaren 3an bukatuko dena. Intxortako Atea monumentua inauguratu zuen atzoko egunean Lehendakariak. Llun Quiñonerok Elgetan hil honen 24an emango duen hitzaldia, eta azkenik Elgetako Udalak apirilaren 29an egingo dien omenaldia gudariei eta milizianoei. Ekitaldi horiek guztiak egingo dituzte Intxorta mendietako guduetako 70. urteurrena betetzen delako; leku horretan sekulako defentsa egin zuten errepublikaren legezkotasunaren defendatzaileek matxino frankisten aurka, eta horren ondorioz, errepresalia moduan Elgetako zenbait pertsona hil eta bortxatu zituzten.

Frankismoan eta neurri batean Francorik gabeko hurrengo 30 urteetan, historiatik ezabatu zituzten pertsonen memoria berreskuratzeko bidean sakondu duten taldeetakoak garenez, sarri askotan egin dugu topo frankismoaren errepresioa sufritu zuten pertsona haien isiltasuna eta ahanztura berreskuratzeko parte hartu nahi izan ez duten ardura politikoko karguak bete dituzten pertsonekin, eta esan genezake Gerra Zibilaren memoria historikoa kudeatu duten botere publikoek bidegabekeriaz tratatu dituztela frankismoa zuzenean sufritu zuten herritarrak.

MIKEL ARROIABE

Horregatik, eta urte gehiegi pasatu badira ere, haietako asko ez daude gurekin eta ezin izango dute parte hartu errekonozimendu instituzional hauetan, ongi etorri ekitaldi horiei guztiei, betiere hasi berri den hauteskunde kanpainaren barruan beste ekitaldi bat gehiago ez badira, edo prentsako titular nagusietarako ez bada, frankismoaren basakeriaren biktimak errekonozitu eta justizia egiteko balio badute.

Oraindik ere hor jarraitzen dute indarrean milaka herritar jazarri, zigortu eta fusilatzeko epaimahai militar frankistek erabili zituzten adierazpen judizial eta penalak. Matxinada militarra leporatu zieten errepublika legezkotasuna defenditu zutenei. Iruzur epaiketak, non-eta defentsariak ziren bando frankistaren militarrak. Beste asko epaitu ere ez zituzten egin eta sinestarazi zieten aske utzi izana erail baino lehenago.

"Memoria historikoa kudeatu duten botere publikoek bidegabekeriaz tratatu dituzte frankismoa zuzenean bizi izandakoak"

"Neurri ordaingarriak abian jartzea urgentea eta beharrezkoa dela uste dugu"

Fusilatu zituzten pertsona horiek ez datoz jasota horrela erregistro zibiletan.

Gure ustez urgentea eta beharrezkoa da abian jartzea neurri ordaingarriak, bai eta legeak sortzea ere, pertsona horiekin justizia egiteko, eta hori erakundeek egin behar dute, borondate politikoa izanez gero.

Beste ekimen bat da jakitera ematea benetan zer gertatu zen. Halako gertakaririk berriro ez gertatzeko, jende askok sufritu baitzuen, pertsona horien ondorengoek jakin beharra dute zer gertatu zen, irakaskuntzaren bidez eta dauden baliabide guztiak abian jarriz (liburuak, ikusentzunezkoak, interpretazio zentroak eta abar).

Deba arroan, Debabarrenean eta Debagoienean, baditugu dagoeneko zenbait lan eginda, Gerra Zibilaren Interpretazio Zentro bat egiteko lehen pausuak direnak.

Baliabide ezin hobea izango litzateke urte haietan Euskal Herriko pertsonen eskubide zibilen, politikoen eta sozialen alde egindako borrokaren berri jakiteko. Intxorta 1937 kultur elkartean lanean dihardugu ildo horretan, eta nahi genuke erakunde publiko guztiak horretan inplikatzea.

*Juan Ramon Garai, Intxorta 1937 kultur elkarteko kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Fisikoan aldaketarik egingo zenuke?

BAI	%66,6
EZ	%33,3

> SUDURRA ETA BEGIAK
Sudurra aldatuko neuke. Txikittu egingo neuke. Eta begi azpiko poltsak be kenduko nittuzke. Ez dut uste zirujia estetikoa txarra denik, beti ere buruarekin egiten bada.
Ainara

> EZER EZ
Nik ez nuke ezer aldatuko. Ez dut ezer zirujia egiten dutenen kontra; norberak ikusiko du zer egin. Hori bai, telebistan ematen hasi diren saio berri hori, *Cambio radical*, pasada bat iruditzen zait. Halakoak debekatu egin beharko lituzkete, edertasun fisikoa beste ezeren aurretik jartzen dute-eta.
Miren

> NIK ALDATUKO NUKE
Titiak handituko nituzke gustura, eta baita mokor aldea txikitu ere. Zientziaren eta medikuntzaren aurrerapenak aprobetxatu egin behar direla iruditzen zait, eta ez dut uste horregatik buruarin bat naizenik.
Miren

DATORREN ASTEKOA: Postituzioa legeztatzea zer deritzozu?

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

gaztiok lehenago ikasten dozue gastatzen, irabazten baino".

Zer ez ote lukeen orain esango, gaur egungo Euskadi sasitropikal honetan bizi balitz...

Idatzi nahi ez nuena

Pello Zabala
www.berria.info/blogak/pellozabala

Badira bost hilabete Kordobako erlezain bati entzun niola, nola 2005ean 400dik gora erle galdu zituen: erlauntzi beteak erabat hustu. Txokatu ninduena, ez gaitzak, baizik 'porrai' joan zitzaizkiola, erlauntzia jangaiez oparo bere hartan utzita. Duela hilabete, AEBetako Kongresoak, harriduraz eta zalantzaz, erabakirik ezin asmatuz eztabaidatu zuen kontua: milioika erlauntzitatik, lautik bat, beste paraje batzutan lautik bi, erleen paraderorik gabe hustuak aurkitu zituztela. Eta beldur zirela polinizazioak hutsune handixkoa ez ote zuen izango eta, fruitu emariak ez ote zuen askotxo nozituko...

Irratian atzo kontua aideratu zutenez, eta "aldaketa klimatikoaz ez al ginen lartxo hitzegiten ari" errieta puntu batez galdetu zidanak erresumin puska baten azkuraz frenatuta, isilik egotea zela errazen erabakita banengoen ere, Einstein jakintsuak esan zuenarekin akordatu nintzen: "erleak desagertuko balira, gure gizateri honek ezingo luke lau urte iraun", polinizazio ezaz fruituondoak lore hutsetan geldituko liratekeelako. Halako amesgaizto baten aurrean, hainbat arazo faltso hustutzen dira erlauntziak bezalaxe: bost axola, adibidez, gezurterokeria politiko guztiak, hauteskunde komeria denak... etxea zaintzen asmatu ezean, gureak egin du!

koplak

Enaitz Alustiza

18/98

Aurrez askotan aipatutako
gai bat nahiko nuke landu.
Nahiz epaiketa bukatu duten
oraindik ez da berandu.

Bat zortzi barra be(der)atzi zortzi
nahiz lau zifra sinple diren.
Espainian zer asmo daukaten
erakusten du ongien.

Zirko-farsa bat asmatu eta
etorriak ate joka.
Ta azkenean amaitu dute
Euren kakatan itota.

Juizioaren azken saiotik
hilabete pasatuta.
Guztiok gaude epaiaren zai
asko esan nahiko du-ta.

Anai arreba, seme alaba
ta lagunak dira denak.
Baina ez a(ha)ztu bizitzak dira
hemen jokoan daudenak.

Aprobetxatuz, "kuku" bat egin
nahi diot bikote bati.
Aupa, animo Nerea eta
besarkada handi bat, Txapi.

Hainbat galdera dagokionari

Jose Antonio Etxague
Arrasate

Hainbat galdera egiten dizkiot neure buruari, eta dagokionari ere egin nahi dizkiot. Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren biktimak omenduko ditu apirilaren 22an Bilboko Euskalduna jauregian. Ez dakit onartuko dudan joateko gonbita, behinik behin ez badaukat garbi zeintzuk izango diren omenduak eta norekin elkartu behar dudan ekitaldian. Berez, biktima guztiak dira horixe: biktimak; baina, zoritxarrez, biktimak eta biktimak daude. Ez da gauza bera, garbi egin dezagun berba, Ernest Lluch omentzea edo Meliton Manzanas omentzea. Eta ez da gauza bera, nire ustez, lanean ziharduen eta legezko misio bat betetzen ziharduen eta heriotza injustua aurkitu zuen funtzionario arrunt bat omentzea, edo torturatzaile, hiltzaile edo GALeko sortzaile izan zirenak omentzea. Era berean, niretako ez da gauza bera, omenaldi horretan, esaterako, Buesaren alargunaren ondoan egotea edo Alcaraz jaunaren eta haren sokakoen ondoan egotea. Seguruen ekitaldian egongo ez direnek ere sortzen didate zalantza. Biktima guztiak seriotasunez gonbidatu eta omenduko dira, edo alde batekoak bakarrik? *Argala*, Lasa, Zabala, *Pertur*, Zabaltza eta Estatuaren terrorismoak eta haren sikarioak hildako eta torturatutako horien familiartekoak egoten saiatuko dira? Edo besteak bakarrik? Zalantza horiek argitzen ez badizkidate, ez dago ziur omenaldira joango naizen edo ez.

Kontua da Eusko Jaurlaritzak nahi duela txosten bat argitaratu, terrorismoak eta haren aurkako borrokak Euskal Herrian eragin duen giza eskubideen urraketen gainekoa. Eta badirudi ETAren eta haren ekimenak dakarren giza eskubideen urraketaren ohiko gaitzespenaren ostean beste kontu batzuk ere aipatuko dituztela, hala nola giza eskubideen urraketa diren lege murriztaileak; epaiketa sumarisimo inkisitorial eta masiboak; alderdi politiko eta elkarguneen legez kanporatzea; egunkarien itxiera; zigorrezko kartzela politikak eta abar. Oso ondo, baina espero dut torturaren kapituluak —Amnesty International erakundeak eta baita ONUko Giza Eskubideen batzordeak salatuak— merezi duen garrantzia izatea, Gasteizko gobernuak bere txostenetan ohituak gaituen epelkerietan eta itzulinguru semantikoetan ibili barik. Jakina, ez dut pentsatu ere egin nahi giza eskubideen urraketa injustu onartezin horien artean ez aipatzea pintada bat egin edo edukiontzi bat erre, atxilotua izan (Euskadiko polizia autonomikoak), terrorismo salaketa jaso, kriminal gisa Madrilera eroan eta ez dakit zenbat urteko zigorra jasotzen duen Zornotza edo Laudioko gaztea; ekintza berengatik Sevilla edo Valentziako okupa batek isun sinboliko bat jasotzen duenean. Eta, noski, eskandaluzkoa izango litzateke aipamenik ez egitea hauteskundeetara ezin direlako aurkeztu edo torturaren aurka protesta egin nahi dutelako, kalera irten nahi duten bakoitzeko, Madrileko epaile baten edo Herrizaingo Sailaren erabakiaren zain egon behar izatea; edo bestela txakurren moduan egurtuak izatera arriskatzeak. Horrek guztiak dakarren giza eskubideen urraketa ez aipatzea larria izango litzateke; bai, horixe.

Interesgarria izango litzateke Eusko Jaurlaritzak bere txostenean jasotzea, edozein giza eskubideren urraketa justifikatzeak, behar bezalako men egitearen mesedetan ukatzea jasotzen duen doktrina, edozein dela arrazoia eta aitzakiarik barik, beren arduradunei kontra egitera behartzen dutena.

Horretaz ari garela, Eusko Legebiltzarrak aukera ezin hobea galdu du, nire ustez, horixe gogorarazteko, polizia autonomikoaren jardunbideari merezi ez duen txeke zuri zuhurgabea eman beharrean; gainera, jokaera aldrebesa erakutsi duenean, "probokatzeagatik" betikoak zapaldu eta egurtu dituenean, euren eskubideen alde protestatzen zebiltzanean. Uste dut Jaurlaritza animatzen dabilela hiritarrak eta bereziki EAJren zaleak lehendakaria epaileen aurrera Euskal Herriko Auzitegi Gorenera doanean, hari elkartasuna adieraztera gerturatzeko. Jakina, nire elkartasuna adierazi nahi diot Ibarretxeri, uste baitut jazarpen *ad hominen* lotsagarria pairatzen diharduela, Espainian agintzen duen haitzulo ultraeskuindarraren aldetik. Baina zera galdetzen diot neure buruari: Otegi bezalako beste *ad hominen* erasotu batek lehendakariarena bezalako laguntza izatea lagako luke auzitegietara doanean? Zer egingo luke Herrizaingo sailburuak milaka zalek laguntza eskainiko baliote ezker abertzaleko buruzagiari? Bueno, onartzen dut galdera erretorikoa dela. Argi baitakit zer egingo lukeen. Eta baita, seguruen, Legebiltzarrak babesa eskainiko ziola gisa horretako probokatzaileak egurtzeko "neurri proportzionatua"-ri. Uste dut hasi beharko genukeela onartzen gure zorigaitz guztien errua ez dagoela Madrilen. Ez da egia ez gaituztela ulertzen; iruditzen zait neurria oso ondo hartua digutela eta badakitela lasai estutu ahal gaituztela.

Hitzen pozoina

Ana Carpintero (Mariaren Lagundia Ikastolako ikasle eta irakasleen izenean) > Bergara

Desagertutako maletak, atzeratutako hegaldiak, ezjakintasuna, ur botilak eta galletak dira, ahaztezina izan den bidaia batetik komunikabideak idatzi eta bide batez, jendearen belarrietara heldu den bakarra, baina honelako gauzak berehala ahazten dira bisitatutako herrialdeko jendearen gertutasuna, irribarreak, begiradak gogora ekartzean.

Bai, Aste Santu honetako oporrak Saharan pasatu dituzten 250 euskaldun horretako 17 gara. Eta azken egunetako berriak ikusi, entzun eta irakurtzean izugarrizko inpotentzia sentitu dugu, ez baikara identifikatuak sentitu.

Egia da, 11 ordu inguru egon ginela Tindoufeko aireportuan, eta ez zela batere erosoa izan baina zenbatek izan dute noizbait atzerapena hegaldiren batean?

Bestalde, argitu beharrekoa dela uste dugu Aljeria eta Frente Polisarioa une oro zaku berdinean sartu izana. Polisarioak ezer gutxi egin zezakeen egoera horri irtenbide bat emateko ez baitzen hegaldi bateko deserosotasunengatik 30 urtetan beraien lurrak eskaini dizkion herrialde bati exijentziak egiten hasiko ez? Beraz, beraien esku zegoena egin zuten (ura eta galletak kanpamenduetatik ekarri) eta gurekin batera egoera ahalik eta hoberen bizitzen saiatu.

Argi dago honelako gauzak saldu egiten dutela eta interesa sortzen dutela, baina komunikabide batek ere, ez du galdetu desplazamenduaz gain ezer, badirudi inori ez zaiola interesatzen bertako egonaldia nolakoa izan den.

Bertan bizitakoa azaltzeko GOIENKARIAko ale guztia beharko genuke baina azpimarragarriena; jendea, hauen duintasuna, indarra, gertutasuna, eskuzabaltasuna, printzipioak, nortasuna... aipatuko genituzke. Beraien egoera mundu honetan beraiek bakarrik jasaten ari dira eta oso gordina da, baina hala eta guztiz ere bertan tinko eta irribarrearekin aurrera jarraitzen dute, daukaten gutxiari etekina ateratzen eta koherenteki bizitzen.

Asko daukagu ikasteko hau izan da gure ondoriorik garrantzitsuena. Eta bidai honetan parte hartu dugun Mariaren Lagundia Ikastolako 17 pertsonak argi daukagu 11, 20, 5 edo 24 orduko atzerapenak egonda ere, pena merezi duela eta oraintxe bertan bueltatuko ginatekeela.

Gonbidapena luzatzen diogu herrialde honekiko interesa duen edozein pertsonari, joan, ikusi, usaindu, konpartitu..., ahaztezina izango baita.

Bide batez eskerrak eman Mohamed Salem eta bere familiari, Frente Polisarioari eta Bubisher taldeari, beraien laguntzari esker aurrera atera delako bidai hau. Shukram (eskerrik asko).

Non dago Arrasateko Industria Museoa?

Aitor Iturriaga
Arrasateko museoaren lagunen taldearen izenean
Arrasate

Arrasaten Industria Museoa sortzeko Udalaren lehenengo urratsak orain 13 urte eman ziren.

- 1994 urtean, Isabel Aramendiak azterlan bat egin zuen: Arrasateko Industria Proiektua gauzatzeko oinarriak sendotzeko.

- 1994ko abendua eta 1995ko urtarrila artean: behin behineko erakusketa bat antolatu zen Monterron kultur etxean: Made in Arrasate gure museoa sortzeko bidean, izenburupean.

Oso arrakastatsua izan zen eta oso baliogarria, proiektuaren berri emanez, benetako kolaboratzaileak lortu ziren.

- Urte batzuetako parentesiarekin, 1999an Zerrajeraren eraispenarekin batera, beste ekintza batzuk egin ziren: Fundizioaren egitura (1926koa) desmontatu zen, eta gorde egin zen. Baina urte batzuk geroago Alkateak (Lakuntzak) txatarrara bota zuen. Zerrajerako makinak, beste tresna eta dokumentoak errekuperatu ziren.

- 2000an Museoaren Lagunen Taldea sortzen da.

- Urte berean, Bixente Barandiaran Arrasateko azkenengo errementariakin akordio batera heldu ginen, bere tailerra Udalaren, herriaren, gure esku uzteko.

- 2001ean Industria Zentro Museoa sortzeko Bideragarritasunaren plana K6-Xabidek egin zuen.

- 2002an, ekainaren 21an, Erakusketa iraunkorra zabaldu zen, Zentro museoaren oinarria dena. Museo Txikia.

Orduko balorazioa: "Oso harrera ona izan du, dagoeneko 3.000 bisitari izan ditu. Iradokizuneen liburuan hainbeste lagunen iritziekin oso iritzi positiboak agertzen dira. Kritikarik nagusiena igogailurik ez egotea".

Halere, Udal korporazio berriak Industria erakusketa ixtea erabaki zuen, inorekin hitz egin gabe. Azaldu zuenaren arabera, Musika Etxea egin behar zuten erakusketa zegoen tokian eta Industria Museoa beheko solairura eraman behar zen.

- 2005ean gure taldeko bi kidek bilera bat izan zuten alkatearekin. Honek adierazi zien 2005eko bukaeran hasiko zirela museoko obrak.

Lau urte pasa dira korporazio hau udaletxean sartu zenetik. Industria museoa amesten dugunentzat lau urte galduak.

Gure ustez, herri honek badu zer erakutsi arlo horretan: Lezetxiki, Erdi Aroko burdinolak, Industrializazioa, Kooperatibismoa... Ez dezagun denpora gehiago galdu.

Zorionak Bergarako bandari

Natalia Sevillano
(Lasai Toki elkarte gastronomikoko presidentea)
Bergara

Bergarako Lasai Toki elkarteko bazkideok zorionak eman nahi dizkiogu Bergarako Udal Musika Bandari, aurten 175 urte bete dituelako. Eta zorionak emateaz gain, eskerrak ere eman nahi dizkiogu elkartearekin izan duen harreman onagatik eta herritarroi eskaini digun lanagatik. Zorionak, benebenetan.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Gainerakoek ikusten
ez dutena ikustea,
eta pentsatu aurretik
ere egin ahal izatea.
Pentsatzea, plangintza egitea,
eraikitzea, desiratzea edo amestea.
Dei egiozu nahi duzun moduan.
Honek du axola: zuk ikusten
baduzu, **kutxa**k
ere bai, lasai.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

gluglu

Arrasateko Amaia Antzokian

Apirilaren 22an (Domeka)

19:30ean

EGILEA ETA ZUZENDARIA
TXEPE GOENAGA

ARGIZTAPEN DISEINATZAILEA
JUANJO LLORENS

AMA, QUIERO SER

LEHENDAKARI

LOLI ASTOREKA ANE GABARAIN PATXI PEREZ

MARIBEL SALAS GALDER PEREZ MARI CRUZ MELGOSA

Ordezkoa: Iñigo Salinero "Txaflas"

Barceló Hotel Nervión

TEATRO BARAKALDO BARAKALDO ANTZOKIA

eitb

agua ura ALZOLA

EL CORREO

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

elNervión

ELGOIBARKO UDALA KULTURA SAILA

http://blog.eitb24.com/amaquieroserlehendakari/

Kontratazioa: 94 412 48 01 www.glugluproducciones.com info@glugluproducciones.com

Herriak

Arrasate > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
Antzuola > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39

> ESKORIATZA
Kulturen eta belaunaldien arteko elkartrukea bultzatuko dute **> 34**

> ANTZUOLA
Ekainean bukatuko dute Sagasti auzoko eraikina **> 36**

> ELGETA
Herriko erretiratuak pozik Ozkarbin jarraitu ahal dutelako **> 37**

> ARAMAIO
100 bat herritarrek dantza saioa egingo du domekan **> 38**

LEINTZ IBARRA > BERBETAN EGITASMOAREN AURKEZPENA

Berbetan: Leintz ibarreko ahozko ondarea jaso eta argitaratu egin dute

AHOTSAK
94 hizlarik parte hartu du Ahotsak izeneko ahozko ondarea egiteko

INTERNET-EN
Orain artekoaren emaitza Interneten kontsulta daiteke

ELKARLANA
Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako udalek elkarlanean jardun dute

ORDEZKARIAK Eskoriatzako alkate Bengoa; Aretxabaletakoa, Oliden eta Gatzagako kultur zinegotzi Sasiain. U.M.

UBANE MADERA > ESKORIATZA

Berbetan egitasmoa aurkeztu dute asteon Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Badihardugu Euskara Elkartearen eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako udalen arteko elkarlanaren emaitza da.

INTERNETEN SARTUTA

2004an sinatu zuten lauren artean hitzarmena, Leintzeko euskalkia jasotzeko asmoarekin. Dena den, ekimena 2002an hasi zen, Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoak azaldu zuen moduan: "Ibarreko euskalkia jasotzeko asmoarekin beka bat sortu zen. Horrekin hasi zen lana: ahozko ondarea batzea". Eta 2004an, hasierako asmo hori indartzeko sinatu zuten hitzarmena.

Ordutik hona makina bat lan egin dute: elkarrizketen grabazioak etiketatu eta katalogatu; elkarrizketa berriak egin bideoz (40 ordu inguru); elkarrizketak laburtu eta kodifikatu; pasarte interesgarrienen transkripzioa egin (300 inguru) eta 400 soinu-bideo artxibo Interneten sartzeko egokitu dituzte (bizpahiru minutukoak).

Modu horretan, orain arte jasotako informazio ugari dagoeneko denon eskura dago, Interneten ipini dute-eta. Helbideak bi dira: *eskoriatza.badihardugu.com* eta *aretxabaleta.badihardugu.com*. Hor daude jasota bi udalerri horietako hiztunen elkarrizketak. Gatzagari dagokionez, berriz, Udalak ez du webgunerik eta horregatik ez dago sarean sartuta Gatzagaren gaineko informazioa.

ARTXIBO OSO ABERATSA

Bestalde, hasierako asmoa euskara eta euskalkia batzea izan bazen ere, hori baino dezente emaitza aberatsagoa lortu dute: "Ibarreko usadio zaharrak, jaiak, ofizioak... orokorrean, kultura jaso da, izugarrizko ondarea", nabarmendu zuen Bengoak. "Hemendik 10-15 urtera informazio hori duten pertsona asko joanda izango dira eta informazio hori guztiz galduta izango genuke", gaineratu zuen. Arritxu Olidenek, Aretxabaletako alkateak ere iritzi bertsua du: "Azken batean, helburua ez zen euskalkia aztertzea, zen dugun aberastasun hori jasota geratzea. Gero, hizkuntzaren eta jakintzaren ikuspegitik daukagu guztia zabalik transmisiorako: egin daiteke lan eskolekin... modu askotara ".

DATUA

2.000
PASARTE INGURU

Ahotsak ahozko artxiboa osartzeko, honako euskarriak erabili dituzte: 75 zinta; 94 hizlari; 2.000 pasarte inguru, horietatik 1040 pasarte antolatu dituzte erakusteko eta 413 soinu-bideo artxibo.

LIBURU, ALDIZKARI EDO BESTE

Izan ere, etorkizunera begira lanari jarraipena emango diotela argi dute. "Honek aukera piloa ematen ditu. Urgenteena zen datuak jasotzea, badaudelako 95-100 urteko pertsonak; beraz, urgenteena da halakoengandik lehenbailehen datuak jasotzea. Lanaren lehenengo fasean web orrietan ipini ditugu. Eta aurrerantzean ikusi beharko dugu zer egin, hainbat formatu ditugu aukeran: liburu bat idatzi, aldizkari bat... hemendik aurrera hasiko gara aztertzen zela landu", argitu zuen Eskoriatzako alkateak.

Aintzane Agirrebeña > Badihardugu Euskara Elkartea

"Ohiturak, baserriko lanak, tresnen izenak... jaso ditugu"

U.M.

U.M. > ESKORIATZA

Badihardugu Euskara Elkartearen izenean, Aintzane Agirrebeñak azaldu ditu egitasmoaren gaineko xehetasun gehiago:

Leintz ibarrean bakarrik jardungo duzue lanean?

Egindakoaren garrantzia ikusita, beste herri batzuek ere azaldu dute interesa. Beraz, Badihardugu dabil eskualde mailan ondarea jasotzen. Esan daiteke lehen urratsa edo fruitua izan dela Leintz aldekoa. Proiektuaren izena da Deba Ibarreko Ahotsak eta espero dugu beste herriren batek ere parte hartzea, Bergara, Antzuola edo Mallabik, esaterako.

Zein irizpide erabili duzue hizlariak aukeratzeko?

Herri bakoitzean egiten dena zera da: lantalde bat sortu euskara batzordearen inguruan, herriko jendearekin. Normalean horien artean jakinekoa da zein izan daitekeen hizlari egokiena. Hori bai, saiatu gara oreka gordetzen andrezkoen eta gizonezkoen artean, baserritarren eta kaletarren artean eta auzo guztietako ordezkarien artean; guztiak ere, ahal dela, pertsona nagusiak.

Orain arteko emaitza uste baino aberatsagoa izan da, ezta?

Bai. Hor dago altxor handia, batetik ahozko ondarearen aldetik eta bestetik ohitura eta bizimoduaren aldetik. Erakusten du, esaterako, bizimodua zela aldatu den horren denbora gutxian. Eta ez bakarrik hori; ohitura asko, baserriko lanak, baserriko tresnen izenak... jaso ditugu.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 21	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Domeka, 22	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Astelehena, 23	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Martitzena, 24	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Eguaztena, 25	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Eguena, 26	Amezua	Santamaina 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 27	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65

BERGARA

Zapatua, 21	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 22	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Astelehena, 23	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Martitzena, 24	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 25	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 26	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 27	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74

OÑATI

Zapatua, 21	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 22	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 23	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 24	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 25	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 26	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 27	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Zapatua, 21	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 22	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 23	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Martitzena, 24	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguaztena, 25	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguena, 26	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Egubakoitza, 27	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....943 46 11 11
DYA (Antzuola).....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....943 76 55 76
Suhiltzaileak.....943 78 28 00
Ertzaintza.....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala.....943 03 53 00
- Antzuola.....943 76 62 23
- Aramaio.....945 44 53 40
- Aretxabaleta.....943 71 19 59
- Bergara.....943 03 54 00
- Elgeta.....943 03 54 00
- Eskoriatza.....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola.....943 76 62 46
- Arrasate.....943 79 14 39
- Aretxabaleta.....943 71 18 63
- Bergara.....943 77 91 06
- Eskoriatza.....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate.....943 79 12 22
- Aramaio.....945 44 50 33
- Aretxabaleta.....943 71 12 64
- Bergara.....943 79 12 22
- Eskoriatza.....943 71 40 59
- Oñati.....943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate.....943 77 11 43
- Bergara.....943 76 44 42
- Oñati.....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio.....945 44 53 35
- Arrasate.....943 77 16 77
- Aretxabaleta.....943 71 26 28
- Bergara.....943 76 56 41
- Elgeta.....943 76 82 84
- Eskoriatza.....943 71 53 28
- Oñati.....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola.....943 76 60 65
- Aramaio.....945 44 53 74
- Arrasate.....943 77 01 05
- Aretxabaleta.....943 71 10 27
- Bergara.....943 77 91 58
- Eskoriatza.....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola.....943 76 62 46
- Aramaio.....945 44 50 16
- Arrasate.....943 79 09 00
- Aretxabaleta.....943 71 18 62
- Bergara.....943 77 91 00
- Elgeta.....943 76 80 22
- Eskoriatza.....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	**Aramaio**	**Arrasate**
	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN

Zapatua, 21

Egubakoitzeko joerari eutsi eta aurreko egunetan baino eguraldi eguzkitsuagoa egingo du. Gainera, tenperaturek gora egingo dute.

Domeka, 22

Bezperako primerako eguraldiak segitu egingo du. Haizearen hego ukituaren eraginez, gainera, tenperatura beroak izango dira.

EUSKAL HERRIAN

Tenperaturek izango duten azkenaldiko igoerarik handiena asteburuan igarriko dugu. Haizeak hegotik joko du eta berotasuna ekarriko. Egunotan izan den trumoirako joerak, gainera, Galiziarako bidea hartuko du eta goialdea garbitu egingo du. Primerako eguraldia.



TENPERATURAK

MINIMOA Eguena, 12 — **7 ºC**

MAXIMOA Astelehena, 16 — **20 ºC**

ASTEKO EURIA (l/m²) — **47,5 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	20 ºC	9 ºC	- l/m²
Eguena, 12	19 ºC	7 ºC	37,1 l/m²
Egubakoitza, 13	13 ºC	11 ºC	8,9 l/m²
Zapatua, 14	15 ºC	10 ºC	0,2 l/m²
Domeka, 15	20 ºC	11 ºC	1,3 l/m²
Astelehena, 16	20 ºC	12 ºC	- l/m²
Martitzena, 17	16 ºC	14 ºC	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA APIRILEAN

Ilbehera	Ilberri	Ilgora	Ilbete
10	17	24	2

oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA

> Liburuen truke azoka antolatu du ludotekak

Algara ludotekak liburuak trukatzeko azoka antolatu du hilaren 21erako. 11:00etatik 13:30era izango da, ludoteka aurrean. Ume guztiendako da.

BERGARA

> Odol ateratzeak egingo dituzte hilaren 25ean

Odol emaileen elkarteak gogora ekarri du hurrengo ateratzeak hilaren 25ean, eguaztena, egingo dituztela. Ohi bezala, Seminarioko lokalean egingo dituzte ateratzeok, 18:00etan hasita.

BERGARA

> Ludotekan begirale izateko izenematea zabalik dago

Apirilaren 27ra arte egongo da zabalik ludotekan begirale izateko izenematea. Informazio gehiagorako edo izena emateko jo ludotekara –Agorrosin ekintza gunea–.

ARAMAIO

> Lagun Artea dantza taldearen oharra

Dantza taldearen 50. urtemuga ospatzeko ekitaldien barruan egingo duten dantza emanaldirako entsegu orokorra egingo dute bihar, zapatua, 10:30ean, pilotalekuan.

BERGARA

> Zuhatzara irteera Jardun elkartearekin

Maiatzaren 4tik 6ra egingo dute irteera hori, eta bazkideendako da. Prezioa 42 euro da. Izenematea apirilaren 24an bukatuko da. Informazio gehiago: 943 76 36 61.

ESKORIATZA

>1957an eta 1958ko urtarril eta otsailean jaiotakoen irteera

Udan, ekainaren 9an egingo dute irteera, Arratiara. Interesatuek honako telefonoetara dei dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

ANTZUOLA

> Herriko zikloturisten taldeak jantzi berria atera du

Antzuolako zikloturista taldeak jantzi berria atera du. Hori horrela, erosteko interesa duenak taldeko ordezkariekin harremanetan jarri besterik ez du: apirilean barrena, eguaztenetik egubakoitzera bitartean Olaran etxeko AKEko bulegoan izango dira, 19:00etatik 20:30era.

DEBAGOIENA

> Enpresak sortzeko *on-line* ikastaroa antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak

Helburua da nork bere enpresa ideia aztertu ahal izateko pertsona ekintzaileak trebatzea. 150 ordukoa izango da, eta doan. Apirilaren 23tik ekainaren 29ra izango dira eskolak. Informazio gehiago edo izena emateko deitu 943 79 30 90 zenbakira edo jo *www.debagoiena.com* helbidera.

BERGARA

> Jardunek gaztetxoendako olinpiadak antolatu ditu

Lautik seigarren mailara artekoentzat dira. Zapatuetan jokatuko dira, maiatzaren 12tik ekainaren 16ra, arratsaldez. Gutxienez sei eta gehienez zortzi laguneko taldeak osatu behar dira. Informazio gehiago *www.goiena.net/blogak/jardun* helbidean.

DEBAGOIENA

>Etxean konposta egiteko konpostagailuak banatuko dituzte

Azken 100 konpostagailuak banatzeko kanpaina astelehenean hasiko da eta maiatzaren 4ra arte iraungo du. Konpostagailua hartzeko interesa dutenek 943 79 33 99 zenbakira dei dezakete, 08:00etatik 14:00etara.

BERGARA

>1963an jaiotakoen kinto bazkaria

Maiatzaren 12an egingo dute, Torrekua erretegian, 15:00etan. Izenematea maiatzaren 10ean bukatuko da. Horretarako 10 euro aurreratu beharko dira Torrekua erretegian edo Ariznoa tabernan.

BERGARA

> Pol-Pol Mendizale taldearen eta Gorla Alpino taldearen irteera

Leongo mendietara (Villamanin) irteera antolatu dute apirilaren 28tik maiatzaren 1era bitartean. Txartelak 130 euro balio du eta Pol-Pol taldearen egoitzan eskura daitezke.

OÑATI

> AHTren kontrako manifestazioa bihar

Gazte Asanbladak deitu du. 18:00etan abiatuko da, bihar, zapatua, Portu kaleko plazatik.

BERGARA

> Postaz bozkatzeko bulegoa jarri du EAJk

Batzokian jarri dute bulegoa, hilaren 17ra arte. 11:30etik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Informazio gehiago 943 76 47 00 zenbakian.

ESKORIATZA

>1949an jaiotakoen kinto bazkaria

Maiatzaren 12an egingo dute, Tartufo tabernan. Autobus zerbitzua egongo da. Izena emateko deitu 943 76 35 51 zenbakira.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Irakurtzeko ohiturarik badaukazu? Gutxi irakurtzen dugu?

Maria Jose Souto
Langabetua
Eskoriatza

Lehen gehiago irakurtzen nuen, baina orain alabarekin denbora gutxiago daukat. Hala ere, oso gustuko dut irakurtzea. Nire ustetan, gaur egun jendeak lehen beste irakurtzen du, ez da gutxitu.

Julia Gartzia
Langilea
Eskoriatza

Ez daukat irakurtzeko zaletasun handirik. Egunkaria zertxobait irakurtzen dut, besterik ez. Nire ustez, gaur egun lehen baino gutxiago irakurtzen dugu. Gurago dugu Internet, telebista eta beste.

Olga Vitoria
Erretiratua
Eskoriatza

Oso gustuko dut irakurtzea: eleberriak, egunkariak, GOIENKARIA... denetatik. Umeek gero eta gutxiago irakurtzen dutela uste dut. Nirean neskatilek bai, baina mutikoek ezer gutxi.

Isidro Vicente
Erretiratua
Eskoriatza

Ez dut irakurtzeko zaletasunik, baina seme-alabek badute horren ohitura. Oso garrantzitsua da irakurtzea eta informazioa jasotzea, eta gaur egun uste dut gutxiago irakurtzen dela.

Alonso Idegi
Langilea
Eskoriatza

Denetatik irakurtzen dut, egunkariak, eleberriak, bestelakoak... baina ez dut inoiz telebista ikusten. Jendeak gero eta gutxiago irakurtzen du, eta laster alfabetoa ere ahaztuko dute.

txaloak eta txistuak

M.B.

Zabortegirik ez dute gura Gesalibarren

Gesalibar auzoko Parraia baserri ondoan dagoen zabortegiaz kexu da irakurle bat. Obretako materiala paraje eder hartan pilatuta dago, abandonatuta egongo balitz bezala. Guzti hori ahalik eta azkarren ken dezatela eskatu du irakurleak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

19

Arabako Bertsolari Txapelketa 19. aldiz egingo dute aurten. Lehena 1984. urtean izan zen. Etenaldi baten ostean, 1990ean ekin zioten berriro antolatzeari, Prudentzio Deuna izenarekin. 2002an hasierako izena berreskuratu zuen.

usteak uste

Iker Barandiaran

Nik gustuko dut irakurtzea

Astelehenean Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Datu zehatzak eskuan ez ditugun arren, badirudi gero eta gutxiago irakurtzen dela. Internetek, telebistak eta beste gailu batzuek gure aisialdian eta informatzeko beharren esparruetan gero eta leku gehiago hartzen dute. Halako irudi, flash, kolore eta animazioaren aurrean, liburuak zaharkituak gelditu direla uste dute batzuek.

Horren parera, asteko kale inkesta egiterakoan, eskoriatzar batek azaldu digu saiatzen dela telebistarik ez ikusten, eta denetatik irakurtzen duela. Hori bakarrik ez, eskoriatzar horrek ohartarazi digu gaur egun lagun asko alfabetoa ere ahazteko moduan daudela. Nik ez dut uste eskoriatzarra oker dagoenik. Irudiaren garaian bizi gara, eta guztia eginda jaso nahi dugu. Ez ditugu gauzak guk irudikatu gura. Liburu bat hartu eta kontakizunetan gu bakarrik murgiltzen saiatu beharrean, erosoagoa dirudi dena eginda jasotzea.

Horren harira, ezin da errealitatetik oso urrun egon telebistako saio umoretsuetan gaur egungo gaztetxoek berba egiteko modua zelan parodiatzen duten. Sakelako telefonoen bidez mezuak bidaltzeko erabiltzen duten modu berean, hitzak janez.

Irakurtzearen aldeko apustua egiteak merezi du, zure esku dago.

5 galdera...

Antonio Ortega

Repsol Zerbitzu Teknikoa
Beasain

1. Eusko Jaurlaritzak gas instalazioak aztertzeko kanpaina abian jarriko du. Zenbati eragingo dio neurriak ibarrean?

7.000 bat bazkide ditugu Debagoienean. Kopuru hori gas butano eta propano botilen erabiltzaileei dagokio. Zenbaki hori, hala ere, ez da oso erreala, erabiltzaile asko gas naturalera aldatzen den arren, kontratua ez dutelako bajan ematen.

2. Nola ikusten da Repsoleko Zerbitzu Teknikoan iragarpen hori?

Ez da neurri berri bat. Eusko Jaurlaritzak auditoriak egin eta artxiboak begiratu dizkigu beti. Ausaz aukeratutako bazkide kopuru zehatza bisitatzen du urtero. Gai horrekin utzikeria dagoelakoan nago. Jakin badakigu berrikuspenetaz paso egiten duten pertsonak daudela.

3. Isunak ipiniko dizkiete instalazioa era egokian ez dituztenei...

Hala da. Berrikuspenak egiten ez dituztenekin arazo bat dago, ez dakigulako nola dauden gas instalazio horiek. Egungo arautegiak dio berrikuspenak ezinbestekoak direla eta beraz, zenbait neurri har daitezke, hala nola, gas instalazioak zigilatu. Baina, botilak edonork eros ditzake. Horren aurrean, zerbait egin behar da.

4. Gauzak horrela, kanpaina eraginkorra izango delakoan zaude?

Orokorrean, segurtasuna hobetzeko balioko duela uste dut. Arazo larria eragin dezakeen eta kontrolatu barik dagoen instalazio batean arrisku handiagoa dago. Gaur egungo araudiarekin guzti hori ekidin daiteke.

5. Zenbat kostatzen du eta zenbatero egin behar da berrikuspena?

Lau urtean behin egin behar da. Bazkideak telefonoz deitzen saiatzen gara, baina azken urteetan eman den zenbaki aldaketak direla-eta, batzuetan ezinezkoa da jendea topatzea. Repsolek 60 euro kobratzen ditu berrikuspen bakoitzeko.

HIRIGINTZA > OBRAK, SAIOLANEN

'Erlojuaren eraikina' eraberritzeko proiektua idazteko deia egin du Udalak

Iragarkia Buletinean (GAO-n) argitaratu eta gero, 15 egun daude proiektuak aurkezteko

Udalaren asmoa da eraikina berritu eta erabilera berrietarako egokitzea

ENBLEMATIKOA 1939an eraiki zuen Union Cerrajerak *Erlojuaren eraikina*. GORKA ZUBIZARRETA

UBANE MADERA > ARRASATE

Oraingo astean onartu du gobernu batzarrak *Erlojuaren eraikina* (Saiolan) berritzeko proiektua idazteko baldintzen plegua. Horrek esan gura du, dei hori Gipuzkoako buletinean argitaratu ostean proiektuak aurkezten has daitezkeela interesdunak. 15 eguneko epea dute horretarako. 87.876,37 euroko aurrekontua zehaztu dute. Eskaintza guztien artean, bat aukeratuko du Udalak. Gero, obrak adjudikatu egin beharko ditu.

Erlojuaren eraikina goitik behera berritu gura du Udalak eta erabilera berrietarako egokitu. Besteak beste, eraikin haren beheko solairuan Museo Industriala sortzeko asmoa dute; erdiko solairuan, berriz, herriko hainbat talderendako gelak egokituko dituzte, bestelakoen artean, dantza taldeendako. Eta goiko solairua Arrasate Musikalendako izango da. Gainera, hiru solairuen arteko komunikazioa errazteko igogailua ipiniko dute eta orokorrean, eraikinari azpiegitura berriak (berogailua, argiak...) ipiniko dizkiote.

Bestalde, eraikinaren aurreko (ordulariduna) zein atzeko fatxadak (jatorrizkoak direnak) babestu egin beharko dituzte, Jaurlaritzak monumentu izaera eman zion-eta eraikinari, industria ondare moduan. Hain justu, gaur egun, Arrasaten monumentu izaera duen industria ondare bakarra da *Erlojuaren eraikina*.

Beste berezitasun bat ere badu: erreka gainean egindako eraikina dela. Eta gaur egun, legearen arabera, halako eraikin guztiak bota egin behar dira. *Erlojuaren eraikina*k, berriz, dagoenetan segituko du, monumentu izaera duelako.

Bestalde, gaur egun eraikinaren beheko aldea zeharkatzen duen tunela ixteko asmorik ez dute hasiera baten, baina behin betiko proiektuan zehaztuko dute hura zela geratuko den.

UCEM-EKO ERAIKIN BAKARRA

Erlojuaren eraikina 1939koa da. UCEM-en (Union Cerrajera, 1906) aurrealde enblematikoa erakusten du. Hain justu, Cerrajerako etxeetarako bidean (San Andresko biribilgunetik sartuta) dagoen tuneltxoaz eta Aprendizen Eskolaz gainera, antzinako UCEM handiaren eraikin bakarra da.

Pozik bueltatu dira Andaluziatik Goikobalukoak

GOIKOBALU

Martxoaren 10etik 15era Andaluzian ibili dira Arrasateko 57 lagun, guztiak Goikobaluko kideak eta haien senideak. Lau kontzertu egin dituzte: Baena, Montilla, Alcazar de los Reyes eta Osunan. Harrera ezin hobea izan dutela diote. Ekimena Al Andalus elkarteak bultzatutakoa da, hango presidente Rafa Gomezek, hain zuzen, bi herrien (Euskal Herria eta Andaluzia) arteko trukea bultzatzeko. Hala, Goikobalukoek egindakoa eskertu gura diote.

HAUTESKUNDEAK 07 > ARALAR

Joxe Etxeberria da Aralar alderdiko zerrendaburua

Joxe Etxeberria. GOIENKARIA

U.M.> ARRASATE

Joxe Etxeberria (Berastegi, 1951) aurkeztu du Aralarrek Arrasateko alkategai moduan. Berastegin jaiotakoa izan arren, 14 urterekin etorri zen Etxeberria Arrasatera bizi izatera. Hain zuzen, Eskola Politeknikora ikastera (maisutza industriala) etorri eta Arrasaten bizi da harrezkero.

2003-2007 legegintzaldian zinegotzi izan da.

Arrasaten Aralar, EB eta Zutik ez dira batera aurkeztuko: "Arrazoia da Arrasaten legegintzaldi honetan gauza batzuekin ez garela konpondu eta konpontzen ez diren matrimonioak egitea ez dugu egokia ikusten. Denboraldi bat pasa eta ondo konponduz gero, posible izango da, baina bitartean..." azaldu du Etxeberria alkategaiak.

OGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lorenzo M. Joosten M.S.
Medikuntza naturalean espezialista (Erreg. zenb. 9700118)
Akupuntura (Txinatarrra, Japoniarra eta Korearra (orratzik gabe))
• Buruko mina, muskularra eta hezurretakoa
• Insomnioa, estresa eta menopausia
• Masajeak (Tuina - Sihatsu - Moxa)
• Alergiak eta defentsen handitzea
• Haurren hiperaktibitatea
• Sinusitisa
Aldez aurretik deitu txanda hartzeko.
Arrasate Pasealekua, 29 Ezker behea 653 133 281
Arrasate 943 792 913

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

FERIXALEKUTIK Altamirara doan igogailua Ferixalekutik aterako da, Amaia antzokiaren ondotik. IKER BARANDIARAN

ZERBITZUAK > IGOGAILU PUBLIKOAK

Osokoaren onespenaren zain Ferixalekuko eta Makatzenako igogailuak

Maiatzari dagokion osoko bilkura hilaren 30ean egingo dute; seguru asko orduantxe aztertuko dute bi igogailu horien gaineko gaia

UBANE MADERA > ARRASATE

Bi igogailu publiko eraiki behar ditu Udalak Arrasaten: Ferixalekuan bata eta Makatzenan bestea. Ferixalekuko igogailuak lotuko ditu Arrasateko ekialdeko auzoak (Altamira, Makatzena eta Santamaina) erdigunearekin. Eta Makatzenakoak, berriz, Obenerreka, Hondarribia eta Makatzena kale inguruak erdigunearekin.

Orain, bi igogailuak eraikitzeko proiektua idaztea falta da. Udal Hirigintza Sailean horretarako baldintzen plegua aurkeztu dute dagoeneko. Baina osokoak eman behar dio onespena. Eta udalbatzarrak maiatzaren 30ean (astelehena) egingo du osokoa.

Kontuak kontu, baldintzen artean zehaztu dituzte zenbait oinarri: sei hileko epea proiektuak aurkezteko; proiektuak aztertu eta bat aukeratu ostean, berriz, bi hilabete izango dituzte obrak hasteko. Beraz, zaila da obrak 2008a baino lehen hastea. Hasi ostean, igogailuek martxan egon beharko dute urtebete baino lehen. Igogailuek kostako dutena ere aurreikusi dute: 2.600.000 euro. Eta Udalak zehaztuta ditu, baita ere, igogailuen ezaugarri batzuk.

FERIXALEKUA-ALTAMIRA

Hala, Ferixalekuko igogailua aterako da Otalora kaletik, Amaia antzokiaren ondotik. Gernika oinezkoen pasealekura iritsiko da lehen zatia. Eta gero, handik gertu aterako da igogailu horren bigarren zatia, Jose Luis Iñarra kalearen 32. zenbakiraino. Igogailu erabat bertikala izango da eta zortzi lagunendako lekua izango du.

MAKATZENAKO IGOGAILUA

Makatzenako igogailua, berriz, Obenerreka eta Hondarribia kalean artean aterako da. Aurreneko geralekua izango du frontoian eta bigarrena, berriz, Makatzena kalean bertan. Igogailuaren lehen zatia ez da bertikal-bertikala izango, baizik eta etzanda joango da.

Bi igogailuen gainerako ezaugarri guztiak proiektua idaztean zehaztuko dituzte. Esaterako, igogailuak erabiltzeko giltza edo antzekoren bat beharko den edo edozeinek erabili ahal izango dituen; igogailuak 24 orduz funtzionatuko duten, e.a.

EMAKUMEAK > EMAKUME TXOKOKO EGITARAUA

Ginekologiako eta bularreko minbizien prebentzioa aztergai

Maiatzetik uztailera bitarteko egitarauan, hitzaldia emango dute maiatzaren 3an bi minbizien prebentzioa lantzeko

U.M.> ARRASATE

Hitzaldiak, antzerkia, tailerrak, ikastaroak eta beste iragarri ditu Emakume Txokoak datozen hilabeteotarako. Ekitaldien artean, gertukoena da maiatzaren 3an egingo dutena. Arrate Plazaolak, Donostiako Institutu Onkologikoko arduradunak berba egingo du bularreko eta ginekologiako minbizien prebentzioaren gainean. 17:30ean hasiko da Amaia antzokian.

Bestalde maiatzerako antzerki saioa (*Baserritik baserrira*, maiatzaren 17an, 17:30ean), argazki erakusketa (*Inmigrazioa eta lana*, maiatzaren 21etik 31ra arte) eta DJ ikastaroa (maiatzaren 4, 11, 18 eta 25) antolatu dituzte. Maiatzean hasiko dira, baita ere, argazkigintza, bizikletak konpontzeko eta emakumeen autonomia lantzeko tailerrak.

Ekainari dagokionez, bestelakoen artean, Zugarramurdira irteera egingo dute eta uztailean, berriz, antzerki emanaldia.

GAUR ETA ETZI, JARDUNALDIAK

Bestalde, gaur, egubakoitza eta bihar, jardunaldiak egingo dituzte Donostian. *Boterea non, emakumeak hor* izenburua dauka. Arrasateko ordezkaritza ere izango da jardunaldiotan.

> INGURUMENA

Motozerra eta sasi-garbitzeko makina erabiltzearen gaineko ikastaroa antolatu du Udalak

Motozerra eta desbrozadora erabiltzeko teknika, mantenua eta segurtasun neurriak izeneko ikastaroa antolatu dute Udalak eta Itsasmendikoi Fraisorok. Helburua da motozerra eta sasi-garbitzeko makina gaizki erabiltzeak dituen arriskuen gainean kontzientzia eta haiek erabiltzeko teknika egokia eta beharrezko babes neurriak azaltzea. Bihar (zapatua) hasiko da ikastaroa eta maiatzaren 5ean eta 12an jarraituko du, 09:00etatik 14:00etara, Garagartzako auzo etxean. Ikastaroan lehentasuna izango dute Arrasateko baserritarrek.

TELEBISTAKO EREDUA *¡Ama, quiero ser lehendakari!* ikuskizunak *Cocidito madrileño* eta *Todos nacemos vascos*-en umore ildo antzekoa du. GLU GLU

Etzi, domeka, *!Ama, quiero ser lehendakari!* antzezlana egingo dute Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai daude

ANTZERKIA > ¡AMA, QUIERO SER LEHENDAKARI! IKUSKIZUNA, DOMEKAN

EAEko lehendakaria aukeratuko dute Amaia antzokian domekan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Etzi, domeka, EAEko lehendakaria aukeratzeko hauteskundeak aurreratuko dituzte Arrasaten. Hain zuzen ere, Glu Glu ekoizpen enpresak *¡Ama, quiero ser lehendakari!* antzezlana egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

Glu Glu enpresak aurretik sortutako *Cocidito madrileño* eta *Todos nacemos vascos* ikuskizunen haritik doa Arrasatera ekarriko duten ikuskizuna.

Aizpea Goenaga da lanaren egile eta zuzendaria. Aktoreak ere ezagun samarrak dira: Loli Astoreka, Ane Gabarain, Patxi Perez, Maribel Salas, Galder Perez, Mari Cruz Melgosa eta Iñigo Salinero, hain zuzen ere.

Euskal familia tipiko bat astero elkartzen da amaren inguruan. Haien artean hainbat lixkar izaten dituzte, eta amak baretu behar izaten ditu. Halako baten, ordea, egunkarian irakurriko dute gobernua lehendakari baten premian dagoela.

Guztiek izan gura dute lehendakari, eta prestaketa lanetan hasiko dira. Amak, berriz, ez du jakingo zeinen alde egin.

Eguaztenean, Afrikako pobreziaren gaineko antzezlana eramango dute Kulturateko areto nagusira

ANTZERKIA > 'ESKOLA HUTSIK' ANTZEZLANA KULTURATEN EGUAZTENEAN

Eskola utzi eta lanera jotzen duten umeen gaineko antzezlana

I.B.> ARRASATE

Eguaztenean, hilaren 25ean, *Eskola Hutsik* antzezlana egingo dute Kulturateko areto nagusian. 19:00etan egingo dute, eta euskaraz izango da. Tentazioak antzerki taldetik jakinarazi dute 9 urtetik gorako ume eta gaztetxoei zuzenduta dagoela antzezlan hori.

Egilea Thar Ben Jelloun da. Antzezlanaren egokitzapena, berriz, Harkaitz Canok eta Fernando Bernuesek egin dute.

Afrikako herri txiki bateko maisuak arazo bat du: ikasleek utzi egin diote eskolara joateari. Egunean 12 ordu egiten dituzte lantegi batean, dolar bat irabazteko. Hala diote: "Jakindurak itxaron dezake, baina goseak ez".

Aktore-dantzaria (Carlos Nguema) eta musikaria (Luis Camino perkusionista) ahaleginduegingo dira Afrikan pobrea izatea zer den erakusten. Afrikako ahozko tradiziotik hartutako teknikak ere ibiliko dituzte.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: **943 79 12 74**

IRAKURKETA

Liburuaren Egunaren harira, ekitaldiak

"Estilo ariketak" liburuaren gaineko ikuskizuna egingo dute astelehenean

I.B. > ARRASATE

Astelehenean, hilaren 23an, Liburuaren Eguna izango da. Hala, hainbat eta hainbat herritan irakurtzeko zaletasunarekin lotutako egitarauak egingo dituzte.

Arrasaten ere hala egin dute. Apiril osoan zehar hori ospatzeko ekitaldiak egiten dabiltza.

ITZULTZEKO ESTILOAK

Liburuaren Egunean bertan, astelehenean, Raymond Queneauk idatzitako *Estilo ariketak* liburuaren gaineko irakurketa-ikuskizuna egingo dute. Kulturateko areto nagusian izango da, 19:00etan, eta honakoek esku hartuko dute: Xabier Olarra idazleak eta Olatz Beobide, Carlos Zabala eta Eneko Olasagasti aktoreek, hain zuzen ere.

Queneauk idatzitako liburuan testu jakin bat zenbat modu ezberdinetan itzul daitekeen azaltzen du. Orain dela urte gutxi, Xabier Olarrak euskarara itzuli zuen, eta lan horregatik 2006ko Euskadi Sarietan Itzulpen onenaren saria jaso zuen.

EUSKARAREKIN 'JOLASTU'

Udal Bibliotekako arduradunek jakinarazi dute *Estilo ariketak* liburua oso interesgarria dela; eta horretan oinarritutako ikuskizuna oso gomendagarria dela euskara ikasten dabiltzanendako. "Ez, hain justu, hasiberriak direnendako, baina bai adibidez EGA-edo egiten dabiltzanendako, euskarak zer aukera ematen dituen eta hizkuntzarekin zelan jolas daitekeen jakin dezaten".

> JAIAK

Umeen danborradarako izenematea zabalik

SUDC elkarteak jakinarazi du San Juanetako umeen danborradarako izenematea zabaldu dutela.

Interesa dutenek SUDC elkarteak Pablo Uranga kaleko 4. zenbakian duen egoitzara jo beharko dute apirilaren 23tik 27ra bitartean. 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo diete arreta gerturatzen diren ume eta gurasoei.



NOTHING WITHOUT®

The Shop

Arrasate

Skateboard (Jart, Alai, Nomad, Habitat, Independent, Fallen, Etnies, Venture, Alien Workshop, Zero, Supra, Santa Cruz eta Snowboard=ean jarduteko beharrezko guztia (Thirtytwo, Technine, Ndk, Grenade, Smith, Bonfire, Celsius, Horny Bodies, Air pads... eta Udaberri=Udako gizon eta emakumezkoen moda berri guztia (Split, Insight, We, Nikita, Nothing Without, Reell, Contre Courant, Enyce, Bullroth, Montana colors...

www.nothingwithout.com

PAK DONER KEBAB
TXOHAN

Ferrerias kalea, 34
ARRASATE
Tel.: 662 55 24 25

Berehalako janari goxoa

• Eramateko eskaera egin dezakezu

• Aukeratu pikantearekin edo pikanterik gabe

> ATLETISMOA

Jonathan Perez eta Lander Errasti, Euskal Ligan

Euskal Ligan lehiatuko dira bihar Durangon Jonathan Perez eta Lander Errasti. Pertika jauzian jardungo dute biek, eta Aste Santua Euskal Selekzioarekin entrenatzen eman dutela jakinda, Arrasatekoak sasoiko egongo dira.

Domekan, berriz, infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa egingo dute Hernanin. Rafa Cordero (500 metro), Iñigo Uribarren (1.000 metro), Andoni Perez (80 metro hesiak), Chen Jian eta Josu Revuelta (altuera jauzia) lehiatuko dira.

> SASKIBALOIA

Mugarri Alkesak atsedena du asteburuan

Gorka Zurututzaren mutilek bi aste izango dituzte datorren hilaren 28an Zornotzaren kontra jokatuko duten norgehiagoka prestatzeko.

Baskoniaren kontra galduta, etxekoek atzera pausoa egin dute EBAra sailkatzeko bidean. Orain, Baskoniaren hutsegitearen zain egon behar dute, erne, hori ere posible da-eta.

ESKUBALOIA > KOPA TXAPELKETA

Zarautzen kantxan hasiko du Ford Mugarrik Kopa Txapelketa

Balerdiren eta Fertxuren mutilek bete dute helburua, Euskadiko mailari eustea; ikasteko eta gozatzeko asmoz ekingo diote Kopari

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Oraingo asteburuan hasiko dute Euskadiko mailako Kopa, baina Arrasateko taldeak deskantsua izango du lehenengo jardunaldian. Arrasatek Zarautzen kantxan hasiko du txapelketa berria: "Zarautz, Arrate, Urola, Elgoibar eta gu gaude multzo berean, eta guztira bost multzo daude", esan digu taldeko entrenatzaile Fertxuk: "Kontrario horietatik, Urola eta Elgoibar gure kategorian egon dira aurten. Arrate eta Zarautz, berriz, txapelketako oilarrak izango dira".

ELGOIBARREN KONTRA Kopan ere aurrez aurre izango dira bi taldeak. J.A

Aurtengo helburu nagusia beteta, Arrasatek lasai ekingo dio Kopari, txapelketaz gozatzeko asmoarekin: "Badakigu hainbat jokalarik ez dutela datorren urtean jarraituko, eta guretako oso jokalari garrantzitsuak izan dira. Hori ikusita, datorren urtera begira taldea prestatzen joateko aprobetxatuko dugu Kopa, beheko taldetik zenbat jokalari igo ditzakegun ikusteko". Besteak beste, Arrasatekoek Ipuruako kantxan jokatuko dute: "Eta egunero ez da horrelako kantxa batean jokatzen".

futbitoa zaldibar

PARTIDUAK

Apirilak 21, zapatua	Epaileak
11:00 AT Celaya-Omu Dribling.	**Antolatz.**
12:00 Saukelu Abian-Iluntz.	**Antolatz.**
13:00 Betrayer-Dublin Irish Pub	**Iluntz**
Apirilak 22, domeka	**Epaileak**
12:00 Dribling-Man.Pippol	**Lasagabaster**
13:00 Lasagabaster-Iturriotz Tab.	**Dribling**

SAILKAPENA

		P	J
1.	Saukelu Abian	41	16
2.	AT Celaya	38	16
3.	Omu Dribling	37	15
4.	Cipris	30	16
5.	Iluntz	30	16
6.	HLB 108	27	16
7.	Betrayer	26	15
8.	Lasagabaster	26	15
9.	Abokajarro	26	16
10.	Iriztu Taberna	25	16
11.	Manhattan Pippol	20	15
12.	McAwen Dauen	17	16
13.	Iturriotz	16	15
14.	Dublin Irish Pub	12	15
15.	Billy & The Cowboys	11	16
16.	Equs	9	16
17.	Cicatrus	9	16
18.	THC	8	16

Jokoan daude kopako finalerdiak

Zapatu goizean jokatuko dituzten lehenengo bi norgehiagoketan Kopako finalerdiak egongo dira jokoan. Zapatuko azkena eta domekako bi partiduak, berriz, atzeratuta dauden zeingehiagokak izango dira.

MAPFRE bulego berritua Garibai kalean

Zerbitzurik onena hurbilago

MAPFREn liderraren kalitatea eta gizatalde handi bat dauzkazu, behar gaituzunean zure ondoan izateko.

Eta zerbitzu hobe bat eskaintzeko, **Garibai kaleko bulegoa berritu dugu, Loramendi kaleko 2.an** dagoenaren osagarri modura.

Zatoz, eska ezazu aseguru-proiektu bat, eta **eraman opari bat.**

MAPFRE

Handia izatea Jarrera bat da

EXPO ZARAGOZA 2008

bote prontuen

Begoña Gorosabel > Gubi ile-apaindegiko arduraduna

"Ilea berreskuratzeko sistema erosoa da"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Urte asko daramatza Begoña Gorosabelek arrasatearren buruak apaintzen. Duela bi urte ilea berreskuratzeko sistema berria abian jarri zuen ile-apaindegian. Pozik dago jasotzen ari den erantzunarekin.

Zertan oinarritzen da zehatz mehatz ilea berreskuratzeko sistema hori?

Ilea falta den toki zehatzetan berreskuratzen da. Horretarako, Bartzelonako etxe batekin egiten dugu lan. Buruaren itxura duen eredua diseinatu eta toki horretan baino ez zaio jartzen. Ilea naturala da. Bezeroak ilearen orrazkera eta kolorea aukera dezake, baita bezeroak duen bera ere.

Nori zuzenduta dago?

Adina dela-eta ile barik geratzen direnentzat edo gaixotasun batengatik ilea galtzen dutenentzat pentsatuta dago. Izan ere, sistema horrek buru osorako balio dezake.

Pozik zaudete jasotako erantzunarekin?

Oso harrera ona izaten ari da, bereziki emakumeen artean. Gizonen artean sartzea zailagoa da. Gizon bat ile barik ikustera ohituta gaude, ez ordea, andre bat.

Sistema horrez gain, ileordeak ere eskaintzen dituzu. Zerk du arrakasta handien?

Ilea berreskuratzekoak, erosoagoa delako. Ileorde klasikoak buru osoa estaltzen du, eta transpirablea izan arren, bero handiagoa ematen du. Lo egiteko kendu egin behar da. Bestea naturalagoa izateaz gain, lasai asko garbi daiteke burutik kendu barik eta ilea falta zaion tokian baino ez da jartzen. Ileordeak, hala ere, bere tokia ere badu.

Berria al da bailaran sistema hori?

Nik dakidala bai. Lehen jendea Gasteizera joaten zen horren bila.

Zergatik animatu zinen abian jartzera?

Urte asko daramagu lanean eta beharra ikusten genuen. Gero eta ile gutxiago du jendeak eta ohiko tratamenduek ez dute balio. Probatu duten bezeroak poz-pozik daude. Egia esanda, norbat ilearekin edo barik ikustea alde handia da. Transformazioa eman daiteke. Aurrera egin behar da.

hau be badaukogu

Mihiluzen eman den diru-poltsarik handiena irabazi dute BAZeko bi langilek

Iñaki Urionabarrenetxea arrasatearrak eta Ane Odriozola legazpiarrak ETB1eko Mihiluze saioak eman duen diru kopuru handiena irabazi dute aste honetan. Sei programatan parte hartu dute eta guztira, 20.755 euro lortu dituzte. Diru-poltsa potoloena astelehenean eskuratu zuten: 19.880 euro. "Oso gustura" ibili direla jakinarazi dute biek, hasieran "urduri samar" zeuden arren. Irabazitakoarekin badakite zer egin. Urionabarrenetxeak motorra erosi eta Londresen izan da. Odriozolak Ameriketako Estatu Batuetara joateko asmoa du, baitan ingurukoekin ospatzeko ere. Irudian, saioetako batean azaltzen dira biak.

GOIENKARIA

bere ustez

Aitor Zabalo

Lau urte osteko kontua

Orain dela lau urte hasi nintzen atal honetan artikulu hauek idazten. Orduan, gerrari buruzko artikulu batekin hasi nintzen, Irakeko gerra hasi zeneta. Horren ondoren gai askori buruzko idazkiak egin ditut.

Oraingo hau azkena izanik, esker onekoa izan beharko litzateke. Esker ona jende askori. Dudarik gabe, artikuluak irakurri dituztenei, edo bakarrik argazkia ikusi eta aldatzeko esan didatenei. Esker ona ere gaiak eskaini

"Ordua heldu da beste batzuek ere aukera izan dezaten bere pentsaerak adierazteko"

dizkidaten guztiei, ingurukoak gehienak. Esker ona ere GOIENKARIAkoei, aukera emateagatik eta astero lan egiten dutelako euskarazko gure txokoa izateagatik.

Hemen idazteak bere gauza onak eta txarrak izan ditu. Txarren artean, ardura hartu beharra eta asteburuetan lana egin beharrekoa. Onen artean jendearen ardura, irakurri ostean bere iritzia ematen dizulako, nolabaiteko babes gisa-edo.

Ordua heldu da beste batzuek ere aukera izan dezaten bere pentsaerak atal honetan adierazteko. Arrasatek badu-eta jende konprometituaren aukera zabala (nahiz eta badirudien gutxiagotu egiten dela kopuru hau). Agur, beraz. Mila esker denagatik eta ondo segi.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

BERGARA > EUSKARA

Bergarak 6,35eko nota atera du hizkuntza politikaren azterketan

Nota ona atera du Bergarak, baina baditu hutsuneak ere, udal-ordenantza falta, adibidez

Euskal Herriko 66 udalerritan egin du hizkuntza azterketa Kontseiluak eta Bergara 5. postuan dago

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Euskal Herriko udalerrien hizkuntza politika neurtu du Kontseiluak eta Bergarak 6,35eko nota atera du 0-10 arteko baremoan. Kontseiluko kide Mikel Balentziaga eta Berbako, Bergarako Euskaltzaleon Bilguneko Jon Unamunok eta Iñigo Arregik egin zuten azterketaren aurkezpena eguazten iluntzean Bergarako kultura etxean.

BOSGARREN POSTUAN

Euskal Herriko 66 udalerritan egin dute hizkuntzaren azterketa: 10.000 biztanle baino gehiago dituztenetan eta eskualdeko buruak direnetan, zenbait salbuespenekin. Emaitzak ikusita, Bergarak 6,35eko nota atera du eta bosgarren postuan kokatu da. Bere aurretik daude: Azpeitia, Lekeitio, Oñati eta Tolosa. "Bergararen emaitza ona da, positiboa. Berez, 7ko notak adierazten du udalerri horretan normalizazioaren barruan bizi direla. Tamalez ez da bakarra ere iritsi nota horretara", azaldu du Mikel Balentziaga Kontseiluko kideak. Beste datu bat ere eman zuen Balentziagak: "%84,4 da euskararen ezagutza maila Bergaran. Hortik %70 euskaldunak dira eta %14 ia euskaldunak".

Hizkuntza politikaren azterketa egiteko hainbat arlo neurtu dituzte, adibidez: langileak, komunikazioa, kultura ekintzak, hezkuntza, merkataritza, lan mundua, kirola, aisia eta arlo orokorrak.

BERBAREKIN BATERA

Berba elkartea 2005eko abenduan eta 2006ko urtarrilean hasi zen Bergarako euskara azterketa egiten. Elkarteko Jon Unamunok eta Iñigo Arregik azaldu duten moduan, hainbat gai izan dituzte kontuan azterketa hori egiteko. Adibidez, ikusi dute euskara plana baduela eginda Udalak, aurrekontuaren %3a jasotzen duela euskarak eta euskara zerbitzuan lau langilek egiten dutela lan. Horrekin batera, ikusi dute ikasleek euskaraz ikasteko beka sistema arautua dagoela, enpresak euskalduntzeko egitasmoa abian duela Udalak, toponimia euskaraz dagoela, udaltzainek ez dutela arazorik euskaraz argibideak emateko edo isunak jartzeko, zabor ontzietako eta baita kiroldegi eta igerilekuko ohar gehienak euskaraz daudela eta Udalak antolatzen dituen kultur ekintzen publizitatea euskaraz dagoela. Hala ere, konturatu dira Udalaren webgunea eta aldizkaria orekan daudela, hirigintzako harreran euskaraz trakets xamar egiten dutela eta udal-ordenantzarik ez dagoela. Hori egoteak euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko udal-ekintza arautzeko balio duela uste du Berbak.

UDAL-ORDENANTZARIK EZ

Udal-ordenantza falta da, hain zuzen ere, Kontseiluak egindako balorazioan agertzen den hutsuneetako bat. Beste hutsune aipagarriak dira: udaletxearen barruan errotulu informalen bat erdara hutsean dagoela eta auditoriak euskaraz badira ere, bestelakoetan ez dela erabakirik hartu Udalari aholkularitza tekniko eta juridikoa ematen dioten enpresen txostenak euskaraz helarazteko.

KARTELAK Kalean dauden kartel batzuk euskaraz daude eta beste batzuk bi hizkuntzetan. NEREA ZUBIETE

> EHIZA

Herriko ehiza txapelketa egingo dute hilaren 29an

Bergarako ehiza txapelketa apirilaren 29an egingo dute. Aurten ere Zambranan (Araba) egingo dute, Gaztelu izeneko ehiza esparruan. Parte hartu nahi dutenek apirilaren 25a baino lehen eman behar dute izena Ozaeta auzoko Belengua tabernan edo Iraho jatetxean. Txapelketara joateko beharrezkoa da ehizarako dokumentazioa indarrean edukitzeaz gain federazioko txartela eta txaleko distiratsua ere eramatea. Txakur bakarrarekin egin ahal izango da ehiza.

> SAHARA

Bilera egingo du Bubisherrek udan umeak hartzeko

Bubisher elkarteak bilera egingo du udan Saharako umeak Bergarara ekarri nahi dituzten familiekin. Datorren eguenean, apirilaren 26an, egingo dute bilera kultura etxean, 19:00etan. Tindufeko kanpamenduetan jaio eta hazi diren 7 eta 12 urte bitarteko ume sahararrak ekarri nahi ditu Bubisher elkarteak aurten ere eta proiektu horren inguruan berba egingo dute bilera horretan. Ume horiei beste errealitate bat bizitzeko aukera ematea da helburua.

> HEZKUNTZA

Batxilergoko aurkezpena egingo dute Aranzadin

Batxilergoko aurkezpen bilera egingo dute Aranzadi ikastolan. Batxilergo mailako informazioa emateko bilera izango da: maila horretako ikasketa mailak, ereduak, etorkizuna eta antzerako gaiei buruz jardungo dute, adibidez. Bilera hori astelehenean egingo dute, 19:00etan, Aranzadiko plazako eraikinean. Gai horretan interesa duten herriko ikasle eta gurasoendako da.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ETXEBIZITZAK Algodonerako orubean etxebizitzak egitea ere onartu zuen udalbaltzak osoko bilkuran. GOIENKARIA

ARAU SUBSIDIARIOAK > ASTELEHENEKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAN

Plan orokorraren behin behiko asmoa, onartuta

Alegazioak aurkezteko bi hilabeteko epea zabaldu dute, behin betiko onartu aurretik

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako plan orokorrari hasierako onarpena eman zion astelehenean udalbatzak. Ez ohiko osoko bilkura deitu zuten gai hori eztabaidatzeko eta orduan onartu zuten plan orokorraren behin-behineko proiektua, EAJ, EA eta PPko botoekin. Aralarrek eta PSE-EEk aurka bozkatu zuten eta EBko zinegotzia ez zen osoko bilkurara joan.

BEHIN-BEHINEKO PROIEKTUA

Astelehenean onartu zutena behin-behineko proiektua da. 2005eko azaroan proiektuaren aurrerapena jarri zuen Udalak jende aurrean. Epe horretan 48 alegazio aurkeztu zituzten "eta horiei banan-banan erantzun ostean egin dugu behin-behineko proiektua", dio Josean Etxeberria Hirigintza zinegotziak. Haren esanetan, astelehenean onartutako proiektuak bere osotasunean errespetatzen du Zalotegiko errepidea egiteko moduko proiektua egin aurretik kontuan izan beharlotegiko errepidea egiteko hasieratik duten asmoa.

Plan orokorraren hasierako proiektuaren aurka bozkatu dute, berriz, PSE-EE eta Aralar alderdiek. Aralarreko Iñigo Iñurrategiren arabera, "Zabalotegiko errepidea egiteko moduko proiektua egin aurretik kontuan izan beharko litzateke herriko mugikortasuna, adibidez".

Behin hasierako asmoa onartuta, alegazioak aurkezteko epea zabaldu dute. Alegazioei erantzuna eman eta egin beharreko aldaketak eginda, oraindik behin-behineko asmoa onartu behar dute erakundeek. Azken pausoa izango da udalbatzak behin betikoa onartzea.

Azken plan orokorra 1996an onartu zuten, duela 11 urte.

HAUTESKUNDEAK > EAJ-K ZERRENDA KALERATU DU

Izen berriak daude EAJko zerrendaren hasieran

Posta bidez botua bidali ahal izateko bulegoa zabaldu du Batzokian alderdi jeltzaleak

O.E. > BERGARA

EAJ alderdiak kaleratu du maiatzeko hauteskundeetan aurkeztuko duen zerrenda: German Muruamendiaraz, Juan Jose Arrieta, Arantzazu Amasorrain, Belen Abarzuza, Rafael Amasorrain, Maite Barrena, Miguel Angel Larrañaga, Valentin Egidazu, Aintzane Oiarbide, Iñaki Arregi, Enekoitz Badiola, Arantza Ilzarbe, Juan Luis Bikuña, Miren Lazkano, Arantzazu Agirre, Jose Antonio Aperribai, Aintzane Ugalde, Miguel Okina, Edurne Muruamendiaraz eta Sabin Azkarate.

Bestalde, EBko zerrenda burua Salvador Gonzalez izango da, PSE-EEkoa Mari Carmen Barrenetxea eta PPk eguenean emango du aditzera.

O.E.

Udaberriko arropa KMK'07 dendan

Udaberriko arropa heldu da Kilometroen dendara. Nikiak, prakak, jertseak eta poltsak ekarri dituzte besteak beste, denak udaberri eta udako kolorekoak: laranjak, berdeak edo marradunak. Denda Barrenkalean dago eta astelehenetik egubakoitzera arratsaldetan zabaltzen dute, 17:00etatik 20:00etara; zapatuetan goizetan zabaltzen dute.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32


GATINEAU
PARIS
Estetika zentroa
Igaro

Azalaren azterketa eta aholku zerbitzua
DOAN.
*Gatineau*ko espezialista batek egindakoa.
Apirilaren 23tik 28ra
IGARO estetika zentroan.
Hitzordua eska ezazu:
943 76 17 27
Oparia izango duzu Gatineau produktuak erosita.
Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

MUSIKA > 'APIRILEAN MUSIKA' EGITARAUA

Herriko musikarien lana, plazara

Bergarako Musika Eskolako ikasleen eskutik, emanaldiak bihar eta datorren astean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Musika Eskolak abian jarritako *Apirilean musika* egitarauaren barruan, kantu ikasleen emanaldia izango da bihar, zapatua, Sierbetako elizan, 20:00etan. Ikasleek eskola barruan egiten duten lana plazaratzea da *Apirilean musika* egitarauaren helburu nagusia. Musika Eskolan diharduten 550 ikasleek hartzen dute parte antolatutako emanaldietan. Aurtengoa, hain zuzen ere, hirugarren ekitaldia da.

Datorren asterako ere hainbat ekitaldi iragarri dituzte: piano eta biolin ikasleen kontzertua izango da astelehenean Musika Eskolan, 18:00etan, eta ikasle nagusien emanaldia izango da jarraian, 19:00etan.

HITZALDIA MARTITZENEAN

Martitzenean, Jose Antonio Ordoñanak *Musikak duen eragina umeen heziketan* izenburuko hitzaldia egingo du Musika Eskolan, 19:30ean. Aurretik, 15:00etan hasita, hainbat emanaldi izango dira. Tartean, Musikeneko Egur Boskoteak udaletxean joko du, 18:00etan. Era berean, eguaztenean eta eguenean zenbait instrumentutako ikasleek erakustaldiak egingo dituzte ospitaleko elizan eta Musika Eskolan. Jon Elberdiren *Txori meteorologoa* ipuin musikala eskainiko dute Gabero abesbatzak eta Musika Eskolako ikasleek eguenean Jam aretoan, 19:00etan. Amaitzeko, egubakoitzean musika kalera aterako dute, 17:00etan, eta Zumarragako Orkestraren kontzertua izango da ondoren Mariaren Lagundiko elizan, 19:00etan.

IPUIN MUSIKALA *Txori meteorologoa* eskainiko dute Gaberok eta Musika Eskolako ikasleek eguenean Jam aretoan. GOIENKARIA

GOIENKARIA

Tolosako Banda domekan Udal Pilotalekuan

Bergarako Udal Musika Bandaren 175. urteurreneko ospakizun ekitaldiekin jarraituz, Tolosako Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Luis Mari Gartzia Artetxeren zuzendaritzapean, Tolosako musikariek ondoko piezak joko dituzte: *Calahorra*, *Egmont*, *The second Waltz*, *Los Miserables*, *Jaialdia* eta *James Bond 007*. 1834an sortua, Tolosako Banda 50 musikarik osatzen dute gaur. Domekako kontzerturako sarrera doan izango da.

> ERAKUSKETA

Kilometroak jaia iragarri duten logotipoen erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegin

Gaur, egubakoitza, Kilometroetako logotipoen erakusketa zabalduko dute Aroztegi aretoan, 19:00etan. 1977a ezkero ospatutako Kilometroak guztien irudiak egongo dira ikusgai. Erakusketa maiatzaren 1era bitartean izango da zabalik.

> TURISMOA

Udal Turismo Bulegoak bisita gidatuak eskaintzen ditu maiatzaren 1era bitartean

Udal Turismo Bulegoa maiatzaren 1era bitartean izango da zabalik udaletxeko sarreran. Hala ere, domekan, hilaren 22an, itxita izango da. Herriko ondarea ezagutzeko bisita gidatuak antolatzen ditu Turismo Bulegoak. Argibideak jasotzeko 943 77 91 28 telefonora jo dezakezue.

> GAZTEAK

Gaztetxoei zuzendutako irteera Zuhatzara eta olinpiadak, Jardun elkartearen eskutik

Jardunek 8-12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako irteera antolatu du. Maiatzaren 4tik 6ra bitartean Zuhatzara joango dira. Bestalde, maiatzaren 12tik ekainaren 16ra arte gaztetxoen arteko olinpiadak jokatuko dira. Izenematea eta argibideak: 943 76 36 61.

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Mujika gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Udaberria - uda

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak
38tik 60ra

Musikak ez du adinik

Anima Zaitez...

Matrikulak
Apiriletik Ekainera
zabalik

· Instrumentu musikalak
· Aurre hizkuntza musikala (5 urtetik aurrera)
· Hizkuntza musikala (helduentzat ere)
· Biolina (Suzuki Metodoa 3 urtetik aurrera)

Taldeak: Orkestra, Banda, Abesbatza, Akordeoi Ork ....

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA
Espaloia, Bergara· Tel. 943 765780

PILOTA > BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Larri ibili ziren martitzenean Muguruza eta Ajuria final erdietara pasatzeko

Hasieran aldea atera eta puntu politak egitea lortu bazuten ere, gero konfiantza galdu eta tartea murriztu zieten

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergara Hiria Txapelketa joan den apirilaren 10ean hasi zen Udal Pilotalekuan. Aldez aurreko partiduekin eman zitzaion hasiera 12. edizio horri. Egun horretan ez zuen bergararrik jokatu.

Martitzenean, final laurdenekin batera, Ander Muguruza bergarar eta Ajuriaren txanda iritsi zen nagusien mailan. Castillo eta Irureta zuten aurkari. Lehenek irabaztea lortu bazuten ere, garaipena ez zen erraza izan. Emaitza 22 eta 21-koa izan zen.

Kantxara "urduri" irten zela onartu zuen partidua amaitu ostean Muguruzak. Hasieran aurkariei aldea ateratzea lortu zuten. Tanto politak ere egin zituzten Ajuriak eta berak, Udal Pilotalekura hurbildu ziren zaleen txaloak lortuz. Baina, partiduak aurrera egin ahala, Muguruzak konfiantza galtzen joan eta tartea txikitu zuten Castillok eta Iruretak.Garaipen horri esker, final erdietara pasa dira Muguruza eta Ajuria.

NAGUSIAK Ajuriak eta Muguruzak martitzenean jokatu zuten. GOIENKARIA

BESTE BI BERGARAR

Igor Gutierrez bergararra Renobalesekin arituko da maiatzaren 8an. Olaetxea eta Bengoetxea izango dute aurrean. Nagusien mailan jokatzen dute horiek ere. 22 urte azpikoetan, Jon Larrañaga dago, Mendizabalekin batera. Maiatzaren 1ean norgehiagoka izango dute Bidan eta Telletxearekin.

Partiduak martitzenero dira, 19:30etik aurrera. Hasieran 22 urte azpikoenak jokatzen dira eta ondoren nagusienak. Bi mailen finala maiatzaren 28an izango da.

ERROTA-GAIN taldekoek Labegaraietako futbitoko liga irabazi dute. GOIENKARIA

Errota-Gain, ligako txapelduna

Errota-Gain taldekoek liga irabazi dute, Niu Tim-en aurkako norgehiagoka 2 eta 1 nagusitu ostean. Partidu gogorra izan zen bi talde horien artekoa. Errota-Gain partidurik galdu ez duen talde bakarra da. Niu Tim bigarren geratu da. Asteburu honetan kopa txapelketa hasiko da.

> FUTBOLA

BTLSko neska eta mutilek etxean jokatuko dute domekan

Azken bi jardunaldiak kanpoan jokatu ostean, etxera bueltatuko dira BTLSko neska eta mutilak. Lehenak Eibartarrak taldea izango du aurrean domekan, 15:15etik aurrera.

Mutilek egun berean dute partidua Ikasberriren aurka, 18:00etan. Erregional mailako taldea Usurbilen lehiatuko da.

> FUTBOLA

Izena emateko epea zabalik dago Ipintzako txapelketarako

Maiatza amaieran hasiko dira jokatzen Ipintzako zaleen txapelketak. Horietan parte hartu ahal izateko izena eman beharra dago aurretik.

Bergara Kirol Elkarteak jakinarazi duenez, epea zabalik dago. Interesatuta daudenak Ipintzara joan behar dira, 17:30etik 20:30ak bitartean.

Kanpotarrak Bergaran

Luz Estela Gonzalez > Administrari turistikoa
Bergaran bizi da

"Asko animatu ninduten; horrek ni hemen geratzea eragin zuen"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Kolonbiarra da Luz Estela Gonzalez. Medellin hirikoa, hain zuzen. Bergaran jaioterriko jende askorik ez duela ezagutzen esan du. Arrasaten, aldiz, kontrakoa gertatzen da: Medellingo lagunak ditu han.

Zazpi urte inguru daramatza Bergaran. Hemengo mutil batekin ibiltzen zen garai hartan. "Harremana formalizatzeko asmoz etorri nintzen", azaldu du Gonzalezek. Azken horren harira, hura ez zela premiagatik etorri jakinarazi du. Medellinen bizimodu "erabat normala" zuela adierazi du, lana eta guzti. Administrari Turistikoko ikasketak egin zituen arren, funtzionario egiten zuen lan, osasun alorrean.

Argazkian, Luz Estela Gonzalez.

"Euskal Herria oso gustuko dut, maite dut herri hau; ez dut Medellinera itzultzeko asmorik"

Hala eta guztiz ere, jaioterria atzean utzi eta 9 urteko semearekin batera Bergarara etortzea erabaki zuen. Hasieran dena "oso zaila" egin zitzaiola onartu du kolonbiarrak. Bikotekidearekin gauzak ez ziren nahi zuen bezala irten, eta esan du lanik ez edukitzeak egoera okertzea baino ez zuela egiten.

UNE LATZAK

"Lur jota nengoen, egonkortasuna utzi nuelako, hemen beste familia bat osatzeko asmoz, eta ez zen ondo atera", aipatu du. Harremanak ez zuen aurrera egin.

Hasierako une latz haietan bergararren elkartasuna jaso zuela gogorazi du: "Jendeak asko animatu ninduen; horrek ni hemen geratzea eragin zuen". Erabaki zuzena hartu zuelakoan dago. Izan ere, denborak aurrera egin ahala animatzen joan zen eta gaur egun pozik dagoela azpimarratu du. "Euskal Herria oso gustuko dut, maite dut herri hau". Beste gizon batekin hasi zen irteten, ibarrean hamar bat urte daramatzan italiar batekin, hain zuzen. Iaz ezkondu ziren.

Pasaia aldetik, Medellinen eta Euskal Herriaren artean alde handirik ez dagoela dio. Oso mendi tsuak dira biak. Baina mendiaren eta itsasoaren artean dagoen distantzia txikiarekin harrituta geratu zela esan du. Baita hemen dagoen "antolakuntza eta garbitasunarekin" ere. Hemengo jendearen "zintzotasuna" gustuko du.

Arrasateko hotel bateko kafetegian hasi berri da lanean Gonzalez. Kolonbian lortutako ikasketak ez ditu homologatuta, eta lana topatzeko orduan horrek asko eragiten duela uste du.

Jaioterrira urtean bi alditan joaten da. Semea du orain han, eta hura bisitatzera doa. "Ez dut Medellinera itzultzeko asmorik", dio. Bisitekin nahikoa da.

hau be badaukogu

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenak antolatu dituzte

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna izango da. Hori delaeta, egun horretan kalera aterako dute Udal liburutegia. Aurten ere Herriko Plazako arkupeetan egongo da kokatuta egun osoz, 10:00etatik 20:00ak bitartean. Liburutegiko eraikinean eskaintzen duten zerbitzu bera izango da han. Hori ez da antolatu duten ekimen bakarra. Egun hauetan liburutegira doanak aukera du liburu bat hartzeko opari moduan. Hain justu, bikoiztuta dauden liburuak mahai baten gainean jarrita dituzte nahi duenak eskura dezan. Aukera paregabea dute bergararrarek liburu bat ohe ondoan izan eta irakurtzeko.

MIRIAN BITERI

bere ustez

Aitziber Azkondo

Basque Film and Media Arts

Euskal Zinea AEBetan zabaltzeko eta harreman berriak sortzeko asmoz egin da Basque Film and Media Arts Festival, Aste Santua baino lehen New Yorken. Euskal Herritik 40 bat pertsona gerturatu ginen Manhattaneko Tribeca auzora.

Euskal produkzioak eman duen lan onenetarikoak eman ziren bertan, Bergara herri protagonista duen *Aupa Etxebeste!* barne. Gauza da ez zela esperotako erantzuna jaso. Alegia, ez zen new yorker ikusle askorik izan. Ilusio handiko zuzendari oparoen ahotan hizpide zen gai nagusia, hiriaren miresgarritasuna.

"Ez zen esperotako erantzuna jaso. Alegia, ez zen new yorker ikusle askorik izan "

Ez nuen produktore amerikarrak gerturatu edo kontaktu berririk egin zirenik entzun. Helburu nahiko harroa lortu nahi zen. Zinean maisuak diren herrialde batean gure lana aurkeztu eta trukean interes berezia espero. Dena den, ez zen deusean geratu. Hiria ezagutu eta miresteaz gain, New York Film Academy izen handiko eskola bisitatu baitzen.

250.000 euroko aurrekontua eta emaitza eskasa. Sormen falta eta intentzio ona. Horrelako merkatuetara gerturatzeko ausardia izatean, sormena landu eta elementu bereizgarri handiak erabili behar dira. Ez da De Niroren "konplexura" joatearekin betetzen.

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903



Osintxu 13, behea
943 77 70 57

ARANZADI ikastola

ARANZADI IKASTOLA
BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIOA
apirilaren 23tik maiatzaren 4ra

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA
Osasun eta Natur Zientziak
Zientifiko-teknikoa
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

BILERA INFORMATIBOA: APIRILAREN 23an,
Arratsaldeko 7etan, Plazako eraikinean

Kultura eta aisialdirako jarduera osagarriak

■

Batxilergo ondoko ikasketa guztietarako prestakuntza

■

Konfiantzan oinarritutako harremanak

■

Ikastolaren kudeaketan ikasleen parte-hartzea

■

Euskaraz bizi izaten aitzindari

Emaitza akademikoak gure kalitatearen adierazle

HERRI ONURAKO
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA

Ikastolen Elkartea

PARTAIDE Ikastolak

San Martin Plaza, 4 Tel.: 943 76 90 71/66 –faxa: 943 76 91 77
bergara@ikastola.net / www.aranzadiikastola.org

AZPIEGITURAK > KULTURARAKO ERAIKINA

Kulturarako eraikinari laguntzeko konpromisoa hartu du Aldundiak

600 mila euro emango ditu Aldundiak Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza bitartean dagoen eraikinerako; ekainean bukatuko dituzte eraikitze lanak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia etorri zen eguaztenean Aretxabaletara kultura eraikinari dagokion hitzarmena sinatzera Udalarekin. Bide batez, eraikina ezagutu ahal izan zuen.

ERAIKINA Joxe Joan Gonzalez de Txabarri kulturarako eraikinari begira alkatea eta zinegotziak alboan dituela. M.A.

KULTUR EKIPAMENDU SAREA

Musika eskola, kultur etxea eta liburutegia eraikitzeko lankidetzan jarduteko asmoa azaldu du Aldundiak, eta 600 mila euro emango ditu lanok egiteko. Arritxu Oliden alkateak eskerrak eman zizkion diputatu nagusiari Aretxabaletarekin gogoratu direlako. Eta Gonzalez de Txabarrik gogorarazi zion beste lankidetza batzuk ere egin dituztela gure herriarekin: zaharren egoitza berria egiteko hitzarmena MCCrekin, kooperatibekin… "Debagoienak izen handia du eta izan gutxi. Egituratzeko nahia badu, baina gero herri bakoitzak bereari eusten dio, *oso aretxabaletarrak edo oso arrasatearrak gara*", gaineratu zuen Etxabarrik.

Aipatu zuen oso garrantzitsua dela Gipuzkoan kultur ekipamendu sarea egitea, eta kultur programak frontoi eta elizetatik atera egin behar direla. Behin azpiegiturak izanda kultur dinamika suspertzen has daitekeela gaineratu zuen.

BOST SOLAIRU ETA HIRU SARRERA

Hitzarmena sinatu ostean kulturarako eraikina ezagutzera hurreratu zen Gonzalez de Txabarri. Lanok ez daude bukatuta, ekainean bukatuko dituztela uste dute arduradunek, baina itxura polita hartu zion.

Gogora dezagun bost solairu dituela eraikinak eta hainbat erabilera: liburutegia, kultur etxea, musika eskola, hitzaldi edo erakusketa aretoa eta gaztelekua. Hiru sarrera izango ditu: nagusia Herriko Plazatik, beste bat Santa Kurtz kaletik eta gaztelekura zuzenean Santa Kurtz ostetik.

Eraikitze lanak bukatutakoan hornitu egin beharko dituzte gela eta areto guztiak.



LIBURUAK Ludotekan jaso dituzte azken asteotan bihar trukatuko dituzten liburuak. M.A.

LUDOTEKA > LIBURU AZOKA

Liburuak trukatzeko azoka, bihar

Ludoteka aurrean egingo dute, 11:00etatik 13:30era; gainera, ipuin kontalaria egongo da

M.A. > ARETXABALETA

Liburu truke azoka antolatu du Udalak. Ume eta gaztetxoek eroandako liburuak jaso dituzte azken asteotan ludotekan, eta trukean txartela eman diete. Txartelarekin beste liburu bat hartu ahal izango dute bihar.

IPUIN KONTALARIA

Gure herrian lehenengoz antolatu duten azoka 11:00etan zabalduko dute Gernika plazan, Algara ludoteka aurrean, eta 13:30ak bitartean egongo da. 12:30ean ipuinekin gozatzeko aukera izango dute kontalari bati esker.



HAUTESKUNDEAK > AURKEZPENA

Inaxio Garro da Aralar alderdiaren alkatetzarako hautagaia

Gogoa eta borondatea izanda eta errespetua oinarri hartuta, ezkerretik datorren aldaketa behar duela herriak aipatu zuen Garrok

ARALAR Inaxio Garro hautagaia Xabier Sarasua zinegotziaren alboan Aralarko hainbat kidek babestuta. M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Udal hauteskundeetarako zerrenda burua aurkeztu zuen Aralar alderdiak eguazten iluntzean. Bide batez bukatzera doan legegintzaldiaren balorazioa egin zuten.

LEGEGINTZALDIAREN BALORAZIOA

Xabier Sarasua zinegotziak esan zuen ez dela batere legegintzaldi samurra izan, baina pozik daudela zintzo jokatu eta herriarendako lan egin dutelako. Legegintzaldiak lorpen interesgarriak izan baditu ere –kultur etxe berria, bidegorria, gaztelekua…– "akats asko egon dira, gehiegi" esan zuen: "Ez legegintzaldirako inbertsio planik, ez herritarren parte hartzea bideratzerik, ez Udal kontuen informaziorik, ez elkarlanik… Eta galdera bota zuen legegintzaldi berrirako erronka gisa: duela 4 urte baino herri biziagoa ote da gaur?

INAXIO GARRO ITURROSPE

Udal hauteskundeetarako zerrenda burua aurkeztu zuten gero. Inaxio Garro Iturrospe da bera, 43 urte ditu eta bi alaba. Gogotsu eta ilusioz azaldu zen Garro, eta taldeak ere ilusioa, freskotasuna eta etorkizun luzea duela aipatu. Errespetua behar dela oinarri, eta gogoa eta borondatea izanda hasi behar dela lanean gaineratu zuen. Dio "ezkerretik datorren aldaketa behar" duela herriak, eta jarrera irekiak izanda herritarrenganako hurbiltasuna bilatuko dutela.

KURTZEBARRI ESKOLA

Antzerkia egin zuten gurasoek Literatura Astean

Literatura Astea ospatu zuten martxoan Kurtzebarri eskolan. Ildo nagusia Mariasun Landa idazlea izan zen, eta aurrez aurre solasaldia izan zuten. Baina Irakur Maratoi egunari egin gura diote aipamen berezia eskolako arduradunek, eta egun horretako protagonista nagusiei. Ez, ez dira ikasleak, gurasoak baizik, eta antzezlan atsegina eskaini zieten taldea: "Gurasooi gure eskerrik handienak eta zorionik beroenak, zuen ekarpena eta ilusioa benetan txalogarria iruditzen zaigulako, eta eskolako ibilbidean guztion partaidetzan sinisten dugulako".

> DIRULAGUNTZA

Herriko ikastetxeetako guraso elkarteei dirulaguntzak emateko deia egin du Udalak

Irabazi asmorik bako guraso elkarteei dirulaguntzak emateko oinarriak argitaratu ditu Udalak astean –apirilaren 17ko GAO–. Noizean behin egindako jarduerak zein eskola ikasturteko programak lagunduko ditu Udalak. 4.000 euro aurreikusi ditu horretarako, eta eskaerak egiteko 15 eguneko epea izango dute elkarteek.

> ELKARTASUNA

Saharako errefuxiatuak izango dituzte berbagai eguenean, 'La puerta del Sahara' filma emanda

Hainbat film dabil eskaintzen Iesbaa elkartea Saharako egoeraren berri izan dezagun herritarrok. Eguenean, hilaren 26an, *La puerta del Sahara* emango dute, 19:00etan, Iralabarri plazako bideo gelan. Saharako preso eta desagertutakoen elkarteko Mohamed etorriko da guztiaren berri emateko.

> ODOL ATERATZEAK

Odol ateratzeak egingo dituzte Arabako Odol Bankukoek hilaren 23an eta 30ean

Arabako Odol Bankuko kideak etorriko dira apirileko hurrengo bi astelehenetan odola ateratzera, hilaren 23an eta 30ean hain zuzen. Osasun etxean egongo dira 16:15etik 20:00ak bitartean medikua zein erizainak odola eman gura duten aretxabaletarren zain. Edozein argibiderako bertara hurreratu galdetzera.

HAUTESKUNDEAK > EAJ-REN HAUTAGAIAK

EAJk kaleratu du maiatzean aurkeztuzko duen zerrenda

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Oñatiko EAJk kaleratu du maiatzeko hauteskundeetan aurkeztuko duen zerrenda. Lehen bost hautagaiak Udalean daude orain ere. Hauexek dira EAJ alderdiaren 20 hautagaiak: Lourdes Idoiaga Urkia, Ainhoa Galdos Olazar, Anjel Biain Peña, Andoni Gartzia Urtaza, Rosarito Galdos Zubia, Jose Mari Igartua Aranguren, Felipe Lizaur Aiastui, Mikel Iturrospe Gabilondo, Marijo Etxegoien Artzuaga, Ainhoa Irizar Odriozola, Luis Anduaga Madinazkoitia, Aitor Arregi Murgiondo, Nerea Altube Galdos, Mikel Gartzia Urtaza, Mireia Arregi Markiegi, Lourdes Urtaza Astigarraga, Andoni Campos Ugarte, Beatriz Etxaniz Mendizabal, Javier Baltzategi Maiztegi eta Jose Antonio Gomez Perez.

Azken hauteskundeetan EArekin batera joan zen EAJ eta 14 zinegotzi dituzte egun.

SINADURA Jonan Fernandez Baketikeko zuzendaria eta Lourdes Idoiaga alkatea hitzarmena sinatzen. O.E.

HAUTESKUNDEAK > EB, ARALAR ETA ZUTIK KOALIZIOA

"Ezkerreko tartea betetzeko" jaio da Oñati Ezkerretik

OIHANA ELORTZA > OÑATI

"Ezkerreko tartea betetzeko eta ordezkatzeko" jaio da Oñati Ezkerretik. Horixe esan dute koalizio horretako hautagaiek eguenean kultura etxean egin zuten aurkezpenean. Ezker Batua, Aralar eta Zutik alderdiek osatzen dute Oñati Ezkerretik izeneko koalizio berria eta Karmelo Perez, Miren Arregi eta Jose Ruiz dira zerrendako lehen hiru hautagaiak.

POLITIKA AURRERAKOIAK

Maiatzeko hauteskundeetan zer programa politiko aurkeztuko duten ere azaldu dute hiru hautagaiek prentsaurrekoan. "Ezkerreko politikak jasoko dituen ilusioz beteriko proiektu politiko eta sozial bat proposatzen diegu oñatiarrei", adierazi dute Oñati Ezkerretik koalizioko ordezkariek. Manu Egañak koordinatu zuen prentsaurrekoa.

> ASTRONOMIA

Artizarra, Saturno eta Ilargia ikusteko teleskopioak egongo dira plazan zapatu gauean

Ilatargi astronomia elkarteak behaketa publikoa antolatu du zapatu gauerako, 21:30erako, herriko plazan. Ordu horretan itzali egingo dituzte plazako argiak eta teleskopiotik Artizarra ikusiko dute hitzordura doazenek. Ilargiaren kraterrak ere ikusiko dituzte eta baita Saturno planeta eta bere eraztuna ere. Gainera, ISS, nazioarteko espazioko ontzia, gainetik pasatzen ere ikusiko dute; 21:55ak inguruan izango da hori.

UDALA-BAKETIK HITZARMENA > HERRIKO ERAGILEEN AURREAN EGIN DUTE

Hitzarmena sinatu dute Udalak eta Baketikek

Udalak 12.000 euro emango dizkio urtero eta Baketikek Oñatiren izena zabalduko du munduan

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Baketik bake zentroak eta Udalak hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, Udalak 12.000 euroko dirulaguntza emango dio zentro horri bere proiektuetarako. Trukean, Baketik bake zentroak bakea eta Oñati eta Arantzazuren izenak zabalduko ditu nazioarteko kongresu eta topaketetan. Jonan Fernandez Baketikeko zuzendariak eta Lourdes Idoiaga alkateak sinatu dute hitzarmena. Berez urtebeterako sinatu dute baina alkateak esan duen moduan, datozen urteetan luzatu egin ahal izango dute.

HERRIKO ERAGILEEKIN

Udaleko osoko bilkuren aretoan sinatu zuten alde biek akordioa martitzen arratsaldean. Herriko eragileak gonbidatu zituzten ekitaldira eta hantxe zeuden, adibidez, alderdi politikoetako, ikastetxeetako eta elizako ordezkariak. Gainera, hitzarmen horri esker, herriko eragileendako ikastaroak antolatuko dituztela aurreratu zuen bake zentroko zuzendariak. "Oñatiko erakunde, ikastetxe eta talde guztiei ikastaroetan parte hartzeko gonbidapena egingo diegu. Ikastaroak doan izango dira eta Arantzazun naiz erakundeak gura duen tokian emateko prest egongo gara", esan zuen Jonan Fernandezek.

GATAZKAK ETIKOKI LANTZEN

Hitzarmenarekin batera, Baketiken helburua eta lana zein den ere azaldu zien Jonan Fernandezek ekitaldira joan zirenei. Bi helburu dituela azaldu zien: "Edozeini bitartekoak eman eguneroko gatazkak etikoki lantzeko eta elkarbizitzan berradiskidetzarako prestatu". Orain arteko lanak eta datozenak ere aipatu zituen: ekainean Afrikari buruzko astea; uztailean, bake hezkuntzako nazioarteko kongresua eta urrian gazteak eta gatazkak lotzen dituzten jardunaldiak.

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

KULTURA > 'KATAIA ETEN BARIK' EGITASMOAREN BIGARREN EDIZIOA

Kulturen eta belaunaldien arteko elkartrukea bultzatzeko katea

Udaleko Euskara eta Kultura Sailek eta Bibliotekak antolatu dute

Zapatuan, liburu azoka eta munduko hizkuntzen gaineko jaia egingo dute

UDALEKO ORDEZKARIAK Kultura eta Euskara Saileetako eta Bibliotekako ordezkariak, eta alkatea. IKER BARANDIARAN

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Udaleko hainbat sailek elkarlanean bigarren aldiz *Kataia eten barik* egitasmoa antolatu dute. Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatzen duten arren, askoz izaera zabalagoa ematen diote egitarauari.

Ekimenak hiru helburu nagusi ditu: belaunaldi desberdinak elkarrengana hurbiltzea; kultura artekotasuna lantzea; eta ahozko nahiz idatzizko adierazpenei behar duten garrantzia ematea.

UDALEKO HIRU SAIL LANEAN

Ekimenak bere baitan hartzen duen emaitza oso zabala eta berezia da, eta horretan zeresana dauka hori guztia antolatzeko Udaleko hiru sail edo zerbitzu elkarlanean aritu izana: Biblioteka, Kultura Saila eta Euskara Saila.

Ekimeneko egun handiena bihar, zapatua, izango da. 18:00etatik 21:00etara bitartean liburu azoka egingo dute herriko plazan. Aurretik herritarrek Bibliotekara eramandako liburuek osatuko dute azoka. Herritarrek eramandako liburu bakoitzeko bi hartu ahal izango dituzte. Hala, txartelak emango dizkiete. Gainontzekoak Bibliotekak jarriko ditu, jakina. Bibliotekara liburuak eramateko azkeneko eguna atzokoa izan zen eta liburuak egoera onean egon behar dute.

Horrez gain, zapatuan, *Munduko hizkuntzak batuz, kataia sortuz* ekimena ere egingo dute herriko plazan. 18:00etan hasiko da, eta horren baitan, munduko dantzen erakustaldia, Arantza eta Pantxo taldearekin dantzaldia, hennazko tatuajeak, Hegoamerikako janaria eta beste egongo dira ikusgai eta dastagarri ilundu artean.

BELAUNALDIEN ELKARTRUKEA

Ekimen horren helburuetako bat da herriko belaunaldien arteko elkartrukea bultzatzea. Hala, *Asko ikusitakoak asko ikasitakoak* programaren baitan herriko aiton-amona batzuek berbaldia egingo dute gaztetxoendako maiatzaren 8an, 14:45ean, Bibliotekan. Eskoriatza eta herriko hizkera izango dituzte berbagai.

Horrez gain, martitzenean, hilaren 24an, *Eskoriatzarrak berbetan* bekaren gaineko aurkezpena egingo dute Ibarraundi museoan, 18:00etan. Beka horren helburua da euskalkia jasotzea, eta horretarako Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako nagusiei elkarrizketak egin dizkiete.

IPUINAK KANPOKO HIZKUNTZETAN

Aurtengo berrikuntzetako bat da euskaraz, arabieraz eta portugesez ipuin kontaketak egingo dituztela. Astelehenean, hilaren 23an, Antonio Monteiro Eskoriatzan bizi den portugesak *O Principe com cabeca de Cavalo - Printze Zaldiburua* liburua irakurriko du. Eguenean, hilaren 26an, berriz, Ouiame Ouchen Eskoriatzan bizi den marrokiar berebereak hainbat ipuin arabiar irakurriko ditu. Ume eta gaztetxoei zuzendutako kontaketak 18:00etan izango dira, Bibliotekan, eta jatorrizko hizkuntzak eta euskara tartekatuko dituzte.

'MUNDUA BERTAN' LEHIAKETA

Horrez gain, gaurtik, egubakoitza, hasita eta lau astez jarraian, astero galdera bat argitaratuko dute GOIENKARIAn eta *eskoriatza.net* webgunean. Lau galderak zuzen erantzuten dituztenen artean, mp4 bat eta liburu batzuk zozkatuko dituzte.

HAINBAT KATE BAT EGINDA

Belaunaldiak, kulturak eta irakurketa

Udaleko hiru zerbitzu eta sailek antolatzen dute *Kataia eten barik* ekimena. Antolatzaileek katea hartu dute oinarri. Hala, kate-begi desberdinak elkartuz sortzen dute katea. Eskoriatzarren kate-begiak herrian bizi diren belaunaldi eta kultura desberdinak dira. Hala, kanpotik etorritakoen bitartez, kultura elkartrukea egitea gura dute: euren ohitura, janaria, hizkuntza... eta beste ezagutzea, alajaina.

Horrez gain, aiton-amonak eta gazteak elkartu, eta txikienek nagusienen berri izatea gura dute. Hala, nagusiek ikasitakoa eta bizi izandakoa betirako gal ez dadin.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide froga prestatzea nahi duzu? **21** urte baino gehiago edo **2** urtetako lan esperientzia baduzu

Etor zaitez **IEFPS ARETXABALETA GLHBI**ra eta informa zaitez

Etxebarri auzoa, z/g
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
Tels.:943 79 79 00 / 943 77 09 55
E-mail: ia@iaretxabaleta.com Web orria: www.iaretxabaleta.com

IEFPS Aretxabaleta GLHBI · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila · Departamento de Educación, Universidades e Investigación · IQNet · AENOR ER · Euskadi 2006

"La memoria histórica desde el punto de vista de las mujeres"
" Nosotras que perdimos la paz "

- **Eguna:** Apirilaren 23an
- **Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan
- **Hizlaria:** Llum Quiñonero
- **Lekua:** Ibarraundi museoan

Oharra: *hitzaldia gazteleraz izango da.*

IBARRAUNDI museoa
Intxaurtxueta kalea z/g, Eskoriatza.
Telf. 943715453

> HAUTESKUNDEAK

PSE-EEk eta EB-Aralarrek jakinarazi dituzte alkategaiak

Astelehen iluntzean emango dira jakitera hauteskundeetarako alderdi eta talde guztien zerrendak. Orain arte jakin dugu Eskoriatzako PSE-EEko zerrendan Iñaki Pierruges eta Alma Fernandez izango direla lehenengo hautagaiak hurrenez hurren.

EBk eta Aralarrek zerrenda bateratua aurkeztuko dute, eta Juan Luis Merino izango da alkategaia. EA, EAJ, PP eta Elizateak, berriz, zerrendak osatzen bukatzen dabiltza, eta Ezker Abertzalearen ordezkaritza zehaztear dago.

> OROIMEN HISTORIKOA

Llum Quiñonerok berbaldia egingo du astelehenean

Astelehenean, hilaren 23an, Alacanteko Llum Quiñonero idazle, kazetari eta ekintzaile iraultzaileak berbaldia egingo du Ibarraundi museoan, 19:00etan. Quiñonerok Espainiako Trantsizioko mobilizazio politikoetan eta lehen talde feministen sorkuntzan lan egin zuen 70eko hamarkadan. Kazetaria eta idazlea ere bada, eta *Mujeres del 36* dokumentala, eta *Nosotras que perdimos la paz* liburuaren egilea ere bada.

> LEHIAKETA

'Mundua bertan' lehiaketaren lehenengo galdera

Lau astetan *Mundua bertan* lehiaketarako galderak argitaratuko ditugu. *lehiaketak @eskoriatza.net* helbidera bidali erantzunak.

Euskal bale-arrantzaren berriak XI. mendekoak badira ere, Ameriketara iritsi ziren itsas bidaiek XVI. eta XVII. mendeetan izan zuten garrantzirik handiena. Badira Ternuan arrantzaleen hilarriak. Gaur egungo euskara grafiarekin zer jartzen du hilarri honetan? (Irudia *eskoriatza.net* webgunean dago).

POLITIKA > HERRIKO PLAZAN ZABALDUKO DUTE

Maiatzean egingo dute batzokiaren inaugurazioa

EAJk batzokia izango du laster herrian. Batzokia izateaz gain, elkarte gastronomikoa ere izango da Hidalga kaleko 3. zenbakian zabalduko duten etxabea

HERRIKO PLAZAN Batzokia izateaz gain, herritarrendako elkarte gastronomikoa ere izango da. IKER BARANDIARAN

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

EAJk batzokia izango du laster Hidalga kalearen 3. zenbakian, herriko plazan. Eraikin horretan burdina lantzeko sutegia zegoen. Arrazoi horregatik elkarte berriari Errementeri izena jarri diote. EAJtik azaldu digute batzokia izateaz gainera, elkarte gastronomikoa ere izango dela. "Berez edozein herritarrendako elkarte gastronomikoa izango da, nahiz eta tarteka alderdikoen ekintza bereziak egin", azaldu zigun Eskoriatzako EAJko arduradun Josu Ezkurdiak.

Lokala 2006aren hasieran eskuratu zuen Gipuzkoako Buru Batzarrak. Horren ostean, proiektua prestatu eta lizentzia lortu zuten. Hala, lanak irailean hasi zituzten, eta asmoa da bi astean bukatzea, eta Markel Olanok eta Joseba Egibarrek inauguratzea. Eraikinaren behe aldea bakarrik hartu dute, eta han taberna eta jangela jarriko dituzte (jangelan 30 bat lagunendako lekua egongo da). Herriko lehenengo batzokia 1980an zabaldu zuten Aranaburuzabala kalean eta 1992an itxi.

Etxebizitza tasatuen zozketa ekain hasieran egingo dute

Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazo Eskoriatzan izan da astean.

Atzo, eguena, Santa Marina inguruan egin gura dituzten etxebizitza tasatuen lanak ikustera etorri zen. Horren harira, Udaleko ordezkariek jakinarazi zuten etxebizitzen zozketa ekainaren lehenengo hamabostaldian egingo dutela.

IKER BARANDIARAN

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



FAGOR
Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01
MONDRAGON

> MUSIKA

Bergarako Musika Eskolako Bandaren kalejira gaur

Gaur, egubakoitza, Bergarako Musika Eskolako Bandak kalejira egingo du Antzuolako kaleetan zehar. 19:00etan, Herriko Plazan hasiko dute kalejira. Bergarako Musika Eskolak hirugarren urtez antolatu du *Apirilean Musika* egitaraua eta horren barruan antolatu dute gaurko Antzuolako kalejira hori.

Musika Eskolako 40 musikarik osatzen dute banda. Horietatik, bost gaztetxo Antzuolakoak dira; hortaz, gaur arratsaldean euren herritarren aurrean jarduteko aukera izango dute.

> ATXILOKETA

Ustez koinatua erasotzeagatik gizon bat atxilotu zuten

Apirilaren 10ean, martitzena, Ertzaintzak gizonezko bat atxilotu zuen Antzuolan, ustez koinatua erasotzeagatik. Eguerdi aldean, atxilotutako gizonezkoa bere koinatuaren etxera joan eta atea aizkora batekin kolpatu ondoren, koinatua zauritu zuen beso baten.

Badirudi eztabaida izan zutela herentzia bat zela eta. Biktimak atea ixtea lortu zuen, baina, zauria zuen besoan eta ospitalera eraman behar izan zuten. Jakin dugunaren arabera, atxilotutako gizonezkoa ordu batzuetara aske geratu zen.

GIZARTE ETXEA Adinekoendako hainbat zerbitzu eskainiko ditu Udalak Sagastiko eraikinean. A.I.

MUSIKA > GAUR, BIHAR ETA ETZI HAINBAT MUSIKA EMANALDI HERRIKO GAZTETXOEN ESKUTIK

Ekainean bukatuko dute Sagasti auzoko eraikina

Diputazioak 291.500 euroko diru laguntza emango du Sagastiko eraikinean jarriko dituzten adinekoendako zerbitzu berriak abian jartzeko

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Martxo amaieran Diputazioko eta Udaleko agintariek egindako agerraldiak albiste ugari ekarri zizkigun. Besteak beste, Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatuak eta alkateak hitzarmena sinatu zuten; hitzarmen horren arabera, Diputazioak 291.500 euroko dirulaguntza emango dio Udalari, Sagastiko Gizarte eta Kultura Etxean adinekoendako zerbitzu berriak abian jartzeko.

Eguneko zentroa, babespeko etxebizitzak eta erretiratuen egoitza jarriko dituzte hantxe.

ZERBITZU GUZTIAK BATERATUTA

Adinekoendako zerbitzuen gainean hainbat datu eman zituen Jose Angel Zabalo alkateak. Esaterako, eguneko zentroa 09:00etatik 17:00etara egongo dela zabalik.

Bestalde, azaldu zuen babespeko bost etxebizitza egingo dituztela, hamar lagunendako. Euren kabuz mugitzeko gai direnendako dira etxebizitzok. Erretiratuen egoitza ere hantxe egongo da. Ekainean bukatuko dute eraikina eraikitzen; aurten jarriko dituzte abian zerbitzuak.

KULTURA > ZAZPI IPUINEKIN OSATU DUTE LIBURUA

Patxiko Txerren ipuingintzako ipuin liburua bihar, zapatua, aurkeztuko dute liburutegian

A.I. > ANTZUOLA

Aurten Patxiko Txerren Ipuingintzaren hamargarren aldia izan da eta 97 neska-mutikok parte hartu dute. Lehenengo mailatik seigarren mailara arteko ikasle gehienek aurkeztu dituzte euren ipuinak. Parte hartzea oso handia izan da; horretan lan handia egiten dute eskolako irakasleek.

Zazpi ipuin aukeratu dituzte eta liburu baten argitaratuko dituzte. Maila bakoitzeko ipuin bat eta seigarren mailako bi aukeratu dituzte. Bihar, zapatua, egingo dute liburuaren aurkezpena, Udal Liburutegian. 18:00etan hasiko dute ekitaldia, Apika taldekoen ipuin kontaketarekin.

Patxiko Txerren izena hartzen du ekimen horrek; Antero Apaolaza antzuolar jatorriko idazlearen eleberri baten izenburua da Patxiko Txerren.

bere ustez

Iraia Gabilondo

Jokalari bat jokoz kanpo

Edozein iritzi azaldu ahal izatea, beti izan beharko litzateke posible. Gustatu ez arren beste batek dioena, ezin da haren hitza isildu eta are gutxiago adierazteko dituen bideak moztu.

Ezin da bere uste, pentsamendu edo ideia ezberdinak dituena inolaz ere zigortu. Ezin da joko batean guztiontzat arau berdinak daudela esan, ondoren jokalari bati ezarrita ez dagoen baldintza bat betetzea eskatzen bazaio. Ezin da inor derrigortu pentsamendu zehatz bat izatera, ekintzak soilik kontuan hartzen diren joko batean. Ezin zaio ukatu arazoaren zati denari, konponketaren zati izatea.

"Ezin zaio ukatu arazoaren zati denari konponketaren zati izatea"

Ez da logikoa, taldean jardun behar dugunean, taldekide baten ahotsa isilaraztea, beste guztiak bilera-gelan bildurik dauden bitartean, taldekide bat atearen beste aldean egotea. Ez da logikoa guztiok parte hartu dezakegula esan eta ondoren parte hartzen ez uztea.

Ez da zilegi sistema demokratikoa daukala dioen nazio batek, sistema hori kudeatzeko beharrezko diren elementuak, alderdi politikoak, sortzeko eta iraunarazteko horrenbesteko zailtasunak jartzea.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

HAUTESKUNDEAK > HAUTESLE-ZERRENDA BAT ELGETAN

Patxi Basauri alkategai aurkeztu dute berriz ere

Abertzale Sozialistak sinadura bilketa egin du eta Aralarrek, berriz, batzar irekia

G.A./L.Z. > ELGETA

EAJ eta EA ez dira alderdi moduan maiatzeko udal hauteskundeetan Elgetako alkatetzara aurkeztuko. Patxi Basauri alkatea, ordea, berriz ere aurkeztuko da alkategai herrian.

Sortu berri den hautesle-elkarte bateko zerrenda-burua izango da Basauri. Azken bi agintaldietan EA eta EAJ elkarrekin joan dira Elgetan eta koalizioaren balorazio positiboa egiten dute bi alderdietako kideek.

Horregatik, hautesle-elkarte berri bat osatzea erabaki dute. Funtsean horren atzean egongo den taldea orain arteko bera izango da.

Elgetako gainerako alderdiak ere lanean dihardute. Abertzale Sozialistak hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko sinadura bilketa burutu du egunotan. Aralarrek, berriz, batzar irekia egin zuen atzo, eguena.

BI ZINEGOTZI GEHIAGO

Elgetako Udalak zinegotzi gehiago izango ditu maiatzeko udal hauteskundeen ondotik. Horren arrazoia biztanle kopuruak gora egin izana da. Elgetan, zazpi zinegotzi ditugu egun eta bederatzi izango ditugu maiatzaren 27tik aurrera.

ERRETIRATUAK > ZEZILIO TOTORIKAGUENAK JARRAITUKO DU ELKARTEKO PRESIDENTE

Elgetako erretiratuak pozik Ozkarbi elkartean jarraitu ahal izango dutelako

Udalak, azkenean, eman egingo ditu Ozkarbin jarraitu ahal izateko Erretiratu Elkarteak behar dituen 10.300 euroak

ERRETIRATUAK Udalak 10.300 euro emango dituela jakinarazi du. ARTXIBOA

I.B/L.Z. > ELGETA

Pozik daude Elgetako Erretiratu Elkarteko kideak. Euren etorkizuna zalantzan egon da ia urtebetean, baina azkenean eskatutako 10.300 euroak emango ditu Udalak. Negoziazioak luze jo du. Azkenean, baina, erretiratuek Ozkarbi elkartean jarraituko dute.

"Bazen garaia", esan dio GOIENKARIAri elkarteko presidente Zezilio Totorikaguenak. "Urtebete pasatxo ibili gara gai honekin atzera eta aurrera". Hala, Ozkarbi elkarteak egoitzan jarraitzeagatik eskatutako dirua ordaintzeko moduan izango dira erretiratuak.

JARRAIPENA ZUZENDARITZAN

Urteko batzar orokorra egin berria dute Elgetako Erretiratuek. Bertan, Zuzendaritza Batzorde berria onartu zuten.

Aldaketa gutxi egongo da. Zezilio Totorikaguenak jarraituko du presidente, Pedro Mari Uberak presidenteorde, Guadalupe Ibarbiak idazkari eta Joaquin Gaztezik diruzain. Nati Arrieta, Mertxe Elorriaga eta Irene Bolinagak osatzen dute batzordea. Azken hau da batzordean sartu den kide berri bakarra. "Ez dugu erreleborik eta guk jarraitzen dugu, baina zerbait pentsatu beharra daukagu", esan du Totorikaguenak.

IKUSKIZUNAK > HIRUGARREN URTEZ MAGIA MOSTRA EGINGO DA MAIATZAREN 4, 5 ETA 6AN

Berriz ere sinistu ezindako magiaz gozatzeko aukera egongo da Elgetako Magia Mostran

Magia eta manipulazio ikuskizunez gain, umorea, originaltasun, dotorezia eta ilusionismoa izango dira protagonista Mostran

L. Z. > ELGETA

Prest dute III. Magia Mostra Espaloian. Antolatzaileen esanetan ikuskizun guztiz berritzaileak ekarriko dituzte Elgetara maiatzaren 4tik 6ra bitartean.

Barikuan, maiatzak 4, kartomagia modernoan handiena den Roberto Giobbi mago suitzarra izango da Espaloian. Magia munduko teoriko handienetarikoa eta gainerako kartomagoendako erreferentzia garrantzitsuenetarikoa da suitzarra. Kartomagiaren inguruko liburu asko ditu dagoeneko argitaratuta.

ILUSIOA Hirugarren urtez magiaren ilusioaz gozatzeko aukera Elgetan. GOIENKARIA

MAGIA ESPERIMENTALA

Zapaturako, maiatzak 5, inoiz baino Magia Gala ikusgarriagoa antolatu dutela esan dio GOIENAKARIAri Jose Angel Suarez antolatzaileak. Murphy, Raul Alegria, Nacho Diago, Luis Manuel eta Yunke magoak egingo dute. Magia esperimentala egingo dute, besteak beste.

Domekan, maiatzak 6, kaleko magia eta globoflexia egingo dira.

BASERRITARRAK > BEIZURAKO BIDEA GARBITUKO DUTE

Azken egunak gasolioaren gaineko laguntzak eskatzeko

Hilaren 30ean bukatzen da epea gasolioaren gaineko laguntzak eskatzeko

L.Z. > ELGETA

Nekazaritza jardueretan erabilitako gasolioagatik dirulaguntzak eskatzeko aukera dute nekazari eta abeltzainek.

Laguntzak jasotzeko fakturak eta makinaren datuak aurkeztu behar dituzte baserritarrek. Eskaera Bergarako Nekazal Bulegoan egin behar dute, astelehen, eguen eta barikutan. Azken egunak dira, epea hilaren 30ean agortzen da-eta.

BEIZURAKO BIDEA GARBITZEKO

Bestalde, udal jabetzako bideen garbiketari dagokionez aurtengoan Beizu baserriko bidea garbitzea onartu da. Auzolanean egingo denez garaiz aterako du Udalak deialdia eta partaidetza duten jabeen zerrenda.

Bestalde, baserritarrek udaletxe azpian dituzte postontzi berriak. Hauek babesteko armairua jartzeko eskaera jaso zen azkeneko batzordean. Patxi Basauri alkateak jakinarazi du udal aparejadorea aurrekontua prestatzen ari dela dagoeneko.

> FUTBOLA

Maiatzean zortzi afari jarriko ditu jokoan Elgetako futbol taldeak

Zozketarako txartelak salgai daude dagoeneko. Euro bat ordainduta zortzi afari eskuratzeko aukera emango du Elgetako taldeak. Maiatzaren 2, 3, 4 eta 6an egongo dira jokoan sariok eta afariak Ostatu, Iñaki, Bolatoki eta Espaloia ostatuetan izango dira.

Taldeak, asteburuan Irunen jokatuko du Mariñoren aurka.

> BOLETA

Zapatuan, 17:00etan Gipuzkoako txapelketako 5. saioa jokatuko da

Aurreko lau jardunaldietan bataz beste 75 lagunek hartu dute parte. Bihar, zapatua, Bolatokian egingo den jardunaldian lagun ugari espero dira, beraz.

Momentuz, Bittor Astigarraga da sailkapenean nagusi 21 txirlo botata. Atzetik ditu Jon Aranda (18 txirlo), J.M. Varela (17 txirlo) eta Sebas Arantzabal (16 txirlo).

> IKUSKIZUNAK

'Munduko kontu kontalariak' jaialdiko ikuskizuna Espaloian

Zapatuan, 22.30ean, Vivo del Cuento (Andaluzia) eta Caos (Kolonbia) kontu kontalariak izango dira Espaloian. *Munduko Kontu Kontalariak 07* jaialdiaren hamar emanaldietako bat izango da hau. Bakoitzak bere istorioak eta ipuinak transmitituko ditu. Elgetan ipuin musikatuak izango dira, besteak beste.

KULTURA > LAGUN ARTEA DANTZA TALDEAREN 50. URTEURENA

Domekan, 100 bat herritarrek dantza saioa egingo dute kiroldegian

Bazkaria ere egingo dute kiroldegian, 200 bat lagunek; horrekin eta bestelako ekitaldiekin ospatuko dute dantza taldearen 50. urteurrena

UBANE MADERA > ARAMAIO

Bihar, zapatua, 10:30ean egin dute hitzordua kiroldegian domekako dantza saiorako entsegu orokorra egiteko. Hori horrela, dei berezia egin diete partehartzaileei entsegura joateko.

Gero, domekan, eguerdian hasiko dituzte Lagun Artea dantza taldearen 50. urteurreneko ospakizun ekitaldiak, 12:00etan meza esango dute-eta parrokian. Haren ostean, kultura etxerako bidea hartuko dute. Izan ere, hango paneletan zintzilikatu dute azken hilabeteotan batzen ibili diren argazki zaharrekin egindako muntaia. Bizente Mondragon aramaioarrak egin du lan hori.

Bestalde, kultura etxean bertan, omenaldi txikitxo bat egingo dutela ere aurreratu dute ospakizuna antolatzen dabiltzanek, baina sorpresa izango dela azpimarratu dute eta ez dute bestelako pistarik eman.

DANTZA SAIO ERRALDOIA

Omenaldi horren ostean, kiroldegira joango dira guztiak, han dantza saioa egingo dutelako. Benetan handia izango da saioa. Izan ere, dantzari eta txistulariak kontuan hartuta, 100 bat lagunek parte hartuko du. "Orain dela 50 urte Lagun Artea taldeko kide izan zirenetatik hasi eta oraingo kideetaraino, adin guztietako dantzariak izango dira", adierazi du Ainara Inuntziagak, dantza taldeko oraingo arduradunak.

Hark gogorarazi du urtarriletik dabiltzala urteurrenerako dantzak entseatzen eta lan handia izan bada ere, gaineratu du merezi izan duela: "Oso ondo pasatu dugu. Parte hartu duen jende asko kanpoan bizi da aspaldi eta ez dute elkar sarri ikusten. Entseguek harremanak egiteko edo sendotzeko balio izan dute".

Horren guztiaren emaitza izango da etzi kiroldegian erakutsiko dutena. Xehetasunei dagokienez, egingo dituzten dantza batzuk zeintzuk diren aurreratu ditu Inuntziagak: nesken zinta dantza, painelue, mutilen arku dantza, nesken arku dantza eta txankarrenkua.

200 LAGUN BAZKALTZEN

Dantza saioaren ostean, berriz, bazkaria egingo dute, kiroldegian. 200 bat txartel salduta dituzte, beraz, herritar ugarik parte hartuko du ekimenean.

Ospakizunekin bukatzeko, Jose Gardokirekin dantzaldia izango dute, bazkal ostean.

Besteak beste, urteurreneko ospakizunetara gonbidatu dituzte Lagun Artea taldearen sorrera bultzatu zuten Gasteizko Oldarki dantza taldeko ordezkariak.



GASTEIZEN Lagun Artea taldeak Gasteizen egindako saioa, 1961eko San Prudentzioko Erretretan. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

KULTURA > ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALA

"Oso trankil" dago Agirre biharko finalari begira

Arabako Bertsolari Txapelketako sei finalistetako bat da Manex Agirre aramaioarra

U.M. > ARAMAIO

Bihar, zapatua, jokatuko dute aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketako finala, Gasteizko Jesus Guridi auditorioan. Hitzordua da 17:00ean.

Sei bertsolari lehiatuko dira. Eta beste urte batez, Aramaioko ordezkaritza ere izango da, Manex Agirreren eskutik. Hark honako bostak izango ditu aurrean: Zigor Enbeita, Iñaki Viñaspre, Asier Otamendi, Oihane Perea eta Juan Mari Juaristi.

Bertsolari aramaioarrak esandakoaren arabera, lehia gogorra izango dute finaleko saioan, "guztiek nahi dute-eta eskuratu txapela. Ikusmin handia izango da eta saio polita izango da. Gainera, jende gehiago etorriko dela ere espero dugu".

Bere buruari dagokionez, "oso trankil" dagoela dio Manex Agirrek "beste urteetan baino trankilago oraingoz. Pentsatzen dut zapatu goizetik aurrera etorriko direla nerbioak".

Kiniela bat egiteko eskatzean, berriz, Oihane Perearen alde egin du: "Gogor ikusten dut. Bertso-kabareta egin dute aurten eta saio asko izan ditu". Dena den, edozer pasa daiteke bihar.

LEHIAKETAN Manex Agirre (erdian) aurtengo lehiaketako saio baten. GOIENKARIA

AHT > HERRI GALDEKETA

AHTren gaineko herri galdeketa egingo dute udal eta foru hauteskundeetan

Abiadura Handiko Trenaren gainean aramaioarrek duten iritzia jakiteko herri galdeketa maiatzaren 27an egingo dute

U.M.> ARAMAIO

Makinatxo bat gorabehera izan eta gero, azkenean adostu dute udal eta foru hauteskundeen egun berean egingo dutela Abiadura Handiko Trenaren gaineko herri galdeketa. Maiatzaren 27an, beraz. Kultura etxean egingo dutela ere adostu dute.

Herri galdeketa antolatzeko osatutako taldean adostu dute data hori. Taldean EAJ, EA eta AHTren kontrako taldeko ordezkari bina dago. Hain zuzen, EAko eta AHTren kontrako taldeko kideen aldeko botoekin onartu zuten herri galdeketaren data.

EAJk, berriz, kontra bozkatu zuen. Mertxe Mondragon alkateak argitu duenez, "ikusi genuen ez dela nahastu behar bata bestearekin. Hau da, hauteskundeetan nahiko nahasteborraste izaten da, etxera paper mordoa iristen zaigu... ez zitzaigun aproposa iruditu biak nahastea. Dena den, gu data horrekin konforme egon ez arren, taldean halaxe atera zen eta guk onartu egingo dugu".

Herri galdeketa maiatzaren 27an egitearen aldekoek, berriz, pozik hartu dute erabakia: "Uste dugu oso inportantea dela egun horretan egitea, jende guztia handik pasako delako. Hori aprobetxatu egin behar dela uste dugu, galdeketa ahalik eta partehartzaileena izan dadin".

Herri galdeketaren gaineko xehetasunei dagokienez, berriz, laster zehaztuko dituzte.

UDALA > DATORREN LEGEGINTZALDIA

Zazpi zinegotzi izango ditu Udalak hurrengo legegintzaldian

250 biztanletik gorako herriei 7 zinegotzi dagokie, eta Gatzagak 257 zituen 2006ko urtarrilean

Emakume bila ibili dira zerrenda osatzeko, eta martitzenean batzarra egin zuten eurekin

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Hilabete pasatxo geratzen da hauteskundeetarako eta hautagaien zerrendak aurkezteko epea astelehenean bukatuko da. Gatzagako Udalak, oraintsu jakin du bost zinegotzik beharrean zazpik osatuko dutela udalbatzarra hurrengo legegintzaldian.

BOSTETIK ZAZPI ZINEGOTZIRA

Gainean ditugu maiatzaren 27ko hauteskundeak eta zerrenda osatu guran ibili dira egunotan Gatzagan. Baina bost izeneko zerrenda beharrean, zazpikoa egin behar dute. Errolda datuak zehazten du zenbat zinegotzi izan herri bakoitzak eta 250 biztanle arteko Udalari bost zinegotzi dagokio. 2007ko urtarrilaren 1ean 250 biztanle zituen erroldatuta Gatzagak, baina 2006ko urtarrilaren 1eko datua hartu dute oinarri, eta orduan 257 biztanle zeuden. Hala bada, datozen lau urteotan bi zinegotzi gehiago izango ditu udalbatzarrak.

EMAKUMEEKIN BATZARRA

Hauteskunde Batzordeari hautagaien zerrendak aurkezteko epea astelehenean, hilaren 23an, bukatuko da. Gatzagako zerrendak zazpi izen izango ditu, eta gura izanez gero ordezkoren bat jar dezakete; baina ez da derrigorrezkoa. Gizon eta emakumeen arteko parekotasuna betetzera ere ez daude behartuta. Biztanle kopuruak zehazten du hori ere, eta Gatzagan ez daude emakumeak sartzera derrigortuta. Hala ere, zerrenda osatzen ibili direnek emakumeak gura zituzten, eta ahalegin handia egin dute eurak animatzen. Martitzenean, hain zuzen, batzarra egin zuten emakumeekin. Antolatzaileak pozik azaldu ziren: "Hainbat etorri ziren batzarrera eta interesa dagoelako izango zen".

HERRITARREI GALDEKETA

Eguaztenean oraindik zerrenda osatu barik zeukaten, baina astelehena bitartean osatzeko asmoa erakutsi ziguten. Hauteskunde kanpainarik ez dutela egingo ere aurreratu ziguten, baina bai eman gura dute lan egiteko eraren berri: "Herriak hurrengo urteotan norantz jo jakiteko herritarren iritzia jakin gura dugu, ahal den herritar guztiena", eta horretarako galdeketa egingo dute.

POSTA BIDEZ, ESKORIATZARA

Gatzagan aurkeztuko den taldea azken urteotan legez independentea izango da. Hori horrela, Udal hauteskundeetarako plataforma osatzeko sinadura batzerik ez dute egin; bai, ostera, Batzar Nagusietarako. Atzo, eguena, bukatu zen sinatzeko epea.

Bestalde, maiatzaren 27an kanpoan egongo diren gatzagarrek posta bidez aurretik bozkatzeko aukera daukate. Horretarako Eskoriatzako postetxera jo behar dute. Bozkatzeko agiriak eskatzeko azken eguna maiatzaren 17a da. Eta posta bidez botoa emateko azken eguna, 23a.

> INTERNET

Kontsumitzaileen eskubideen gaineko ikastaroa KZgunean

Astelehenean, hilaren 23an, kontsumitzaileek dituzten eskubideen gaineko ikastaroa egingo dute KZgunean; 18:00etatik 20:00etara izango da. Gainera, Aitor Madrid arduraduna 16:00etarako etorriko da Pilar kaleko egoitzara, eta herritarrek Interneten gainean dituzten zalantzak argitzeko aukera izango dute. Hurrengo ikastaroa maiatzaren 7an izango da.

> LANAK

Udaletxe alboko parkeari hesia jartzea falta zaio

Udaletxe alboan dagoen parkean oraindik ez dituzte bukatu berritze lanak. Atzeko partean dagoen hormaren gainean hesia jarri behar dute lehenengo, eta txintxaunak gero. Bai hesia, bai txintxaunak eskatuta dauzkate, eta laster jasoko dituztelakoan daude Udaleko kideak.

Errepidea konpontzen ibili dira Arlabanen

Zulo handiak eta gorabehera asko zituen Arlabango errepideak, eta neguan, elurra egin zuen egunetan, botatako gatz kopuru handiak okertu egin zuen egoera. Hori horrela, konpontzea erabaki du Aldundiak, eta eguraldia lagun, astean bertan ibili dira. Gure Ametsa jatetxe paretik hasi ziren eta handik Eskoriatzarantz jaitsi poliki-poliki. Konponketa lanok egiteko errepide tarteak itxi egiten zituzten, eta auto gidariek pazientziaz jasan behar izan dituzte ilarak.

M.A.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Aretxabaleta, Eskoriatza, Olalde eta Ozkarbi Pilota Taldeak 06-07 astelehen honetan, *Asteleheneko Goienkaria*-rekin

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.
Oraingo astelehenean, apirilak 23, Aretxabaleta, Eskoriatza, Olalde eta Ozkarbi Pilota Taldearenak argitaratuko ditugu.
Elkarteetako pilotari guztiak lau argazkitan, pilotari eta arduradunen izen-abizenekin jasoko duzu.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria.*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

MENDIKO LASTERKETA > ALOÑAKO 3. IGOERA

Inoiz baino parte-hartze handiagoa izango du Aloñako Igoerak

DOMEKAN 10:30ean hasiko dute lasterketa plazan, eta kanposantutik San Juaneko ermitarako bidea hartuko dute 271 korrikalariek

GOGORRA Proba luzea izan barik, daukan desnibel handiak (2.200 metro) egutegiko proba gogorrenetakoa bilakatzen du

GUNE ERABAKIGARRIA Iaz, aurreko postuetako taldetxoa, Urtiagaineko aparkalekutik (490 me

XABIER URTZELAI > OÑATI

Hirugarren urtez, antolatzaileek dena dute gertu domekan Aloñako igoera arrakastatsua izan dadin. Eguraldiak laguntzea bakarrik falta da, Aloñako maldek eta lasterkariek ipiniko dute-eta gatza eta piperra, baita ibilbidean zehar batuko diren mendizale guztiek ere, animuak ematen. Hala, antolatzaileak domekan egingo duen eguraldiarekin arduratuta egon badira ere, aurreikuspenek diote eguraldi txukuna izango dela, tarteka lainoak egongo badira ere, eguzkiak joko duela: "Izan ere, pena litzateke euria egitea, eguraldi txarrarekin Aloñako tontorrean ez da-eta giro izaten. Jendeak denboratxoa egiten du korrikalarien zain, eta eguraldiak laguntzen badu, askoz ere hobeto", esan digu antolatzaile lanetan dabilen Xanti Mendiolak.

Zain egongo diren ikusleendako bakarrik ez, lasterketan parte hartuko duten korrikalariendako ere garrantzitsua da euririk ez egitea: "Ibilbidea lokaztuta baldin badago, leku batzuetan arriskutsua izan daiteke. Igotzerakoan ez da horrenbeste igarriko, baina Aloñatik jaistea beste kontu bat da. Kontuan izan, lasterkariek tontorretik herriraino 1.000 metro jaisten dituztela. Hala, goiko zatia belarduna bada ere, Belarretik behera harriz betetako malda handia dago, eta ez da komeni hori bustita egotea".

> **"Jendeak denboratxoa egiten du Aloñako tontorrean korrikalarien zain, eta eguraldiak lagundu egiten badu, askoz ere hobeto"**

> **"Bero larregi egitea ere ez da komeni; orain dela bi urte bero egin zuen, eta korrikalariak oinak egosita zituztela iritsi ziren helmugara; proba gogorraren fama hartu genuen"**

Eguraldiaren gainean berbetan, bero handiegia egitea ere kaltegarria dela esan digu Mandiolak: "Orain dela bi urte bero handia egin zuen, eta lasterkariak oinak egosita iritsi ziren helmugara. Lehenengo lasterketa izan zen hura, eta proba gogorraren fama hartu zuen. Jendeak erakutsi du gero gustuko lasterketa bilakatu dela".

ANTOLATZAILEAK, POZIK

Aurreratu moduan, 271 lagunek hartuko dute esku domekan Aloñako Igoeran. Izenemateari dagokionez errekorra gainditu dute: "Hasieran bageneukan beldur apur bat, astero-astero mendi lasterketak egoten direlako inguruan. Baina parte-hartze kopuruak erakusten du aurreko edizioetan jendea zapore gozoarekin geratu dela".

Hala, euskal selekzioko atletak etorriko ez badira ere –beste

BEHERAKO BIDEAN Tontorra eginda, korrikalariak gurutzea atzean utzi eta Oñatirako bidean. GOIENKARIA

tro) gora egiten, Belarrera bidean; jaitsiera erabakigarria izan zen. x.u.

hitzordu bat dute–, aurreko edizioetan aurrean ibili direnak lehiatuko dira domekan, "Ionut Zinca ez da etorriko, baina Xabier Olabarria –2005eko bigarren sailkatua– edo Imanol Etxeberria –iaz Aloñako tontorrera lehenengo iritsi zen– bezalako korrikalariak Oñatin izango dira. Badakigu korrikalari asko debagoiendarrak direla. Adibidez, 40 korrikalari oñatiarrak izango dira". Atleta horiekin batera, azpimarratzeko moduko izenak dira Arkaitz Zamakola, Julen Garitano edo Mikel Navarro. Nesketan, berriz, antolatzaileek dagoeneko badakite Nerea Amilibia eta Leire Ezpeleta irteeran izango direla. Horiek dira aurrealdean ibiliko diren hainbat atleta, baina kontuz sorpresekin. Bistan dagoena da gaitza izango dela Ionut Zincak iaz ezarritako marka hobetzea (1:13:23).

ALDAKETA BARIK

Aurtengo edizioan ibilbidean aldaketak egingo zituztela entzun izan bada ere, azkenean ez da horrelakorik egongo. Hala, plazatik kanposantura eta handik San Juan ermitara egingo dute korrikalariek. Arregirako bidea hartuko dute hor, eta Lamiategira jaisterakoan ezkerretara egin eta Urtiagain (490 metro) izango dute helburu. Malda gogorrak izango dituzte aurrean: Belar (922 metro) eta Aloñako gurutzea (1.288 metro). Tontorra eginda, atletek utzi egingo diote igotzeari, baina ez dute bide makala izango: Uribarritik egingo dute itzulerako bidea, Lezesarriko auzotik igaro eta San Estebango ermitatik Oñatira jaitsi.

GUZTIENDAKO SARIAK

Lasterketan lau kategoria egongo dira: gizonezko seniorrak, (18-44 urte), gizonezko beteranoak (45 urtetik gora), emakumezko seniorrak (18-39 urte) eta emakumezko beteranoak (40 urtetik gora). Senior mailan lehenengo helmugaratzen diren gizonezko eta emakumezkoak 300 euro poltsikoratuko dituzte, bi lagunendako bazkaria Etxe-Aundin, txapela eta garaikurra. 200 euro izango dituzte bigarren helmugaratzen direnek; 100 euro hirugarrenek; 75 euro laugarrenek eta 50 euro bosgarren iristen direnendako.

Beterano azkarrenendako ere sariak gorde dituzte antolatzaileek, Aloñako tontorrera lehenengo iristen denak ere sari berezia izango du, eta baita igoeran parte hartzen duten korrikalari guztiek ere (kirol materiala).

2.200 metroko desnibel metatua duen proba

15,5 kilometroko ibilbidean, korrikalariek 2.200 metroko desnibel metatuari egin beharko diote aurre. Ibilbidean lasterkariek sei postu izango dituzte edariak hartzeko, eta hiru postutan izango dituzte jatekoak. Lehenengoak ordu eta erdi inguruan egingo du proba.



Aloñako igoerako profila, hainbat argibiderekin. WWW.ALOINA.NET

> TENISA

Zabalik dago Debagoieneko Lagunarteko II. Tenis Txapelketako izenemate epea

Apiriletik uztailera arte egingo dute Debagoieneko Lagunarteko II. Tenis Txapelketa, eta dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatuko dituzte partiduak, eta txapelketan izena eman gura duenak 943 71 63 75 telefono zenbakira deitzea baino ez du. Bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 20 euro.

Txapelketako sistemari dagokionez, lehenengo fasea liga erara egingo dute. Hala, izenemate kopuruaren arabera antolatuko dituzte multzo kopuruak. Txapelketako bigarren fasea, berriz, kanporaketa bidez egingo dute. Hau da, final-laurdenak, finalerdiak eta finala. Izenemate epea amaituta, antolatzaileek egutegia prestatuko dute. Hala, jokalariren batek norgehiagoka batera ezin badu joan, ezinbestekoa izango da kiroldegian abisua ematea. Bestela, txapelketatik kanporatua izango da.

> PILOTA

Arrasateko, Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoritzako pilotariak Herri Arteko Txapelketan

Oraingo astean aurkeztu dute Donostian Herri Arteko-Kutxa pilota txapelketa. Txapelketa horretan hiru kategoria izango dira: esku pilota, pala eta zesta punta. Hala, ibarreko ordezkariak esku pilotan jardungo dira.

Guztira 22 herritako pilotariak lehiatuko dira txapelketa horretan, eta tartean izango dira Arrasateko, Aretxabaletako, Bergarako eta Eskoriatzako pilotariak. Zozketari dagokionez, ibarreko lau taldeak multzo berean daude, baina Arrasatek eta Bergarak zorte handiagoa izan dute, ez dute-eta lehenengo kanporaketa jokatu behar izango. Aretxabaletak Astigarragaren kontra jokatuko du, eta irabazleak Arrasate izango du zain. Bergarak, berriz, Asteasuren eta Zarautzen norgehiagokaren arteko irabazlearen kontra jokatuko du lehenengo partidua. Eskoriatzako pilotariek, azkenik, Ataungo mutilak izango dituzte zain.

> MENDIA

Oñatiko Larraña institutuan 'Segurtasuna mendian' izeneko ikastaroa antolatu dute

Maiatzaren 16tik 31ra arte egingo dute *Segurtasuna mendian* izeneko ikastaroa, baina dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Institutuan bertan eman ahal da izena, edo bestela 943 78 12 68 edo 665 70 27 01 telefono zenbakietara deituta.

Ikastaroko programari dagokionez, Gloria Latasak emango du meteorologiari dagokion ikasgaia. Ikasgai horretan, eguraldiaren mapak interpretatzen, hodeiak bereizten eta mendiko eguraldia ezagutzen irakatsiko du Latasak. San Prudentzioko Gurutze Gorriko lagunek emango dute lehen sorospenen gaineko ikasgaia, eta Pedro Becerrilen esku egongo da segurtasunerako materialaren erabilera erakustea, eta erreskate prozedurak zeintzuk diren azaltzea. Azkenik, Aktiba turismo aktiboko enpresen elkartea arduratuko da lan arriskuen prebentzio plangintza eta erantzunkizun zibileko aseguruak azaltzeaz.

> KARATEA

Shotokan txapelketa antolatuko dute 12. aldiz Oñatin

Domekan 10:00etan hasiko da Zubikoako pilotalekuan egingo duten txapelketa. Hiruko torneoa egingo dute Oñatiko, Bergarako eta Eibarko karatekek. Aurre-benjamin, benjamin, alebin eta infantil mailako karatekak lehiatuko dira, kata modalitatean.

UZTAILAN
FAMILIA
IRLANDARREKIN
ELKARBIZITZA
parlance-idiomas.com
943 77 06 83

FUTBOLIN TXAPELKETA
Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)
BTLS 7 JOKU AUTOMATIKOAK
www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051
Antzuola: Mox – Surpe **Aretxabaleta:** Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate:** Biona – Iturriotz Equs – Udala – Wiskeria **Bergara:** Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor **Eskoriatza:** Aldatz – Naira **Oñati:** Arrano – Ongi – Otamendi

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila
Reala-Atletico de Madrid
Zapatua. 20:00. Anoeta.

Preferente maila
Aloña Mendi-Zestoa
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Hondarribia
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

Aretxabaleta-Mutriku
Domeka. 16:30. Ibarra.

Lehen erregionala
Usurbil-Bergara
Zapatua. 16:30. Usurbil.

Bigarren erregionala. Igoera fasea
BTLS-Ikasberri
Domeka. 18:00. Ipintza.

Mariño-Elgeta
Domeka. 16:00. Irun.

Gazteak-Antzuola
Zapatua. 15:30. Unbe.

Bigarren erregionala. Kopa txapelketa
Urki-Mondra
Zapatua. 15:30. Unbe.

Aretxabaleta-Eibartarrak
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea
Burumendi-Mondra
Domeka. 16:30. Mutriku.

Elgoibar-Aretxabaleta
Zapatua. 18:30. Mintxeta.

Aloña Mendi-Anaitasuna
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

Ohorezko mailako gazteak. Jaitsiera fasea eta Kopa
Urola-Bergara
Zapatua. 16:00. Argixao.

Lehen mailako gazteak. Igoera fasea
Hernani-Arizmendi Aretx. B
Domeka. 16:30. Zubipe.

Lehen mailako gazteak. Kopa txapelketa
Arrasate-Urki
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

Bergara-Zarautz
Zapatua. 16:00. Agorrosin.

Zestoa-Antzuola
Zapatua. 16:30. Zubiaurre.

Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea
Bergara-Kostkas
Domeka. 11:00. Ipintza.

Arizmendi Aretx.-Vasconia
Domeka. 11:00. Ibarra.

Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea
Allerru-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Plazeta.

Arrasate-Lagun Onak
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.

Lehen mailako kadeteak. Kopa Txapelketa
Soraluze-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:00. Ezozia.

Amaikak Bat-Bergara
Domeka. 16:00. Deba.

Ohorezko mailako infantilak. Txapeldunen fasea
Ordizia-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 15:30. Altamira.

Ohorezko mailako infantilak. Jaitsiera fasea eta Kopa
Lagun Onak-Arrasate
Zapatua. 15:00. Garmendipe.

Aloña Mendi-Santo Tomas
Domeka. 11:30. Ibarra.

Lehen mailako infantilak. Igoera fasea
Bergara-Pasajes
Domeka. 12:30. Agorrosin.

Infantil txikiak. Kopa
Zarautz-Arizmendi Aretx.
Domeka. 11:30. Asti-Txiki.

Kadete emakumezkoak F11. Igoera fasea
Zarautz-Mondra
Domeka. 11:00. Asti.

BTLS-Eibartarrak
Domeka. 15:15. Ipintza.

Emakumezkoen Kopa
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 18:30. Ibarra.

Arizmendi Aretx.-Urki
Zapatua. 15:30. Almen.

Kadete emakumezkoak. F11
Esperientzia polita eta gogorra izan zen aldi berean. Lau hilabeteko praktikak izan ziren, baina azkenean urte osoa egon nintzen han lanean. Gero, Irakasle ikasketekin osatu dut nire bidea, eta uste dut ikasketak borobiltzeko modu ona izan dela; arlo asko jorratu ditut.

Eskoletan oso egoera gogorrak ikusten dira. Nik, beti, psikologia klinikoa ospitalean lan egitearekin lotu izan dut, baina ez dago ospitalera joan beharrik. Eskoletan oso egoera gogorrak ikusten dira, haurrei zuzenean eragiten dietenak. Edozein arazok izan dezake eragina gazte baten garapenean.

Ondoren, Irakasle ikasketak egin zenituen.

Bai, Psikologia ikasketak amaitutakoan master bat egiten hasi nintzen, baina ez neukan oso garbi hori ote zen egin gura nuena. Beraz, hura utzi egin nuen eta Irakasle ikasketekin hasi nintzen. Beti izan dut gustuko umeekin lan egitea. Gainera, ikasten ari nintzen bitartean, umeei ingeleseko eskolak ematen aritu nintzen, akademia baten. Zer ematen duten? Asko, poztasun handiak. Batzuetan, haserretu ere egiten zara, baina alde onak gehiago dira txarrak baino.

Orain, ume atzerritarrekin ari zara, euskarazko eskolak ematen.

Euskara ikastera etortzen dira; gure helburua da modu didaktikoan, jolasen bidez, euskara irakastea. Helburua herrian integratzea da. Oñatin ume gehienek euskaraz berba egiten dute; beraz, ezinbestekoa dute euskara ikastea integratzeko.

Samurra da modu didaktikoan euskara irakastea?

Ez pentsa; guk bi talde ditugu: 4-7 urte bitartekoak eta 8-13 urte bitartekoak. Txikienekin oso samurra da lan egitea; gure helburua da ume horientzat funtzionala izango den hizkuntza lortzea, betiere jolasen bidez. Nagusiekin zailagoa da; behar handiagoak dituzte eta euren lehenengo hizkuntza finkatuagoa dute. Arazo gehiago ditugu, batez ere motibatzeko orduan; eskolaz kanpoko orduak izan arren, lan egin behar dutela konturatu behar dute, eta hori oso zaila izaten da.

Gramatika egokia eskatzen zaie, irakurtzen jakitea... eta hori guztia landu egin behar da. Nagusiekin borroka hori dugu; oso zaila da interesa piztea.

Eskolak ematen dituzu, baina gogoratzen zara zu lehen nolako ikaslea zinen?

Egia esan, ez, ez daukat buruan nolako ikaslea nintzen. Nik uste dut ikasle ona izan nintzela, larregikoa agian; inuzente samarra ere, esango nuke. Kontuan hartuta oraingo gazteak nolako argiak diren, gu inuzente hutsak ginela uste dut.

ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak?** Psikologia eta Irakasle ikasketak. **Zaletasunak?** Irakurtzea, etxean egotea eta lagunekin egotea. **Baduzu maniarik?** Perfekzionista naiz. **Gomendatzeko moduko film bat?** *Million dollar baby*, Morgan Freeman oso gustuko dut. **Musikari bat?** Denetik entzuten dut, baina aukeratzekotan Van Morrison eta Bryan Adams. **Bizitzako leloa?** Inori traba egin barik bizi izatea. **Leku bat?** Londres, eta Oñatin, Araotz. **Amets bat?** Denok izatea zoriontsu izateko aukera.

FILMA ETA TELESAILA *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmaren irudi bat. Horren moldaketa da izen bereko telesaila. GOIENKARIA

TELEBISTA > 'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'

Mireia Gabilondok zuzendutako 'Kutsidazu bidea, Ixabel', ETB1en

Joan den domekan eman zuten, Euskal Telebistako lehenengo katean, 'Kutsidazu bidea, Ixabel' telesaileko lehenengo atala, Mireia Gabilondo bergararrak zuzenduta

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Joan den domekaz geroztik, Mireia Gabilondo bergararrak eta Fernando Bernuesek zuzendutako *Kutsidazu bidea, Ixabel* telesaila ikusteko aukera dago, Euskal Telebistako lehenengo katean. Domekero emango dute, 21:55ean.

Telesail hori izen bereko filmaren moldaketa da, hura ere Gabilondok eta Bernuesek zuzenduta, Josean Sagastizabalen eleberrian oinarrituta. Donostiako Zinemaldian estreinatu zen filma, eta Euskal Herriko aretoetan erakutsi zen gero.

EGOERA XELEBRE ASKO

Juan Martin donostiar gaztea da istorioko protagonista. Euskaltegian ikasi ondoren, baserri batera doa bere euskara hobetzera, eta han konturatuko da berak ikasitakoak ez duela errealitatearekin zerikusirik. Gorabeherak ugari izango ditu Juan Martinek, batetik, hizkuntzarekin, eta, bestetik, baserri giroa guztiz berria zaiolako. Horrez gain, familiako kideekin ere egoera bitxi asko bizi izango ditu, eta Ixabelekin, alabarekin, maitemindu egingo da. Ixabelek, ordea, mutillaguna du, Anjel Mari, mutil jatorra eta pilotari aparta.

Eskolan ere, hainbat egoera barregarri gertatuko zaizkio Juan Martini, ikasleak oso xelebreak dira-eta: Joxe Mari harakina, Pablo apaiza, Miren psikologoa, Luis Koldo medikua, Izaskun tabernaria eta Koro irakaslea. Hala, aspertzeko unerik ez dute izango, ez Juan Martinek, ez ikusleek ere.

ZUZENDARI ETA AKTORE

Mireia Gabilondok, filma eta telesaila zuzentzeaz gain, antzezle lanak ere egin ditu. Aktore nagusiak, baina, Mikel Tolosa eta Ainere Tolosa dira eta, horiekin batera, honako antzezleak daude: Iñake Irastortza, Iñaki eta Xabier Zapirain, Anjel Alkain, Joxe Ramon Soroiz, Asier Hormaza, Maite Arrese, Joseba Apaolaza, Ane Elordi, Egoitz Lasa, Lierni Fresnedo eta Aintzane Zigordia.

teknologia berriak

> ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK

Nec etxearen hiru gama berriak Core 2 Duo prozesagailuekin; LaVie C, LaVie J eta LaVie L

Asteon Nec etxeak ordenagailu eramangarrien hiru gama berri aurkeztu ditu, batzuk Blue-Ray irakurgailuekin.

LaView C 15 hazbeteko pantaila du eta Blu-Ray irakurgailua. LaVie J eramangarriagoa da; 12.1 hazbeteko pantaila eta Bluetooth-arekin. LaVie L bi gama ezberdinetan eskuragarri dago, basikoa eta aurreratua. Aurreratuak Core 2 Duo eta ATIU Xpress 1250 txartel grafikoa . Basikoak Celeron edo Sempron prozesagailuak erabiltzen ditu.

Erabilera ezberdinetarako prestatuta dauden LaVie gamako eramangarriak.

> DISKO GOGORRA

Segurtasun kopiak automatikoki egiteko 200GBtako Toshibaren disko gogorra

Toshiba japoniar etxeak backup (segurtasun kopiak) egiteko bere lehen disko gogorra kaleratu du.

Diskoak lau edukiera ezberdinetan eros daiteke: 100GB, 120GB, 160GB, 200GB.

NTI Shadow softwarea erabiltzen du segurtasun kopiak automatikoki egiteko. Windows XP edo Vista eta Mac OS X 10.3.9 edo berriagoekin bateragarria da.

Salneurria: 100GBtakoa 130 euro eta 200GBtakoa 230euro.

Edukiera ezberdinetan eros daiteke: 100GB, 120GB, 160GB eta 200GB.

> ARGAZKILARITZA

Hiru hazbeteko ukimen pantaila duen BenQ etxearen 7 megapixeletako kamera

BenQ enpresa taiwandarra T gamako lehen modeloa kaleratu du. Ukimen pantaila handiko kamera berria da.

Irudiak JPEG formatuan gordetzen dira gehienez 3072 x 2304 pixeletako erresoluzioan eta 640 x 480 pixel eta 30 fotograma segundoko bideoak MPEG4 kodeketa AVI formatuan. Informazioa SD txarteleran gordeko da.

120 gramoko pisua du bateriarik gabe eta bere dimentsioak honako hauek dira: 91 x 59 x 16.9 mm.

Salneurria 230 euro inguru.

T700 modeloak Pentax etxearen 3x zoom-a darabil eta 1200 ISO sentikortasuna.

PAMIELA
argitaletxea

Markak. Gernika 1937

"Imajina dezagun egoera; pentsa dezagun bonbardatuak, metrailatuak, erreak izan ziren biktimengan, edo kartzelatuak, beren ondasunez desjabetuak, beren hizkuntzan mintzatzeagatik mehatxatuak izan zirenengan –**¡Habla en cristiano!**–(...)"

Markak. *Gernika 1937 ausnarketa literario bat da gertaera lazgarri haren inguruan.*



berriak

> GOITB

'Berbaire' saioa, asteroko ezinbesteko hitzordua

Astero bezala, gizarte eta politika gaiak aztergai izango dira *Berbaire* saioan martitzenean, 21:15ean. Gorka Etxabe kazetariak aurkeztuta, honako hauek izango dira datorren asteko gonbidatuak: Arrate Landa irakaslea, Urko Lopez ETEOko irakaslea, Mikel Lezamiz soziologoa eta Larraitz Ugarte abokatua. Eguenean, hilaren 26an, ordu berean errepikatuko dute saioa.

> GOITB

Bergarako Erramu Zapatuko bertso saioa eguaztenean

Bertsozaleentzako saio bikaina Goiena Telebistak eskainiko dizuena. Erramu Zapatuan Bergaran, punta puntako bertsolariak izan genituen taula gainean: Egaña, Paya, Elortza, Iturriaga, Mendiluze eta Lujanbio. Aste bukaeran lehenengo zatia ikusi ahal izango duzue eta saioaren bigarren zatia, berriz, datorren eguaztenean eskainiko digute, hilaren 25ean, 21:45ean.

> ARRASATE IRRATIA

Des-Kontrol musika taldea 'Asteko gainbegiratua'-n

Martitzenean izan ziren Arrasateko Des-Kontrol taldeko bi kide 107.7ko autobusean, AEBn egin berri duten biraren gainean kontu kontari. Pozik itzuli dira etxera, 17 egunetako *oporraldiaren* ostean. AEBetara egin duten bigarren bira izan da oraingoa.

Bidaian bizitakoez gain, aurrerantzean dituzten asmoak ere kontatu zizkiguten. Asteburuan berreskuratuko dugu solasaldi hori.

> ARRASATE IRRATIA

Martitzenetan, elkarteen geltokia du uhinetako autobusak

Martitzenero dugu hitzordua elkarteen geltokian. Arrasateko elkarteak eta horiek bultzatutako ekimenak ezagutaraztea da helburua. Astean, Alkoholiko Anonimoak elkartera hurbildu gara 32 urte bete dituela aitzakia hartuta. *Asteko gainbegiratua* saioan izango duzue berriz entzungai.

Zuen elkartearen berri ere eman nahi dugunez, egin proposamena 943 71 17 31 telefonora deituta.

'HARMAILATIK' > ASTELEHENA, 21:15

Aloñako Igoeraren jarraipena 'Harmailatik' saioan

Domekan Oñatin jokatuko den lasterketaren nondik norakoak, astelehenean GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE

Aloñako Igoeraren III. ekitaldian 271 korrikalari lehiatuko dira domekan. Astelehenean, 21:15ean, lasterketaren gaineko erreportajea eskainiko du GOITBk. Julen Iriondok aurkezten duen *Harmailatik* kirol saioan jarraipen zehatza egingo zaio Oñatiko proba gogorrari. Partaideek 15,5 km-ko ibilbidea izango dute: Oñatiko Foruen enparantzatik irtengo dira 10:30ean. Urtiagain eta Belar pasatu ondoren Aloñako gurutzerako bidea hartuko dute eta handik herriko plazara jaitsi beharko dira.

ALOÑAKO IGOERA 271 korrikalari lehiatuko dira aurten. GOIENKARIA

MARRAZKI BIZIDUNAK, > EGUNERO

Umeentzako eskaintza geroz eta zabalagoa izango da GOITB-n

GOIENKARIA > ARRASATE

Goiena Telebistak umeentzako programazioa borobiltzeko aldaketak egingo ditu aste honetan. Izan ere, *Fernando Amezketarraren* istorio korapilotsuek ez dute toki gehiago izango gurean eta horren ordez, *Boboboak* marrazki bizidunak eskainiko ditu aurrerantzean GOITBk. Inoiz ikusi dituzuen izarrerako bidaiaririk atsegingarrienak ezagutuko dituzue; ezkutuko indar handiz jantzita daude eta ikaragarrizko ekintzak burutzen dituzte. Asteko bi egunetan ikusi ahal izango dute etxeko txikienek *Boboboak* marrazki bizidunak, martitzenetan eta eguenetan. Eguerdiko 13:15ean bata, arratsaldeko 17:15eaan bestea eta iluntzeko 20:15ean,berriz, azkena. Astelehen, eguazten eta egubakoitzetan aldiz, eta aurrekoaren ordu berean, *Calimero* txitatxoa izango da protagonista, eta asteburutan ere ez da faltako haurrentzako ikuskizunik, goizeko 8:00etan hasita. Beraz, etxeko txikiak egon adi pantailari.

telebegi

Unai Loidi

Konpetentzia

Konpetentzia gogorra agertu zaio ETB1eko gaueko albistegiari. TVEren La2 *prime time*-a indartzen hasi da, eta albisteak 20:30ean ipini ditu. Albistegi desberdina da kate horretakoa, alde guztietatik begiratuta ere desberdina. Lehengo *Miradas 2* albistegi kulturalarekin nahasteko modukoa iruditu izan zait beti, eta ikusteko atsegina. Baita kirolen tartea ere. Kontatzeko modua da batez ere desberdina: ia-ia lagunartekoa, erraza, horrek duen arrisku eta guzti (zehazgabea eta sinplea).

Baina *Cámara abierta* da agian, albistegi honetako tarterik aipagarriena. Telebista guztietan modan jarri den "kazetaritza partehartzailearen" adibide, ikusleek bidalitako erreportajeak emititzen dituzte: Kaleko eskaleen irudiak eta ahotsa, artista urbanoen ikuspegia, Espainiako nekazarien protesta eta aldarrikapena... Lokuziorik gabe, *La2 Noticias*-en oso estiloan, eta lan benetan txukunak. Maddalen Iriarte pantailara itzuli zenetik, gaueko *Gaur egun* gusturago ikusten hasia nintzen. Barkatuko dit, baina orain *La2 Noticias*-ek asko erakartzen nau.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.
Des-kontrol musika taldea; Josu Erguin, Kilometro jaiaren asmatzailea; Elkarteen geltokian, Arrasateko Alkoholiko Anonimoak; Metorologiaren geltokian Pello Zabalarekin, perretxikotan; Zinemaren geltokia, Amaia Labaienen eskutik...

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 20
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire.**14:15** Musikantoi.**14:45**Albiste aurrerapena.**15:15**Iragana gogoratuz. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Bertso saioa. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Ikusten. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**kirolari. **00:15**Emisio amaiera.

Zapatua, 21
08:00 Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Kirolari. **12:00** Astekoak. **12:15**Bizitegia. **12:30** Eltze beroa **13:30** Bertso saioa. **14:00**Ur eta lur. **14:30** Musikantoi. **15:00** Ikusmira. **15:30**Berbaire. .**16:00** Didjeridu. **16:30** Ilunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Ilkusten. **20:30**Erreportajea. **21:00**Berbaire. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

Domeka, 22
08:00 Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. **11:00**Ikusten. **11:30**Musikantoi. .**12:00**Ur eta lur. **12:30**Klip.**13:00**Bizitegia. **13:15**Klip@. **13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean**. 15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Kirolari. **18:30**Ikusten. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:30** Erreportajea.**21:00** Bertso saioa. **22:00** Berbaire. **23:00** Erreportaia.**23:30**Ilunpean.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

Astelehena, 23
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15**Ikusten.**14:45**Albiste aurrerapena.**15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Klip.**16:00**Bizitegia.**16:15**Kirolari. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak.**17:47**Ur eta Lur. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Musikantoi. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ikusmira. **00:15**Emisio amaiera.

Martitzena,24
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Harmaillatik. **14:15**Erreportajea.**14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak**16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15** Bizitegia. **18:30** Klip@. **18:45**Albisteak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea **22:15**Harmaillatik. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

Eguaztena,25
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero.**13:45**Gaurkoak.**13:47** Berbaire.**14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47** Hasiberriak. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Musikantoi. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Bertso saioa. **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

Eguena,26
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Bertso saioa. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa .**18:15** Teknopolis. **18:45**Albisteak. **19:15** Bizitegia.**19:30**Klip@. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Musikantoi **22:15**Didjeridu. **22:45**Berriak. **23:15**Erreportajea. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera.

UDAKO MODAREN BUFFETA
Har ezazu zeuk
Udaberriko modaz beteriko
50 establezimendu baino gehiago.
Eskura eta poltsikoaren eskueran
dituzun aukera amaigabeak.
Udaberri honetan,
erraza da modan izatea,
Gasteizko Boulevardera
etortzea bezain erraza.
www.el-boulevard.com
el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

Diseinuari begira: Opel Astra
MAXI Mes OPEL
Giauto
www.giauto.es
clientes@giauto.es
salmentak: 902 345 123
tailerra: 902 345 125
ELGOIBAR
Olaso 25
EIBAR
Otaola 27
ANOETA-TOLOSA
Benta-Aldea Ind. 3
ARRASATE
San Andres 10D
BERGARA
Olabarrena
OLABERRIA
Karobi Ind.
OPEL

Apirilak 20-27

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

Logotipo erakusketa

BERGARA
> Kilometroetako logotipoen erakusketa ikusgai dago atzotik, Aroztegin

Aranzadi ikastolak Kilometroetako logotipoen erakusketa antolatu du. 31 edizioetako logotipoak egongo dira ikusgai erakusketan. Atzo, eguena, hasi eta maiatzaren 1era arte egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan.

Musika

ARRASATE
> Atom Rhumbak emanaldia egingo du gaur, 3.60 aretoan

Atom Rhumba taldea Arrasatera hurreratuko zaigu. Bilboko rock taldearekin batera Royal Canal taldeak ere egingo du emanaldia. gaur, egubakoitza, izango da emanaldia, 23:00etan, 3.60 aretoan.

Musika

ARAMAIO
> Santikurutze Kanpezuko abesbatzak emanaldia egingo du

Udaberriko Kontzertuaren baitan Santikurutze Kanpezuko Ortzadar-Ioar abesbatzak emanaldia egingo du Aramaion. Bihar, zapatua, izango da emanaldia, iluntzeko 20:00etan, San Martin elizan.

Antzerkia

ELGETA
> 'Solala' antzezlana gaur, egubakoitza, Espaloian

Max saria jasotako antzezlana da Solala. Cristina Medina da aktorea eta zuzendaria David Sant. Pez en Rayaren produkzioa da.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espaloian.

ESKORIATZA
> Gaztetxoendako Ipuin kontaketa saioa astelehenean

Munduko ipuinak izeneko emanaldia egongo da. Bi saio egongo dira

Hilak 23an eta 26an, 18:00etan, liburutegian.

OÑATI
> Pikor Teatrok emanaldia egingo du gaur, egubakoitza

Jokoaut izeneko antzezlana egingo dute –11:30ean ikastetxeendako pase berezia egingo dute–.

22:30ean, Santa Ana antzokian.

OÑATI
> Haurrendako saioa egingo du Hankatxo Produkzioak taldeak

Pizti domadorea delako emanaldia egingo du. 5 urtetik gorako haurrendako gomendatuta dago. Emanaldirako gonbidapenak banatuko dituzte gaur, egubakoitza, 16:30etik 20:30era, kultura etxean.

Etzi, domeka, 18:00etan, Santa Ana antzokian.

Musika

ESKORIATZA
> Etxe musika taldeak zuzeneko emanaldia egingo du

Bide eginez izeneko diskoa aurkeztuko dute.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Inkernu tabernan.

ANTZUOLA
> Bergarako Musika Eskolako ikasleen emanaldia

Apirilean Musika egitarauaren barruan kalejira egingo du Bergarako Musika Eskolako Gazte Bandak herriko kaleetan barrena.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan.

OÑATI
> Udal Musika Bandaren emanaldia

Herriko Udal Musika Bandak ohiko kontzertua egingo du

Etzi, domeka, 12:30ean, Santa Ana antzokian.

BERGARA
> Tolosako Udal Musika Bandaren emanaldia

Bergarako Udal Musika Banda sortu zeneko 175. urtemuga ospatzen ari da aurten. Hori horrela hainbat ekitaldi antolatu dute. Ekitaldion barruan egingo du emanaldia Tolosako Udal Musika Bandak.

Etzi, domeka, 12:30ean, Udal pilotalekuan.

BERGARA
> Musikeneko egurrezko boskotearen emanaldia

18:00etan egingo dute emanaldia, *Apirilean Musika* egitarauaren barruan. Gero, 19:00etan, Jose Maria Ijarrubiak pianoa barrutik nolakoa den erakutsiko du.

Hilaren 24an, osoko bilkuren aretoan.

ANTZUOLA
> Antzuolako musikari gazteek saioa egingo dute

Herriko musikari gaztetxoenek emanaldi bikoitza egingo dute.

Hilaren 21ean eta 22an, 19:00etan, Olaran etxean.

Erakusketak

ARRASATE
> Elena Odriozola ilustratzailearen erakusketa Kulturaten

Ilustratzaile donostiarrak publizitate agentzia baten ekin zion lan munduari, baina 1998an hura laga eta marraztera dedikatzea erabaki zuen. Ordutik hainbat sari jaso ditu.

Maiatzaren 13ra arte, Kulturateko klaustroan.

ELGETA
> Espainiako gerraren gaineko erakusketa

Intxortako atea delako erakusketak Elgetako frontean izandako gertaerak ditu oinarri. Gauza bitxiak ikus daitezke erakusketan, esate baterako, bataila hartan izan ziren hegazkin eta tanke bilduma bat eskalan, alde bietako uniformeak, Elgetako frontean erabilitako armak, kartelak, dirua, txanponak...

Maiatzaren 3ra arte, Espaloia kafe antzokian.

ANTZUOLA
> Nagore Igarzaren argazki erakusketa

Antzuolako argazkilariak *Gelak* izeneko erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Olaran etxean.

Aste bukaeran egongo da ikusgai 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Hitzaldiak

ESKORIATZA
> Memoria historikoa emakumeen ikuspuntutik

La memoria historica desde el punto de vista de las mujeres delako hitzaldia egingo du Llum Quiñoreno historialari, kazetari eta gidoilariak.

Astelehenean, hilak 23, 19:00etan, Ibarraundin.

OÑATI
> Abiadura Handiko trena izango dute hizpide gaur

AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kide batek egingo du hitzaldia. Horrekin batera, *AHT gelditzea badago* delako bideoa emango dute.

Gaur, egubakoitza, 18:00etan, Portu tabernan.

Lehiaketak

GIPUZKOA
> '%100 Gipuzkoa' delako lehiaketa deitu dute

Norbere ingurunearen gaineko *mobilmetraien* (telefono mugikorrarekin grabatutakoa) lehenengo on-line lehiaketa deitu dute. 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

Argibide gehiago: *www.gipuzkoamobil.net* helbidean.

BERGARA
> Koldo Eleizalde Lehiaketaren 22. ekitaldia

Bertso eta komiki atalak ibarrera ireki dituzte, eta horiez gain ipuin eta antzerki lehiaketak izango dira.

Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 79 zenbakian.

Ospakizunak

OÑATI
> AHTren kontrako eguna antolatu du Gazte Asanbladak

11:30ean AHTren kontrako poteoa egingo dute Portu tabernatik abiatuta. 14:30ean bazkaria izango da Portu tabernan eta 18:00etan, trenaren kontrako kalejira deitu dute.

Bihar, zapatua, izango da.

PROPOSAMENA

OÑATI
> Euskal Herriko txistularien alardea Miguel Biainen omenez

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko txistularien ordezkariek Oñatin egingo dute Euskal Herriko Txistularien Alardea bihar, zapatua. 24. edizioa da aurten egingo dutena. 19:00etan hasiko da ekitaldi nagusia, Foruen plazan. Miguel Biain, Oñatiko txistulari zena omenduko dute egun horretan. Euskal txistuaren alde egindako lan guztia eskertu nahi diote.

Bihar, zapatua, 19:00etan, Foruen plazan.

nire aukera

Maria Jesus Ugalde
Bergarako Musika Eskolako zuzendaria

Aste bukaera Bartzelonan

Egubakoitz gauak "senarra eta biondako dira", esan digu Ugaldek: "Harekin joaten naiz afaltzera, seme-alabak aitona-amonaren etxean lagata".

Gustuko aste bukaeraz galdetuta, zera esan du: seme-alabekin hiriburu batera joatea atsegin dut, Bartzelonara batik bat; ahizpa han bizi da eta oso ondo hartzen gaitu joaten garenetan". Bartzelonara joan eta zapatuan umeekin zoora, aquariumera... joaten dira: "Gauza asko dago umeekin egiteko". Gauean, berriz, senarrarekin ikuskizunen batez gozatzea du gustuko.

Zer deritzozu Debagoieneko kultura eskaintzari?
Nahiko pobrea. Normalean kanpora joan beharra egoten da. Aurten, esaterako, nahikotxo joan gara Gasteizera umeendako egitarau polita izaten dute-eta Principal Antzokian.

Musika talde edo bakarlari bat aukeratzekotan zein?
Gasteizen ikusi genituen Monteverdi Abesbatza eta Orkestra.

Seme-alabengan musikarako zaletasuna sortzea lortu duzue?
Bai. Gustura joaten dira kontzertuetara, pedagogikoetara, batik bat.

Non izan zara Aste Santuan?
Gaztela-Leonera joatekoak ginen baina seme-alabak gaixotu egin ziren. Hortaz, Laredon izan gara eta azken bi egunetan Burgosen.

Zer gomendatuko zenieke bisitariei gure ibarretik?
Bergara eta Oñatik eraikin polit asko dute ikusteko.

Zinema

ARAMAIO
KULTURA ETXEA

Askatasun hegoetan
Domeka: 17:00.

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

Diamante de sangre
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Un puente hacia Terabithia
Zapatua: 17:00.

Cartas desde Iwo Jima
Eguena: 20:30.

ELGETA
ESPALOIA ANTZOKIA

Manuale D'Amore
Eguaztena: 21:30.

BERGARA
AGORROSIN EKINTZA GUNEA

Oliver Twist
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

El ultimo rey de Escocia
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Azuloscurocasinegro
Eguena: 20:00.

PORTU TABERNA

Fahrenheit 9/11
Domeka: 21:00.

EIBAR
UNZAGA

El numero 23
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ
GURIDI

La vida en rosa
17:00, 19:45, 22:30.

La vida de los otros
17:00, 19:45.

Disparando a perros
22:30.

Descubriendo a los Robinsons
18:30.

Kanguro
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 20:30, 22:30

Cerdos salvajes
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

300
17:30, 20:00.

El velo pintado
22:30.

Seduciendo a un extraño
17:30, 20:00, 22:30.

El numero 23
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Tu la letra, yo la musica
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

¡Porque lo digo yo!
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:20, 22:30.

Pudor
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 20:15.

El corazon de la tierra
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Diario de un escandalo
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

River Queen
17:30, 20:00, 22:30.

Sunshine
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

El numero 23
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Sunshine
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

The river queen
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Seduciendo a un extraño
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Shooter, el tirador
16:00, 19:00, 23:00.

El corazon de la tierra
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Descubriendo a los Robinsons
16:00, 18:15, 20:30.

300
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Un puente hacia Therabitia
16:00, 18:00, 20:00.

Diamante de sangre
19:00, 23:00.

Infiltrados
23:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Sunshine
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Tu la letra, yo la musica
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

El numero 23
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Seduciendo a un extraño
15:50, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

Cerdos salvajes
18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Shooter, el tirador
19:00, 21:45, 00:15.

El corazon de la tierra
12:15, 15:40, 17:40, 19:40.

La cosecha
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

300
19:30, 21:50, 00:20.

Las vacaciones de Mr. Bean
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

¡Por que lo digo yo!
20:25, 22:25, 00:25.

Diario de un escandalo
12:15, 16:30, 17:15.

The messengers
12:15, 16:10.

Darwin Awards: muertes de risa
21:45, 23:45.

Diamante de sangre
19:15, 21:55, 00:35.

Infiltrados
21:45, 00:30.

Alpha dos
22:10, 00:25.

Descubriendo a los Robinsons
12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

Azur&Asmar
12:15, 15:55, 17:45, 19:45.

Un puente hacia Therabitia
12:15, 15:45, 17:55.

Arthur y los Minimoys
12:15, 16:20.

Happy feet
12:15, 15:30, 17:30.

El ratoncito Perez
12:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Sunshine
12:10, 15:40, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.

Tu la letra, yo la musica
12:00, 15:45, 18:00, 20:30, 22:45, 01:00.

Cerdos salvajes
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Seduciendo a un extraño
12:00, 15:40, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.

Shooter, el tirador
12:00, 17:00, 19:40, 22:00, 22:20, 01:00.

La cosecha
12:10, 16:05, 18:15, 20:25, 22:40, 01:00.

El buen pastor
12:00, 16:05, 18:20.

El jardinero fiel
Egubakoitza eta zapatua: 11:45, 16:00, 19:30, 23:00, 01:00.
Domeka: 17:00, 20:30.

¡Porque lo digo yo!
12:00, 16:0, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Descubriendo a los Robinsons
12:00, 15:45, 18:00, 20:10.

Las vacaciones de Mr. Bean
12:10, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Diario de un escandalo
22:30, 00:30.

The messengers
20:10, 22:10, 00:30.

300
12:00, 15:40, 18:00, 20:20, 22:45, 01:00.

Rebelion en la isla
12:15, 16:10, 18:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

300 ***
AEB, 2004. Zuzendaria: Zack Snyder. Aktoreak: Gerard Butler, Rodrigo Santoro, Lena Headey.
115 min.
V. mendea Kristo aurretik. Pertsiako inperioak erenditzeko eskatu dio Greziako konfederazioari. Atenas eta beste hiri estatuak ez daude ados horrekin. Espartako erregeak persiarrei aurre egitea erabakiko du, 300 soldadu indartsuenekin. Filma Frank Millerren komikian dago oinarritua.

Alpha Dog
AEB, 2007. Zuzendaria: Nick Cassavetes. Aktoreak: Bruce Willis, Sharon Stone.
116 min.
Johnny Truelove gazteak diru asko du, eta Los Angeleseko luxuzko etxe batean bizi da. Festa ugari antolatzen ditu etxe horretan. Droga trafikoari esker du luxuzko bizimodua, baina egun batean mundu hori guztia kolokan jarriko da.

Confianza ciega
AEB, 2007. Zuzendaria: Etienne Chatillez. Aktoreak: Cecile de France, Vincent Lindon.
98 min.
Elkar ezagutu aurretik, Chystelek eta Christophek ez zuten inorengan konfiantzarik eta ez zekiten zer zen norbait maitatzea. Horregatik, elkarrekin daudenetik ez dute inoiz banandu nahi. Maitasuna dagoenean, konfiantza itsua da...

Descubriendo a los Robinsons ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak.
102 min.
Lewisek etorkizunetik datorren mutil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

Diario de un escandalo
AEB, 2007. Zuzendaria: Richard Eyre. Aktoreak: Judi Dench, Cate Blanchett, Bill Nighy.
92 min.
Barbara irakasle bakartia da, Londresen. Sheba eskolako arte irakaslea heltzen denean, behar zuen laguna bilatuko du. Baina egun batean, Shebak ikasle batekin harremana duela jakingo du Barbarak.

El buen pastor ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Robert de Niro. Aktoreak: Matt Damon, Angelina Jolie, William Hurt, Joe Pesci, Alec Baldwin.
160 min.
Robert Wilson gazte idealista bat da, Margaretekin ezkondu berria. AEBetako Zerbitzu Estrategikoen Agentzian sartuko da, CIAren aurrekoan. Wilson denborarekin gero eta hotzagoa bilakatuko da, eta horrek bere bikote bizitzan eragin kaltegarria izango du.

El corazon de la tierra
AEB, 2007. Zuzendaria: Antonio Cuadri. Aktoreak: Catalina Sandino Moreno, Sienna Guillory, Bernard Hill.
90 min.
1888. urtea. Espainiako armadak Riotinto herriko biztanleei tiro egingo die, kalean protestan dabiltzan bitartean. Gatazka horren erdian, meatzari baten alabak eta zaldun britainiar baten ilobak adiskidetasun harreman bat hasiko dute, eta maitemindu egingo dira.

El ultimo show
AEB, 2006. Zuzendaria: Robert Altman. Aktoreak: Meryl Streep, Woody Harrelson, Lily Tomlin.
105 min.
Fitzgerald Theater antzoki zaharra botatzekotan dira, eta han country musikako irratsaio baten azken emanaldia egitekotan dira.

El velo pintado
AEB-Txina, 2007. Zuzendaria: John Curran. Aktoreak: Ed Norton, Naomi Watts, Liev Schreiber, Toby Jones.
125 min.
Kitty gazte britainiar bat da. Familia ingurutik ateratzeko, Walter medikuarekin ezkonduko da. Shanghaira joango dira, eta han Kitty AEBetako gizon batekin maiteminduko da. Baina senarra haien arteko harremanaz ohartuko da.

Seduciendo a un extraño
AEB, 2007. Zuzendaria: James Foley. Aktoreak: Bruce Willis, Hale Berry.
109 min.
Nowena Priceren txikitako laguna hil dute eta ez dute hiltzailea aurkitu. Nowena bere kabuz ikertzen hasiko da.

La flauta magica ****

Zuzendaria: Kenneth Branagh.
Aktoreak: Joseph Kaiser, Amy Carson, Benjamin Jay Davis.
AEB. 2007.

Kenneth Branaghen jatorria antzerkia bada ere, urte dezente darama zinema munduan lan distiratsuak, biziak eta pertsonalak egiten. Bestelako filmak egin dituen arren –*Los amigos de Peter* edo *Morir todavía*–, gehienetan antzerkia, literatura eta zinema batzen eta era berean nahasten saiatu da. Ez du klasikoen egokitzapen akademikorik egin nahi, arte bakoitzak bere hizkuntza du, eta ideia hori kontuan izanik eta jatorriaren esentzia mantenduz, egokitzapen bakoitzetik ikuskizun berri, originala eta sutsua lortu izan du.

Branagh gizon ausarta da: *Frankenstein*-en bertsio ikusgarri bat egin zuen, Hamleti buruzko lau orduko film ederra egin zuen, *Mucho ruido y pocas nueces* oso bertsio kolorista eta gozagarria egin zuen, eta *Trabajos de amor perdidos*en *Shakespeare* eta *Hollywood* eta *Broodway* munduen abesti eta dantzak oso modu egokian bildu zituen.

Orain estreinatu den *La flauta mágica*-n goian aipatutako ezaugarriak ematen dira. Branaghek Mozarten opera zoragarria eskaintzen digu baina zineman bihurtuta. Koloreek, kamara mugimenduek, irudiei emandako erritmoak, intimismoa eta pertsonaia ugari agertzen diren eszena ikusgarrien arteko bizikidetza harmonikoak, oso film ederra osatzen dute. Dena den, opera gustukoa ez duen ikusleak hobe du beste film bat aukeratu; opera gustukoa duenak, berriz, gozatu egingo du, eta opera eta zinema gustuko duenak ezin du galdu *La flauta mágica* ikusteko aukera.

Antonio Zabala



Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2007-04-20

Gose, Carlinhosen teloneroak

HIRU KONTZERTU Madrilen, Valladoliden eta Segovian Carlinhos Brownekin joko du Gose taldeak

CARLINHOS BROWN Antza denez, musikari brasildarrari Gose taldearen diskoa asko gustatu zitzaion

GOSE Arrasatearrek bigarren diskoa kaleratuko dute aurten, Durangoko Liburu eta Disko azokarako

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Carlinhos Brown musikari brasildar ezagunak Espainiako Estatuan aurki emango dituen kontzertuetan Arrasateko Gose taldearen laguntza izango du. Emanaldiok maiatzean izango dira: hilaren 8an, Madrilgo La Riviera aretoan; hilaren 10ean, Valladolideko Pisuerga kiroldegian; eta maiatzaren 26an, Segoviako Albuera futbol zelaian. Iñaki Bengoa (perkusioa eta erritmoak), Ines Osinaga (ahotsa eta soinua) eta *Tadeos* (gitarra eta baxua) Gose taldeko kideak Carlinhos Brownen *teloneroak* izango ditugu hiru kontzertu horietan. Brownek Donostian ere aurkeztuko du bere azken diskoa, Victoria Eugenia antzokian, maiatzaren 23an, baina han ez dute joko Gosekoek. Iñaki Bengoa Gose taldeko kidearen esanetan, "antza, Carlinhosi gustatu egin zitzaion gure diskoa eta haren ordezkari batek deitu zigun. Sorpresa atsegina izan da. Estilo aldetik ez daukagu zerikusi handia berarekin; nik behin ikusi nuen Carlinhos zuzenean eta, egia esateko, ez ninduen hunkitu. Dena dela, hurrengo egubakoitzean kontzertuen aurkezpena daukagu Segovian, eta orduan galdetuko diogu zergatik aukeratu gaituen guri".

'EUTSI!' FILMA

Gose taldearen trikitia eta elektronikaren arteko eskaintzak harrera gero eta hobea dauka aspaldian. *Eutsi!* filmeko soinu bandan ere hartu dute parte, bi abesti eginez: filmeko izenburua daramana eta Gatillazo taldearen *Comunicado empresarial para la concordia y el bienestar social* kantuaren bertsioa. "Aurrekoan ikusi nuen filma eta ondo dago, uste baino hobeto. Musika aldetik ere gustura geratu gara emaitzarekin", dio Bengoak. Bigarren diskoa Durangoko azokarako kaleratzeko asmoa dute Gosekoek. Brownekin jo bitartean, atzo Euskal Telebistaren 25. urteurreneko jaian jo zuten Bilbon eta gaur, egubakoitza, Donostiako Lugaritz aretoan arituko dira.

GOSE Carlinhos Brownek Espainian emango dituen hiru kontzertuetan Gosekoak izango dira *teloneroak*. E.M.

ahobero

"Irakeko biztanleriaren gehiengo batek argi utzi du bakean bizi nahi duela"

George W. Bush
> AEBtako presidentea

Irakeko gerrak eskuetatik ihes egin die estatubatuarrei eta haien aliatu izan direnei. Eta argi geratu da George W. Bush ez dela bakearen izenean berba egiteko pertsonarik egokiena. Hobe luke etxe barruko biolentzia zaintzea lehenbizi.

iturri onetik

Kilometroetako abestia Asier Elortzak eta Bergarako bertso eskolakoek egin dute

Urrian Bergaran ospatuko den Kilometroetako abestia maiatzeko azken egunetan grabatuko dute Arrasaten. Asier Elortza Bergarako Belceblues taldeko abeslari eta Aranzadi Ikastolako irakasle denak egin du musika eta Bergarako bertso eskolakoek letra. Abestia oso dantzagarria eta belarrian lehen entzunaldian geratzen den horietakoa da, country doinua. Dozena bat musikarik grabatuko dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Mihia luzatzen

Arrasateko udala egon daiteke harro, langileak hautatzeko duen sistemaz. Duela ez asko, Portaloiko Biztanleen Arreta Zerbitzurako lantalde berria hartu zuen eta *Mihiluze* telebista saioko bikote listoena zegoen tartean. Inoizko saririk handiena irabazi berri dute, 20.000 eurotik gora. Zorionak, Iñaki eta Ane.

Baita saioa egiten duten guztiei. Astean behingoan gustuko nuen, eta beldurtu egin nintzen eguneroko jarri zutenean, saioa mehetu eta formula erreko zutelakoan. Baina, asmatu egin dute. Hizkuntza jolas tresna bihurtzea oso formula ona da hiztunak atxikitzeko, eta poza ematen du maparen edonongo jolaskide jantziak ikustea.

Oro ez da urre, bada itzalik. Hala ere, *Mihiluze* saioa euskararen osasun sintoma da, soberan ez ditugun horietakoa.

ai, ene!

Portzelanazko eraztunak fruta paretan izateko

Portzelanazko eraztun hauek fruta gordetzeko diseinatu dituzte Alemanian. Fruta-arbola bitxiak badira...

http://tinyurl.com/2rzfrj